Iñigo Aranbarri

Zulo bat uretan

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2008 Iñigo Aranbarri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2008ko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

–1–

City hoteleko gelan Hans Langsdorff-ek bi gutun idatzi zituen: bata, emazte Ruthi eta alaba Ingridi; bestea, Agintaritza Gorenari: «Ohorearen arrastorik duen kapitain batentzat etorkizuna ez liteke ontziaren bestelakoa izan». Ordu batzuk lehenago, hilabeteetan manupean izan zituen gizon guztiak agurtu zituen. Bi azalak ohe ondoko mahai gainean utzi eta kanporantz behatu zuen: udako gaua Buenos Aires altzoan kulunka. Azkenaldian sarritan bezala, Rügengo labarrek hartu zioten gogoa, Baltiko gainean zintzilik. Gala-uniformeko botoi urrekarak doitu zituen. Armairua zabaldu, oihala esku artean hartu, zurezko atea zarratu eta, Alemaniako banderan bilduta, ohe gainean etzan zen. Sabaiko hezetasun orbanean korazatu baten aginte zubiaren itzala ikusi zuen, eta masta bat ostean, baga artean hondora zihoazenak. Hasperen egin zuen.

Tiro hotsak aldameneko geletako bezeroak iratzarri zituen.

–2–

Ederra zait lanbide hau. Besteak beste esango nuke benaz gertatu diren istorioak kontatzeko aukera ematen didalako maite dudala. Neure arrazoiak baditut, aitortzen lotsarik ematen ez didatenak gainera. Idazten dugulako, ilun izan dena argi bihurtzen da; zati zena, oso; eta urrutikoa, etxeko. Baina idazleak ez bezala, bestelako zorra duelakoan nago kazetariak errealitatearekin. Labur esateko: ezin du gertatu ez dena idatzi. Badakit ez dela beti hala, baina izandakoak soilik lotu behar luke eskua, hura du ore eta ezin besterik izan gero irakurleari eskainiko diona.

Horrela azalduta, bistan da, hartu beharreko esparrua zabalegia begitandu daiteke, eta zedarritu beharra dago, horretan ez dut mendreneko dudarik. Neuri dagokidanez, aspaldi bete nituen lan horiek. Aukeran, ez dut erredakzioko lana gogoko, ezin eramanekoa zait albiste agentziek behartutako bidea, gorroto dut erakundeek bultzatutako ospakizunen txistu airean dantzatu beha-

rra. Askotan ez dut beste erremediorik baina. Eta zer idazten dudan ikusita lanaz galdetzen didatenean, ez okertzeko, ez dudala historia maite erantzun ohi dut, historiaren zabortegian galdu aurretik oroimenak berreskura ditzakeen istorioak direla nire galbidea. Horiexen ehizan nabilela pozarren diot. Horiexek bizi ditudala eta horiexek bizi nautela.

Eta Oscarrek, oker egon nintekeen baina berehala harrapatu nion, bazuen kontatzea merezi zuen istorio bat.

– Gure aitona zuan marinel haietako bat, Oskar Escher zian izena. Ehun eta hamar kilotik gorako gizona zuan, eta hala ere baltseoan kurlintek baino hobeto egiten zuela ziotean emakumeek.

Zangoak luzatu eta oinak elkarren gainean jarri zituen, nagiak ateratzen ari balitz bezala.

«Kurlinta bat», errepikatu nuen neure artean. Beste kafe bat hartuko zuela esan nion.

– Gaur merezi dik.

1939ko abuztuaren 21a zen, astelehena, Graf Spee korazatua Wilhelmshavengo portutik atera zenean. Hans Langsdorff zuen kapitaina,

baga artean asko ibilitako marinel profesionala. Itsaso zabalean zirela jakin zuten Alemaniak Polonia inbaditu eta Frantziak eta Britainia Handiak gerra deklaratu zietela.

Itsasketak iraun zuen ehun eta hogei egunetan bederatzi zamaontzi hondoratu zituen Langsdorffek, ingeles banderadunak guztiak, baporeetako gizonak salbatuta beti. Atlantiko erdian zebilen abenduaren aurreneko astean La Plata ibaiaren bokalera joateko agindua jaso zuenean. Iritsi zitzaien informazioaren arabera, handik ari ziren irteten Europari ezarritako blokeoa hausten zebiltzan ontziak. Brasil aurrean zirela, Rocha muturretik 280 miliara, Exeter gurtzeru astuna eta Ajax eta Achilles arinak agertu zitzaizkien bidera.

Eguna zabaltzen ari zuen Exeterren aurka su egin zuenean. Bi ontzi nagusiak elkarren kontra aritu ziren artean, bi txikiek behin eta berriz jo zuten Graf Spee. Hogeita hamasei marinel hil zituzten ingelesek. Langsdorffek, zaurituta berau ere, Montevideoko portuan sartzea erabaki zuen.

Koilaratxo bat azukre bota, eragin eta, kafea hozten utzi zuen Oscarrek. Agian Graf Speeren pasartea inoiz entzun gabea nintzelako, jakinmina piztu zidan aitonarenarekin nola lotuko zuen ikusteko.

– Garagardorik edo nahi duk? Kopakorik?

Hamabost eguneko babesa eskatu zion Langsdorffek Uruguaiko Gobernuari. Alfredo Baldomir presidenteak, diplomazia ingelesa zuela sakaka atzetik, 72 ordukoa baino ez zion eman. Marinel hilak Iparreko kanposantuan hobiratu, ahal zen neurrian ontziak izandako kalteak konpondu eta Berlinera telegrafiatu zuen Langsdorffek. Bere esku zegoen erabakia.

Uruguaiko Gobernuak emandako muga ordua betetzear zela, Graf Speek bokalerako bidea hartu zuen, Tacoma zamaontzia zuela gibelean. Mila gizon utzi zituen Langsdorffek lehorrean, berrogeirekin baino ez zen atera abrara. Mukuru bildu zen jendea Sarandiko uharritzan, ikusmiran. Zabalean, ingeles flota zuen Graf Speek zain. Aurreko orduetan kazetariz betetako hegazkinak heldu ziren Estatu Batuetatik ibaiaren bi hegietara, borrokaldia filmatu eta mun-

duari kontatzeko. Ez alferrik, Bigarren Mundu Gerra bera zen Hego Hemisferioko biztanleei ustekabean etxe atariraino ikuskizun heldu zitzaiena.

Korazatuak motorrak itzali zituen. Subofizial batek bolborategian lehergailuak paratzen zituen artean, tripulazioak Buenos Airestik heldutako atoiontzietara pasatzeko agindua jaso zuen. Mastan gora igoarazi zen bandera. Borraz hautsi zen tresneria elektronikoa, radar berritik hasita.

Langsdorff bera izan zen ontzia uzten azkena. Arratsaldeko zazpietarako bost minutu falta zirela, danbateko mutiria entzun zen ibaiaren erdian, ke beltzezko traganarrua zerurantz igotzen gero. Ilunduta zegoen atoiontziak Buenos Airesera iritsi zirenerako. Ordurako Graf Speeko marinelak guztien ahotan zeuden.

Oscarrek esanda bezalaxe dakartzat orriotara hitzak. Nola ez dakidala, kontatu zidan bezala kontatu izanak neu ere moiletan izatea lortu zuen une batez, Langsdorffen eta honen gizonen zain. Banekien horrexek galtzen ninduela maiz: iraganeko gertaera ederrek gaurko gaurraz ahaztera naramate.

«Kazetariaren lana al da iraganaz arduratzea?», aurpegiratu izan didate inoiz lankideek era honetako artikuluen arriskuez aritu izan garenean.

Haiek ez dakite zer den hau, ordea.

Ez dute espero: «Historia ahazteko egina dago», erantzun ohi diet. «Edertasunak salbatzen ditu istorio txikiak».

Ondorengo urteek ez dute ordura artekoen epikotasunik. Oskar Escher eta haren lagunak presondegikoarekin zerikusirik ez duen gatibutzan izan zituen Argentinako Gobernuak, Buenos Airesen bertan. Ipar ditxoaren kontra zegoen Etorkinen hotel zaharrera bildu zituzten harik eta egoera argitu zen arte. Santa Ferako bidea hartu zuten hauetako batzuek, eta Monte Vera aldean lan egin zuten, arrantza baporeetan. Edo Mendozara jo zuten, alemaniar etorkinen esku zeuden garagardo fabriketan aritu ziren. Beste batzuek, aldiz, ihes egin eta Europara itzultzea lortu zuten, gerran jarraitzeko.

Oscarrek aurrez hamaika bider egina balu bezalaxe, ongi antolatuta kontatzen dit dena,

geldialdiak eginagatik jarioa eten gabe, entzuleak nazkatzeko betarik izan ez dezan.

Oskar Escher eta beste hirurehun eta hogeita bederatzi lagun La Ventana mendilerrora igorri zituzten, mende hasieran *belle époque* estiloan eraikitako hotel batera. V. erregimentuaren zaintzapean egon ziren gerra amaitu eta gerora arte. 1946a zen aske utzi zituztenean.

– Aitonak esatera, hamabostean behin dantza saioak antolatu ohi zitiztean Ispiluen Aretoan, eta erdeinuak janda zuen trenbidean, lokomotoretako bat ere jarri ahal izan zitean martxan, denboralean hondatuta egon ostean. Laurehun pesoko soldata zitean, eta trajeak eta oinetako berriak sarri antzean.

Hogeita lau urte zituen Oskar Escherrek Maria Merenson ezagutu zuenean. Denda bateko erakusleihoan beha ikusi omen zuen, eta tea hartzera gonbidatu. Buenos Airesera ezkondu ziren. Zapatari jarri zen etxepean errentan harturiko zulo batean. Miserere plazako tren geltokia ikusten zen atetik, jendea abiatzen eta heltzen etengabean.

– «Neu bezala, bizimodu berrira» esan ohi ziguan berak.

Once auzoko tren geltokia: huraxe zen metropoliaren aurreneko irudia kanpotik heltzen ziren askorentzat, eta hantxe zegoen Escher, bidearen latzak marruskatutako zapatak, uhalak eta maleta hautsiak konpontzeko gertu.

– Han hazi zuan gure ama, eta hantxe topatu zian gure aitak, Antonio Iriartek, oinetako pare bat konpontzera eraman zuen batean. Ikusten duk: bil daitekek hobeto lurralde baten historia nigan baino?

Irribarre egin zuen. Tximeleta tropikalak ziruditen haren eskuek kafe kikararen gainean keinuka.

– Armada nazian ibilitako soldadu alemanak, ukrainar juduak, XIX. mendetik Olavarriako panpetan abeltzaintzan eta esneketan ibilitako euskaldunak... okerreko hariez egindako amarauna, hori nauk ni, Imanol.

Hala egin zuen Oscarrek bere buruaren aurkezpena.

– Orain badakik zergatik daramadan izen hau neurekin.

Atea zabaltzen sentitu genuen. Giltza hotsa. Paper lodizko zorroena zoru gainean pausatzen. Korrika batean sartu zen Laida sukaldean. Ustekabeak geldiarazi zuen.

– Egin kasu Oscarri –diotsot, baina etorri den bezala alde egin du, Spidermanen morrala arrastaka duela.

Zango artean kiribildu zaion umea ahal duen moduan baztertuta, agurtzera sartu da Esti. Beroak itota datorrela dio, eramangaitza zaiola sapa hau.

– Zer moduz eguna?

Postontzitik igotako gutunak utzi ditu mahai gainean.

– Bakean utziko zaituztet, izango duzue-eta zertaz jardun.

Aitonarena kontatzen segi zezala erregutu nion Oscarri. Ez zuela askoz gehiagorako ematen, askatu zidala behinena, hori izan zuen erantzuna.

– Judu komunista baten alabarekin ezkondu zen aleman soldadu ohia, zer esango diat ba, hainbeste izango dituk munduan.

Berak ongi zekien horrenbeste urte igaro izanagatik kontatzeko moduko istorioa zela aitonarena, horregatik aumentatu zidan. Eten arteraino ez tiratzea zen kontua, berez hasiko zen ostera ere, berak sortutako ikusminari jaten eman beharrak helduko zion berandu baino lehen.

– Gure etxean inor ez duk ezer izan, ordea. Amak ez dik deus amonaren ukrainartasunetik, are gutxiago judutik. Esaten zioat oraindik ere, lehengo astean azkena, mintzatokitik deitu diodanean, «bazara ba zu halako arnegatua, ama, Mahler bera baino arnegatuagoa!». Ikasi zian umetan, baina nekez entzungo diok hari ukraineraz mintzatzen, ezta amonaren aldekoekin ere.

«Aita zer edo zer gehiago. Hutsa. Ez nioan Saninazio egunean ez bazen Belgrano kaleko Euskal Etxerako joerarik ezagutu. Olavarriako familiari ikasita abesten genituen kantuak eta Gernikako Arbolaren platertxo bat egongelako horma txikian, hara zer zen Euskal Herria niretzat hona etorri aurretik.

«Aitona ere ez zuan auzoko gainerako alemanekin egotera emana. Esan diat, deserrotu koadrila gure etxea. Ontziko lagunik ez nioan gure-

kin bizi izan zen artean inoiz ezagutu. Gerrak bere hautsak batu ondoren Argentinan aterpe hartu zutenak berriz, bazakiat, ez zitian oso bereak. Eta ez zituan gutxi, auzotik ez urruti ezagutu nitian batzuk. Laurogei mila izan zirela esaten duk, gutxi-asko, legez kanpo sartu zirenak: herritarrak, soldadu edo ofizial ohiak, tartean, baita nazioarteko atxilotze agindua zuten berrogeita hamar gerra kriminal ere, Vatikanoaren eta Espainiako enbaxaden bitartez eta Gurutze Gorriaren pasaporteekin hauetako batzuk: Eichmann, Mengele, Kutschmann, Priebke... harrezkero, itzala hor izan duk beti, Barilocheko Deutsche Kluben, Chacoko okindegi batean, Misionesko agure amultsu baten aulki hutsean, *timbo* baten gerizpean...».

Ezagun zuen, Oscar bereizketa egin nahian zebilen, ez nahasteko gerrara behartuta eramandakoak agintariekin esaten ari zitzaidan, aitona ez zela haietarik. Ez nintzen ni izango kontra egingo ziona. Jaikitzeko keinua egin zuen ostera eseri zenean. Mahai gainean utzi zituen tabakoa eta txiskeroa.

– Baduk, dena den, oso jende gutxiri kontatu izan diodan pasadizoa –jarraitu zuen–. Bederatzihamar urte izango nitian. Igande goiza zuan, hori seguru. Uztaila edo abuztua zela bakarrik zakiat, negu gorria behintzat. Amari San Martin parkera gindoazela eta bazkaltzeko itzuliko ginela esanda, Pueyrredon kaletik barrena Corrientes etorbideraino igota, aitonak eta biok metroko B linea hartu genuela diat gomutan. Chacaritako hilerrira sartzen nintzen lehenbiziko aldia zuan. Hitzik egin gabe egin genian Lacrozetik aurrerakoa, gizon handi bat gizon txiki bat eskutik helduta duela panteoi artetik. Zertaz akordatzen den bat, estropezu egin nian, zuhaitz baten sustraia zuan, lurra harrotuta kanporantz irtena. Eta zapatariaren esku latz beroa han, haurra muturrez aurrera eror ez zedin. Harrizko aldaretxoaren gainean gurutzea zian hilobiak, eta aurrean, belardi zaindua. Begi handiko katea hura babesten. Gurutze gehiago alboetan. Ez diat gogoan lorerik zegoen. Inguruan, marmol beltzezko hilarri sendoak. Ez gintuan luzaro egon, ez zian otoitzik egin.

Erretzerik bazuen galdetu zidan. Hautsontzia hurbildu nion harraska gaineko apaletik.

– Asmatu duk, Langsdorffen azken ohantzea zuan.

Zigarroa atera zuen. Txiskero harriaren hotsa. Garra tabakorria erretzen. Zera berezi bat eragiten dit oraindik ere hasierako kearen usainak.

– Ez nioan, bizi izan zen artean, bisita hura egundo aipatu. Gerora harrapatu zidaan gogoa. Harrezkero behin bakarrik itzuli nauk Chacaritara, aita hobiratu genuenean. Ez Peron, ez Gardel, egongo dituk zain nahi badute. Ni ez nauk turista. Hil arte ametsetan esnatzen zela zakiat, baporean ibiltzen zela hara eta hona, bolbora errearen usaina zabaltzen izara garbietan. Orduan bakarrik mintzatzen zuan alemanez, oihu batean. Beldurra ematen ziola zioan gure amonak.

Jaiki eta hautsontzia eskuan, leiho zabaldura hurbildu zen. Kanporantz ateratzen zuen besoa xurgada bakoitzean.

– Ez duk zaila jakitea zergatik estimatzen zuen kapitaina –jarraitu zuen handixe–. Gerraren

gorrian Berlindik nahi ez bezalako uhararen bitsetan eraman zuelako ontzia seguru asko. Nahiago izan zuelako korazatua hondora bota agindupean zituen mila gizon ikuskizun bilakaturiko heriotza segurura bidali baino. «Rügengo labarrak gogoan zituela hilko zela aitortu ohi zigun beti, hori badakit», esan zidaan aitonak.

Esti sartu zen, umearentzako jarabearen bila. Zer moduz zegoen. Eztula, erantzun zidan, sukarrik gabeko eztula baino ez zela.

– Montevideoko argazkiak hor zaudek ikusi nahi badituk. Borrokan hil zitzaizkioan marinelen hiletetan, kutxak lur gainean zain direla, zurizko eta aginte sablea esku artean, besoa luzatuta ez duen bakarra duk Langsdorff. Bere buruaz beste egin zuen gauean soina biltzeko aukeratu zuen bandera ere Bigarren Reichekoa izan zuan, esbastikarik gabea. «Itsasoko benetako gentleman bat», deitu gogo izan zitean berak preso hartu zituen ingeles ofizialek. Egin zuena ere, bere buruari tiro egitea, ofizial prusiarren tradizio militarrean aurkituko duk. «Badakik zer, Oscar? Rügengo labarrak, egunen batean Rügengo labarrak ezagutzera joango gaituk biok», horiexek

izan zituan aitonaren hitzak hilerri atarira irten genuenean.

– Eta, aginduko hion horrenbeste ehun eta hamar kiloko kurlintari, ez?

–3–

Hala dugu usadioa hartua, lau urte edo izango dira honezkero astearte goizero Roch-en elkartzen garela. Arratsaldez ematen ditu eskolak Estebanek, eta niri ere egoki datorkit ez ohiko elkarrizketaren bat edo ez badut. Kafearena ez da aitzakia besterik geure artean bilduta, egunkariak ukondopean ditugula, honetaz eta hartaz aritzeko. Ez da kikaretakoa, noski, batzen gaituena. Kafea barik hitza dela behar duguna jabetzen da bat, entzutea eta mintzatzea, arian kode propioa gatzatzen joatea, dakiguna besteari poltsikoan uztea eta, hala, sartu garenean baino gehixeagorekin ateratzea hor barrena hobeto ibiltzeko. Eta aitortzen lanik ematen ez didana: konpainiaren gozoa. Bakardadearen kontrako antidoto eraginkortzat dut, nik gutxienez, Rocheko ostera.

Ordukoan berandu iritsi nintzen. Hamarrak eta hogei paseak ziren etxerako nituen zereginak bete eta ostatuko ate berdeari bultzatu nionerako. Denboraz ez nenbilen ongiegi ere, kuku

bat eginda, zer moduz habil, berririk bai, eta beharrik gabeko desenkusa moduko batez hurrengo astearterako hitzordua ziurtatzeko asmoz sartua nintzen. Ez nuen askorik behar izan Esteban joana zela ohartzeko. Baiezko keinua egin zidaten barratik, lepoa albo baterantz, «oraintxe atera duk» gehitzeko ondoren.

Erredakziora heldu eta batera egiteko nituenak nerabiltzan buruan, eta egia esan, kafea lagunik gabe hartzeko aparteko gogorik ez nuen. Atera bidean nintzen xist-xist entzunda atzera mahaietara begiratu nuenean. Burdina margotuzko zutabearen ondoan, bekoz beko eseritako bikote batean, Maite ezagutu nuen.

Asteak, hilabeteak, urteak ikusteke emanda ere, azalpen handirik gabe denboraren zanga urrats luzez igarota, bertan duzun horietakoa duzu Maite. Josebarekin bizi zenean sarri egoten ginen elkarrekin, zinemara joateko egiten genuen hitzordua; asteburu eta oporretan, bideetara irteten genuen laurok, ezagutzeko zegoen hura guztia geureago egiteko. Bereiztea erabaki zutenean, ez ziren biak bakarrik izan banandu zirenak. Laida jaio zenean ezinezkoa zitzaiola hur-

biltzea eta mezulariaren bidez bidali zuen umearentzako arropa. Harrezkero aurrez aurre egon gabeak ginen. Zortziren bat urte izango ziren. Ezagun batzuek tarteko, Bartzelonara joana zela banekien. Entzuna nuen itzulia zela.

Bi musu emateko jaiki zen. Aspaldian aditu gabeko usainak laztandu zidan masaila.

– Imanol, lagun zahar bat. Oscar, lagun berri bat –aurkeztu gintuen.

Estebanena azaldu nien, han egiten dudala kera ahal dudanetan lantokira bidean asteartero («egunkarian segitzen dut, bai»). Zer zebiltzan beraiek.

Maite izan zen soina pixka bat atzerantz behartuta oinak aulki pareraino igo zituena. Botak erakutsi nahi zizkidan.

Espaloi harrotuetan kablea sartzen, hoditeria konpontzen, zuhaitz tantaiak eraisten, inausketan, ezagutzen nuenagatik, ez nuen geografia egokirik topatzen ahal Maite oinetako haiekin inon kokatzeko.

– Ezin asmaturik zabiltza?

Aitortu egin behar izan nuen. Aztarrenik ere ez.

– Urtegiko hilerriak husten hasiko gara.

Sudurra zimurtu nuen, ezpain ertza harrotu batere disimulurik gabe. Entzun eta ulertu nahi ez duenaren keinu itsusi horietako bat, halako bekozko adeitsua.

Berak hartu zidan aurrea:

– Ezin utziko ditugu han, ez?

Ez zuen, bistan da, irribarre eder hura galdu. Oihalezko txaplata zeraman paparrean josia, zuria letra urdinekin. Ramos Arzu, irakurri nuen. Entzunez soilik ezagutzen nuen enpresa zen. Atzamarraz erakutsi zidan ikusia nuena.

– Orain hemen nabil. Hau sortu zen, eta ez nuen atzera egin, ezagutzen nauzu...

Orduan jabetu nintzen, banuen aditzera zer erabaki zuten gobernuan. Azpikontratatuta ari ziren, ez zen edozein peoiri utziko zioten lana. Entzuna nuen gorpuak ateratzen zerbait zekien baten bila aritu zirela, peritua ez, baina bai antropologo forentse bat, ahal bazen bederen. Eskarmentudun norbait taldearen buru, kritika gehiago ekarriko lituzketen erdipurdiko lanak saihesteko batez ere. Hala argitaratu zuten, oker

ez banago, buletinean. Ez nuen inoiz Maiterengan pentsatu.

Eta pentsatu behar nukeen. Maite beti arduratu izan baitute honelako ametsek. Ez hilek, ahal izan duenetan bizidunentzat guztiz hilda ez dauden hilek batez ere. Zaragozan ikasia, Busoten zen Lasa eta Zabalaren gorpuak lur zuritan atera zituztenean. Alacanteko hilerriko autopsia gelaz hitz egin zigula dut gogoan («txabola zikin bat Miguel Hernandezen hobitik ez urrun»). Baina batez ere hezurren ondoan agertutako bendez, hezur belztuez, azkazal erauziez. Egundo ez esateko «ez dut pentsatu nahi zer pasa zuten», denoi larritasunaren ateak erakutsita bera isiltzeko baizik. Hotza izaten ikasi zuen. Hori, guk esaten genuen:

– Zer egingo ote zizkieten.

Orduko hartan nik belaunaldiaren proiekzioa egin nuela dut gogoan, iraganeko une batean hartutako erabakiaren garrantziaz aritu nintzela:

– Geu izan gintezkeen.

Maitek nahiago zuen lanbidearen zimurrez hitz egin.

Bartzelonara, elizpeetan aurkitutako hilobiak aztertzera joan zen –merkatariak, laborariak, jopuak eta andre-gizon martzalak–, urteak egin zituen Erdi Aroko gorpuzkinen gatibu. Eta oraingoak, pentsatu nuen, «zer du ernagarritik oraingoak, Maite?». Itoizko urtegiak hartuko dituen herri hustuetara iritsi eta norberarenak ez diren hildakoen hezurrak atera, identifikatu, metalezko kutxa txikietan sartu, etiketa jarri eta uraren mailatik gora Nagoren eraikitako hilerri berrian sartzeak, esadazu, zer du?

Hilobietatik atera beharreko gorpuez bazegoen eleberri bat, gogoratu nuen, gero filma ere egin zena («ekarriko dizut», esan nion). Gerra amaitu eta denboralera, italiar jeneral bat eta kapilau militarra Albaniara itzultzen dira garaitutako armadako hilen hezurrak jasotzeko aginduarekin. Liburua itogarria egiten da, dena da lokatz, eguraldi muzin eta historiaren amaraunean galdutako gizonen nekea.

– Ikusia duzu *Armada hileko jenerala*? –galdetu nion.

– Ez dut uste. Zertaz da?

– Ekarriko dizut. Bestela, liburua badut. Kadare, ezagutzen?

Aspaldi nuen ikusia, ostiral iluntzeetan zineforumera joaten nintzen garaian. Neuk ere ez dut dena gogoan, flash batzuk osatzen dute filmaz dudan oroimen lausoa. Hori bai, Mastroianni aise datorkit, mustatxa estuz, jeneralarena egiten. Eta Piccoli ostean, jeepean igota, eremu hotz, arrotz hartan, lekaroa etxe bilakatua, errepide lupeztuetan noraezean.

Zeren bila azken beltzean iraganean, euren orainarena ez-eta?

Lortuko nion, San Francisco plazako liburutegian galdetuko nuen, Laida neraman hurrengoan.

Afixena aipatu nien. Ea ikusi dituzten.

Ezetz.

Rochetik irten orduko ohartuko nintzen: urtegiko obrak salatzen zituzten kartelak kenduta zeuden. Udalak agintzen die garbiketa brigadakoei, saiatzeko gogotik eguna argitzerako, zaintzeko hiriaren ondarea. Jartzen ikusi nituelako dakit, ezin bestela orduan arrastorik atera. Argazki eta guzti, Italiako Alpeetan, Vajont-en

1963ko urrian gertatua salatzen zuten: mendia, pitzatuta, urtegi gainera labaindu zen. Lurrak uraren tokia hartu zuenean, ehun milioi metro kubo mugitu zituen. Ehun metroko olatua sortu zen haranean. Zutik zein lurrari atxikita zegoen oro eraman zuen aurretik *Big Wave* hark: arbolak, haitzak, errepideak, etxeak. Eta ia bi mila lagun.

Konparazioak ironiarako ematen zuen. Erredakzioan entzuten nituen:

«Agoitzen bizi den lagun batek surf taula erosi du. Zarautzen hastekoa da ikastaroa egiten».

– Eta biok bakarrik ari zarete?

Artean hasi gabeak zirela azaldu zidan, egun batzuk bazeramatzatela, baina ikusten, aztertzen nola obratu behar zuten, makinekin-eta albait arinen baina gorpuak hondatu gabe ateratzeko. Beste hiru lagun zituztela Agoizko ostatu batean zeudenak apopilo eta handik igotzen zirenak egunero. «Portugesak», gehitu zuen.

Poz aurpegia jarriko nuen.

– Jende ona, Bairrada ingurukoak behar dute.

Astea lanean eman eta ikasleak balira bezala astebururo etxera itzultzen diren europar beharginak Itoitzen. Ikusia nintzen. Mendebalderantz abiatzen diren furgoneta zuriz betetzen dira ostiraletan errepideak. Gasolindegietako kafetegietan biltzen dira bideari ekin aurretik, elkarren antzeko dozena erdi ibilgailu parkingean. Nekeak lokartutako jendea atzeko aulkietan.

– Etorri nahi baduzu, erreportajeren bat edo...

Oscarrek ahoa ireki gabe segitzen zuen gure jarduna. Ez nion deus sumatu, eta hala pasako zen nigatik Maite eta bion arteko hura nolabait zabaldu nahian, lan hartan zer moduz zebilen galdetu nion arte. «Gustura», esan zuen, berez Buenos Aireskoa izanagatik, metropoliak uxatuta eta hegoak tentatuta, Patagoniako kostaldean aritu izan zela, Caleta Olivian, Las Herasen, petroliogintzan beti. Enpresa desnazionalizatu eta espainolei saldu zitzaienetik behinolako pizgarriak apaldu eta babesak desagertuta, gauzak erabat okertu zirela, eta bera ez zela han geldituko erabakita, honako bidea hartu zuela.

– Sustraietako batek tira egin, eta hona –esan zuen–. Aitona nuen hemengoa, Iriarte.

Lau urte zeramatzan eta denerik egina zen: tabernari Madrilen, edari banatzaile Iruñean, baita biltegi bateko zaintzaile ere, eta azkenaldian, igeltsero Txantrean.

– Ateratzen dena, badakizu...

Telefono zenbakiak trukatu genizkion elkarri, egon behar genuela. Gertuko egiten saiatu nintzen, familia nuela urrun haietan aitortu nion. Ea ezagutzen nuen alderdi hura, ezetz nik, hegoaldean bizi direla, egunen batean joango naizela, baina orain ez dudala erraza.

– Alaba txikia da oraindik.

Rochen elkarrekin egon eta aste eta erdira igoarazi nuen etxera Oscar, geure kaleko botikara heldua zen arratsalde batean. Biok zain geundela egin genuen topo. Orduan kontatu zidan aitonaren istorioa, eta orduantxe hasi nintzen tematzen Oskar Escherrekin baino Langsdorffekin eta Rügengo labarrekin. Kontatu zidana egia bazen, zer zuten Rügengo labarrek militar bentzutuaren gogoan habia egin eta honen azken gogoeta hartzeko? Zer zuten haitzok Langsdorff

ez ezik Oskar Escher bera era horretan sorgintzeko?

Gau hartan bertan, Oscar agurtu, Laida lotaratu eta sukaldea batuta, aztarrika aritu nintzen sarean. Ordura arte hutsaren hurrengoa nekien Rügenez. Ez nintzen gai Europako mapan kokatzeko, ez nekien irla bat zela, are gutxiago Alemaniako handiena zela edota Baltikoan zegoela.

Idazteak ez du jakitea esan nahi.

«Rügen, labarren deia» idatzi nuen artxibo ireki berrian. Gerora ohartu nintzen Jack Londonen oihanaren oihartzunaz. Ez nekien ikerketa hark zer ekarriko zuen, ezta zerez beteko nuen ere, baina titulu txukuna zitekeen. Ez zitzaidan zaila egin Friedrichengana heltzea.

Kleraitzak Rügen-en, 1818an margotu zuen Caspar David Friedrich-ek, Caroline Bommerekin ezkondu eta gutxira. Senar-emazteek Greifswald, Wolgast eta Stralasund-era barrena egin zuten eztei bidaia. Rügenen margolariaren anaia Christian eta honen emaztea bildu zitzaizkien bertan. Hori bera da, hain zuzen, mihiseak jasotzen duen unea.

Koadroan ageri direnak ostera, Friedrich bera, Caroline eta Christian dira, antza. Zein den zein bi gizonetan, ez da aise asmatzen. Gizonetako bat, janzkerarik modernoz hirukotearen erdian dagoena, txisteraz-eta, labar aurrean makurtuta dago, lore edo belar batzuk bildu nahian. Ezkerrean, indar berezia lortzen du hari keinuka ageri den emakumeak. Soineko gorriz margotua, zuhaitz etzan baten ipurdi gainean eserita ageri da. Eskuineko gizonezkoa, berriz, beso biak antxumatuta, itsasoari begira dago. Bikoteari kasurik egin gabe erakusten zaigu, pentsakor.

Adaburu ilunek goitik, harkaitz zuriek albo bietatik eta itzalpean den zoru arretuak behetik itsasoaren zabala inguratzen, zedarritzen, biltzen duen zirkulua osatzen dute. Ostertza berez dagokiona baino gorago ageri da, ez da ia zerurik. Hala, u itxurako egitura horren barnean, Baltikoa horma bat balitz bezala erakusten zaio ikusleari, haitzezko edalontzi batek gordetzen duen itsaso ikusgarria. Koadro erdian, malkoak lako orban txiki bi, luzexkak eta zuriak: itsasontzien belak.

«Mihiseak bete-betean jasotzen du kritikoek *larritasun erromantikoa* deitu izan gogo duten hori» idatzi nuen. «Novalis, Schelling eta Hölderlin-en teoriekin zordun, badirudi Friedrichek hori dioela lan honekin, gauza guztien azalaren azpian badagoela zeren beldur izan, alegia, ikusmira lasaiak tragedia gorde dezakeela; ustezko zoriontasunak nahigabea; bizitzak, heriotza. Muturren uztarketa hauen bitartez lortzen du arteak perfekzioa. Koadroa Sammlung Reinhart museoan dago egun ikusgai, Winterthur-en, Suitzan».

Ilunduta zegoen Oscarrek alde egin zuenerako. Zerbeza laten lika geratu zen sukaldeko mahaian. Ahaleginak egin arren aldean pausatzen zaigun kerua. Estik esango zidan:

– Hurrengoan esaiozu balkoian erretzeko.

–4–

Inon bada zuhaitz itxura duen herririk, Larraingain da hori. Arte bikainaren erroak dituela esatea ez da oso okerreko burutazioa ere. Tarroan diren etxeek harpeak balituzte bezala eusten diote patar lehorrari. Elizapean, errekaren bila doan hegi gorriaren sustraiekin korapilatzen dira inoiz ostatu, denda eta auzotarren gezurmendi izan zenaren lehen harriak. Bi huntz zaharren zurtoinen besarkada horma arrailduan.

– Zer duzu?

– Ez dakit, hustasun hau.

Garai batean, ez aspaldi ere, jendea ateratzen zen atariotara, zurezko aulkitxoa eskuan, uda arratsaldeetan mendialdetik zetorkiekeen haize berdeari itxaroteko. Sehaskak hilobi bilakatu aurretik, umeen makakorroak jalgitzen ziren lehertutako begiak diruditen leihoetarik. Idi-behien marruak kortetan. Aurreneko irratien berbaro elektrikoa ere hor dabil, mendialdeko bakardadea uxatzen.

«Ez hain aspaldi», pentsatu nuen. Maiteri Rochen aginduta bezala, berarekin eta Oscarrekin heldu nintzen Larraingainera apiril hondarreko egun eder batean.

Goizeko lehen ordu haietan, izenik ezagutzen ez nion muinoan gora, erpineraino igotzea deliberatu nuen, eta hala egin nuen, genuen, urratsa gehiegi behartu gabe, oinetako zolak etxe arteko harrietan katigatu –inoiz errekatik erauzi eta multzoka karrika osatu arte ekarriak– eta eliza beti begi bistan genuela, norberaren arnas hotsa entzuten. Kanpandorrean ezkila falta zen. Urrutixko aurkitu genuen, lurra uki ez zezan bi ohol gotor zituela azpian. Egundo galipotez jantzi gabeko kamiora aterea zuten, hurrengo egunetako batean nora edo nora eramateko gertu. Kokoriko paratu eta eskua pasa nuen brontze epeltzen hasiaren gainetik, letra bakoitza ikasle itsu batek bezala ezagutu nahian. Ez nuen hitzez hitz jaso beharrik izan, ongi gogoan dut nola zioen. Ez datarik, ez irudi nabarmenik, ezta gurutze bat ere. Kanpai barrena inguratzen duten bi zerrenden artean, biribil txikiz eta erronboz

apainduta, latinezko esaldi bakarra, erraz itzuli nuena: *Joannes Etchart me fecit.*

Lahar artetik iraganean katigaturiko marmarioak heldu zitzaizkidan. Mintzo haiek behinola, bakoitzak bere maneran emango zion izena kanpai hari, izango zuen deituraren bat, garaiaren arabera auskalo zein, San Isidro, Belaundi, La Dunduna, asma ezazu, dagoeneko inork jaso ez badu seguru asko betirako galduko dena. Muino, haitz arte, borda, magal, ezponda haienak bezala, urtegiarekin batera itoko diren eleak guztiak. Pena lainoak lotu ninduen. Nigatik, nahiena bertan utzi izan balute, urkatu baten gisan, haritzezko habetik zintzilik harro, mihi muturra agerian. Hartara, urak herria osorik estaltzen duenean, helduko da eguna zeinetan norbaitek, urtegi ertzera arrainetara gerturatua, edo aita zaharrari pasiera egitera laguntzera edota zakurra ateratzera joana, kanpai hotsak entzun dituela esaka itzuliko den etxera.

Eta berandu gabe, hor izango da jarduna:

– Gerra datorrela da hori!

– Istripu gaitzen bat inguruan!

– Atera gabe utzi zen norbait da, han dagoela esaten!

Atera gabe utzi den norbaitengatik zabuka ezkila.

– Ez ezazu nekerik hartu, dena eraisteko asmoa dago. Kanpaia ez da egongo non zintzilikatu –gaztigatu zidan Maitek.

Elizako ate hutsari bizkar eman eta, eskutik hanka egindako bi haur balira bezalaxe, kale bakarrean behera egin zidaten begiek. Plaza txikiari ia erreparatu gabe hauspoa larritzen hasita heldu nintzen azken etxeetara. Beherago, larraina. Eta zabalgune idortuan behera, eskorta ustelaren gainetik jauzi eginda, haltzak, lertxunak eta makalak, nahas-mahasean. Zurbilago agertu ziren hosto ilunenak, haizeak puzka astinduta. Erreka mutu zetorren. Apoen klikluak uraren xuxurlatzea itotzen zuen.

Giltzarena egin eta gontzerik gabeko atetik barrena sartu ginen. Zoko usain lehorra. Asteak ziren erretaula Iruñeko Elizbarrutiko Museoaren biltegira eramana zutela. Aukiak-eta, salduta omen zituzten.

– Antikuarioek, kanporako.

Aldareraino hurreratu nintzen. Maila biak igo eta aterantz behatu nuen. Erlieberik gabeko itzala zen Maite argi begian. Leiho luzanga zuen aurrean. Txilioa. Hegal astintzea, hegazti zuria alderik alderakoa egiten, gapirio artean gorde zen arte.

Ura ikusi nuen emeki etortzen, latsetik gora hazi eta inguruetako landareak, ihiak, kanaberak eta izenez ezagutzen ez nituen beste hamaika azpian hartuta, igotzen, oro itotzen. Igerian oinez, kanpora atera nintzen. Sakanetik gainez egin, larraina urpetu, eskorta igaro eta etxeetara iritsita, laster hartuko zuen urtegiak zapaltzen ari nintzen guztia mendean. Asteetako kontua zen. Hilabete batzuk eta akabo dena. Eliza bat urpean, erroak ur ilunetan estekatuak. Urpean kanpandorrea, urpean nabe txikia eta harrizko aldarea, baita gapirio artean gorde den mozolo zuria ere. Urpean, pentsatu nuen, harkaitzekin bat egingo duten horma zaharrok, urpean harriotan zizelkaturiko irudi erromanikoak. Teilatupean, halako lore geometrikoak zituen, piztia izengabeak, Artzikoen aldean sotilak, baina haiek bezala garai bateko izuek edertuak hauek

ere. Atea inguratzen, lau figura. Munstro baten ahutzak, gizaki bat ahoratzen. Salamancako katedralean badela astronauta bat etorri zitzaidan, zaharberritze lanetan harginak erantsitako kapritxo lotsagabea, eskafandra, oxigeno, hodi eta guzti. Ongi etorriko litzaiekeela Erdi Aroko patari zaharroi astronauta jantzia eta arnasa hartzeko tutua, mendeetan urpean egon behar badute, pentsatu nuen neure artean.

– Bazatoz?

Eguzkia, hari batetik tiratuta, goratzen hasia zen. Bero egingo zuen. Zeruaren gorraila arrunt higatua zen elizan egon ginen ordu laurdenean. Arestian begiek eta gogoak egin legez, eta Maiteren oinek orainago, errekaranzko bidea hartu genuen. Hilerriko atetik sartzean, eskukoa aterako zuen bernan beherako poltsikotik. Deitzen ikusi nuen. Telefonoa sakelaratzen berehala.

– Iritsi garela esateko zen.

Kanposantuan ginen.

Orduantxe agertu zen gizona maldan behera, jertsea eskuan zeramala eta oinak indartsu kentzen lur elkorrari. Sotana falta zuen, gurutzea eskuineko eskuan tertzio karlisten aurrean gurutze

santuaren egiteko, eta pistola gerriko uhaletik zintzilik. Baina burua estaltzeko eragatik ezagutu zuen Oscarrek.

– Bisita dugu.

Pampan, Olavarrian txapela halaxe zeramatenen irudia etorri zitzaiola aitortuko zidan gero autoan. Hango kapilauaren jitea hartu ziola, boneta horrelaxe ezin kaskar zuriagoan doi sartua. Basamortu hartan, txilar artean urrats harroz geuregana zetorrena apaiza zen dudarik gabe.

– Ez duzue lantegi ederra –agurtu gintuen.

Ezta aldaretik ihes egindako irudia balitz ere, buru gainean zuen udaberriko eguzki garaia, eta mazela txikitik ozen, aurpegirik ikusi ezin zitzaion ahotsa. Maitek esku ahurra bekain parean jarri zuenean ohartu zen etorri berria. Barkamena eskatu, eta bidezidorrean behera, sarrerako burdinazko ateari bultza eginda sartu zen hilerrian. Orduan ikusi ahal izan genuen ongi. Ez zuen, ez, Olavarriako kapilauaren antzik, esango zuen gero Oscarrek, baina ezagun zuen zer zen. Txapelaz gain, bazegoen ezin adieraz zitekeen zerbait garbi salatzen zuena. Gorpuzkera handi-

ko, hirurogeita hamarren bat urte zituen, baina sasoiko zegoen, herren eta guzti.

Esku guri bat ikusi nuen luzatuta, Maite gerturatzen. Txitxar hotsa lipar batez mututzen. Belar iharraren karraska oinpean.

– Artzapezpikutzatik nator.

Zuria zuen eskua, neurea bezain beraxka, baina sendo eusten zizuna.

– Maite Andueza, arduraduna –aurkeztu nuen.

Oscar ostean. Neu azken.

– Hogeiren bat egongo dira –esan zuen gizonak ingurura begiratuta.

Han-hemen zeuden barreiatuak hilarriak belar ihartuen artean, ordena jakinik gabe. Gehienak artez; zaharrenetako batzuk soilik erdi eroriak, lur hondoratua inguruan. Lurraren kolorea hartutako plastikozko lore batzuk hormaren kontra.

– Ez dakizu seguru? –Maitek.

– Ez dut lan hori hartu. Badut aurreragoko zereginik. Hildako hauek, gainera, ahaztuta daude.

Urteak ziren azken herritarrari lur eman ziotela, hori bazekien Maitek. Aurreko astean erre-

torearen bila joana zen. Agoitzen aurkitu zuen. Ongi gogoan duela hondarrekoa zein izan zen esan zion, Larraingaingoa bederen. Aitari lur eman eta hilabetera joan zen azken biztanlea herritik, Iruñera. Erretorearekin emaniko bazkalosteari esker aurrean zuen gizon harroak baino gehiago zekien Maitek zapaltzen ari ziren lurraz. Biak elizgizonak izanagatik hark ez zuela Artzapezpikutzako herrenarekin zerikusirik pentsatu zuen. Lagunduko ziola kaxak autoan sartzen, hala eskaini zion bere burua Agoizko eliza atarian agurtu zuenean.

«Autoan», halaxe esan zion.

«Kamioi txiki bat da».

«Berdin dio».

Isiltasuna erabatekoa zen. Herrenak hobiei so jarraitu zuen.

Longida eta Artzibarko erretoretza izan duela kargua eta lana ongi betetzen ahalegindu dela. «Beti», markatu zuen. Hala esan zion Maiteri, beti egin omen du osteraren bat, elizaren ondareak bere lekuan zeuden jakite aldera batez ere, hain egon da zabaldua azkenaldian egunkarietan-eta baselizetako lapurreten kontu hori. Hile-

rrira, berriz, urtean bitan baino ez da sartu ohi, dena ongi dagoen jakiteko. Urteak omen dira ez duela inor ikusi. Urteak dira inork ez duela lorerik uzten hilobi gainetan.

Maitek ez zuen herriko erretorearekin egon zela esateko asmorik Artzapezpikutzako gizon handiari.

– Hildako hauek ahaztuta daude –errepikatu zuen honek.

Nola aterako zituzten ikustera joana zela esan zuen. Orpoaz ahalegindu nintzen lurra harrotzen.

– Alferrik ari zara. Euririk egin ezean...

Maitek isilik segitzen zuen, gizon handiaren eta bion arteko elkarrizketari ezaxolati, hilarrietatik izenak bildu eta jaiotza eta heriotza datekin batera koaderno txiki batera pasatzen.

– Eta, zenbaterako duzue? –galdetu zidan azkenik.

– Zenbaterako, Maite?

Maitek, kokoriko, hatz mamiak lauzen gainetik pasatzeari utzi gabe erantzun zuen:

– Ez dakit.

– Saiatu beharko duzue ederki. Laboraririk gabe, goldeak ez badu laztantzen, lurra harri bihurtzen da.

«Eskuetan babak atera arte ibilia haizelako esango duk hori», pentsatu nuen neure artean, urgunari begirik kentzeke.

Zerua lainotzen hasia zegoen mendebaldetik, baina ez zegoen euritarako. Goiko hodeiak laster baino lehen xaretuko ziren. Egun askotxo zen ez zuela tantarik egiten. Orpo ukaldiak ez zion koska txiki bat baino egin zoruari. Hildakoak porlanetan bezain seguru egon dira urteotan.

– Nahi? –eskaini zion Oscarrek tabakotik gizon handiari.

– Ez, estimatua dago. Eta makinarik, erabiliko duzue?

Baietz, handi-aurkiak egiteko behintzat. Gero eskuz. Pala. Jorraia. Atzamarrak. Eskuila. Pintzela. Zapia.

– Ez behintzat inor urratu.

– Zu hemen egongo zara?

Begi-belarri zuen.

– Azaleratzen dituzunean, gustatuko litzaidake. Eta ez banago, ez atera kutxak hilerritik.

Lurra da bedeinkatua dena, ez lukete apaizen baten agurrik gabe urrundu behar hemendik.

Zigarroa piztu eta Maiteri so egin zion Oscarrek. Gizon handiak ikusteko moduko narda imintzioa egin zuen, idazteari utzi gabe beti.

– Zenbatu dituzu?

– Hogeita lau.

– Esan dizuedana.

Ez bazuen freskatzen ez zen lantegi atsegina izango. Lur zokor irauliek ez zuten ustel usaina arinduko.

– Hartuko dut beta liburuetan begiratzeko. Erretorearekin ere hitz egin beharko da.

– Hitz egin dut –Maitek.

– Ez da komeni inor ahaztea. Egon daiteke harririk gabeko norbait.

Koadernoa itxi eta gure artera bildu zen Maite.

– Imajinatzen duzue? –jarraitu zuen gizonak–. Gorpu bat urpean... ez nioke neure buruari barkatuko.

– Dena den, ez da inor osorik egongo ezta? –galdetu zion Maitek.

Burlaizez erantzun zion. Ongi zekien nola:

– Santu ustelgaitzen bat esan nahi duzu?

– Ez, zinkezko katabuten bat esan nahi dut. Ez dakit, kanpoan hil eta bidaian ongi mantentzeko kutxa giltzatuan ehortzitakoren bat. Airerik gabe, ez zen aurrenekoa izango.

– Zaude lasai –umore gaiztotuz segitu zuen–. Hemengo laborariek ez dute halako atorra erosteko adina sosik izan. Lurrak salduta orain ez badira aberastu behintzat...

Errepidetik norbaitek bozina jo zuen. Geure automobilaren atzean *Audi* ilun bat ari zen maniobra egiten, adineko gizon bat zuela barruan.

– Segituko nuke, baina berandutu egin zait. Jakinaren gainean edukiko nauzue ezta? Noiz edo...

Bi pauso eman zituen. Zapatei erantsitako lurra kentzen ahalegindu zen. Errepideko gizonak hurreratzeko keinua egin zion eskua leihatilatik aterata.

– Galdetu behar nizula-eta, zer zara, argentinarra?

Erantzunaren zain gelditzeke, gizonak urrats zaluz ekin zion malkarrari. Maldan gora, jertsea eskuan, ez gordetzekoa zitzaion herrena, albo

batera uzten zuen eskuin oina erortzen. Zerbait erantzutera zihoala, gizonak giltzerdi egin eta aurrea hartu zion:

– A, eta zigarrokinak hilerritik kanpora botako bazenitu...

Oscarren begiak gizon handiagan pausatzen.

– ...eskertuko nizuke.

Autoa aldendu zenean, eguzkiak gogoz jotzen zuen. Erreka izkinako zuhaitzen hostotzan, zirkinik ere ez. «Trumoiak joko balu sikiera», pentsatu nuen. Itzuli egin ziren apoen klikluak.

Ez berak ez nik aurrez hala nahi izanda, baina urrundu orduko konturatu nintzen urgun paparzabal hura erreportajean sartu zitzaidala.

–5–

Kanposantu hustuen erreportajea hasieran pentsatuta bezalaxe kaleratu zen, igandeko gehigarrian eta koloretan. Hura egiteko ez ginen bigarren ostera hartan, hasieran asmoa zegoen bezala, Larraingaineraino iritsi ordea. Ibarrean beherago ibili behar izan genuen, lanak atzeratu xamar zebiltzan eta ez ziren artean bertaratuak. Bestalde, elkarrizketak ere behar nituen, eta hildakoek, agian bai idazleari, baina kazetariari ez diote hitz erdirik egiten.

Orduan jaso ez nuen oro batzen eman ditut hondarreko egunak, eta pena dut, kaleratu ez genituen argazkiak aurrean ditudalarik ere, ez naizelako gai fotograma guztiez oroitzeko, ezin ditudalako harako une guztiak nahi bezain taxuz jaso, sekuentzia osatu, eta neu naiz orain Maite, eta neu nago, buzoa, eskularruak eta musu-babeslea kentzeke, eguna joan eguna etorri zulo hartan gerriraino sartua, metalezko palatxoa eskuan dudala, egur ustel artean ez hezur nagusiak, karpioak, metakarpioak eta atzamarrak be-

reizten baino, zer den zur ilun, zer hezur ilundu identifikatu nahian. Pintzel txikia atera eta pi-totx-ileen gozoaz hezurrei atxikitako lurra kendu. Ruik –Rui Mosteiro, Viseuko beltzaran alai bat– Maiteri eskura emandako hezurrak oihal laru batez banan-banan garbitu eta berunezko kutxatxo batean sartzen, izena eta identifikazio kode bat zeraman kutxa txiki bat. Mekanikoa, espero baino normalago dena. Oscarren ondoan zerraldo ustelduen ezpalek tontor itsusia osa-tzen dute, oihal zikinak tarteka.

Hatsa hitzetara ekarri nahi: zokoa eta lurra, erdibana.

Eta Oscarren atzean, metalezko kutxa kolore-tsu gehiago, estalkirik gabe, auskalo noren gor-puzkinak jasotzeko ahoa zabalik. Eta beterik izango zirela ondorioztatu nuen beste multzo bat ate ondoan pilatuta, Nagoreko hilerri berrira noiz eramango.

Pentsatu aldean, astiro doa dena.

Maite peoi, Maite peritu, Maite auzitegi-antro-pologo hilek ezer esaten ez didaten herrian. Eguzki errea egunetan. Eta izerdia plastikozko goanteen azpian, azala egosten, atzamarrak,

ahurrak beratzen, eskumuturrak erretzen, zer egiten duzu hemen Maite, utz ezazu basamortu elkor hau, itzul zaitez itsasoaren hatsera, jan behar bazaitu izan dadila Mediterraneoko kresalak, Bartzelonako autoen joan-etorriak, Graciako amodio eroren batek. Lur utziaren usaina birikak berotzen, hezurrak, giharrak, ehunak, zainak, aortak kiskaltzen, atera beharra daude baina, norbaitek atera behar ditu, ezin ditugu hemen utzi, zerua bezala gainera datorkigun ozeano urdin, berde, uher honen atzaparretan betirako.

Esan zidan argazkilari batek: «Urtegietan ezinezkoa duk taxuzko fotorik ateratzea, ura oso uherra duk».

Gorpuzki guztiek ez dute adurra alde izango gainera. Gehienak, berrogeita hamar urte baino gehiago daramatzatenak, hobi komun batean sartuko baititu Proiektu, Teknologia eta Lan Hidraulikoetarako Zerbitzuak. Gutxi batzuk izango dira izenarekin aterako direnak azalera.

– Esan, Soledad, esan.

– Badakizu zer den hau guretzat? Tristura handia, hildakoak gure familiaren parte direlako.

Etxean hartu gintuen. Harrizko atari freskoan errekarriz eginiko zorua, heldu berrien pauso urduriak zurubian gora eta kiskilurrin usaina sukaldean. Altzariak. Arropez eta txipi-txapez beteriko kaxa beteak ate ondoan pilatuak. Burdina eskuan, lisaketan harrapatu dugu. Azkenak izango dira. Leiho zabaletik, urtegiko horma, haranari bidea ixten.

Ezkondu ondorenetik darama bertan.

– Bizitza osoan zaindu ditugu...

Zaindu. Behakoetan, Soledadek eutsi egiten die nireei karroin hautsizko bi begi txiki haiekin.

– Ama hil zitzaigunetik ez naiz behin bakar batean igo hilerrira, ez diot egundo inori aitortu; beharrik egon ez delako, azalpenak zertarako.

Horregatik, Soledad, zer da hildakoak zaintzea? «Zainduko ditu lurrak!», esan nahi diot. Ez naiz ausartzen, ordea. Egur ziria hankapetik aterata, kili-kolo nabil aulki herrenean, eta orain bai, egin orduko ohartzen naiz neureaz:

– Kalte-ordainei buruz gauza bakarra entzun dut, gorpuen leku aldaketa doan egingo dutela.

Azkenean sinetsi egingo dut badela bizidun guztion baitan halako orratz moduko bat, bakoi-

tzaren erregaiaren depositoan zunda, bizitzatik zenbat erre dugun uneoro esaten diguna. Soledadena azkartzen ari zen hildakoen kontu harekin, hutsera iristen ari zen, hala ari zitzaion abisatzen argia, ziur nengoen, gertuago ikusten zuen haiekin bat egiteko unea. Gehiago esango nuke, ez zitzaiola gehiegi ardura.

– Zertarako eraman behar dut senarra Nagorera bertakoekin egundo inolako harremanik izan ez badu?

Sasoi batean, suak hartzen ninduen amarekin norbaitengatik solasean, nola hil den galdetu eta «tristuraz» erantzuten zidanean, tristura ez baitzen, estuan, eritasun bat. Hil bihotzekoak jota hiltzen zinen, edo minbiziaren karramarroak birikak janda, edo auto batek errepide urrun batean harrapatuta, baina ez begia ilunik zuelako. «Nola tristuraz, tristura ez bada gaixotasun bat!». Urteak dira etsi nuela. Bada bizitzeko gogorik ez eta itzaltzen, itzaltzen, itzaltzen, bihotza ilundu eta tristuraz hiltzen denik. Soledad izango da aurki, datorkit, horietako bat.

Garraldakoa dela bera diost, eta horra egonezinaren muina. Zapi bat atera mahuka barrene-

tik eta anpulu ikusezinak xukatzen ditu. Dena ongi bidean, bihar emango dizkiote senarraren hezurrak, hala esan dio Maitek aurrena eta Oscarrek gero, kutxa batean sartu eta Nagorerako bidean jarriko dutela, berak kontrakorik ez badio behintzat. Izena daraman harria gorde egingo diotela agindu diote, horman sartuko dutela, txukun, garbi, baina ez dutela inolaz ere zulo komunera egotziko, berari badagokiola hobi duin bat («Eliasi bai, urteengatik»).

– Nagorera ez. Garraldara eramango dut, han egon dadila nahi dut, ni hiltzean haren ondoan lurpera nazaten.

Hil ostean ere elkarrekin.

Elur egun bat zen, berdotza. Haizea iparraldetik sartua, behor ernaiaren sabela zirudien zeruak, berun koloreko. Herrikoez beste, dozena eta erdi bat lagun bildu ziren, oinak lokatzetan, negargura dardarez bisutsetan. Ospelei igurtzika, haizea legez datorkio akordura Soledadi arratsalde hura. Elurra ari zuen soroetan eta hilerriko hormaren bizkarrean, elurra baratxe teila, barruti eta hilarri gainetan, elurra tximinietatik ateratzen zen ketan zuritzen, elurra, nola dio Joy-

cek, nola gero John Hustonek testamentuan, elurra entzuten zuen unibertsoan barrena ilaunki erortzen, eta erortzen, ilaunki, beren azken buruko jaitsiera bezala, bizi eta hil guztien gainera. Bidea zarratuta zegoen eta lanak izan zituzten kanpotik zetozenek herriraino iristeko. Gehienek ezin izan zuten Agoiztik gora pasa. Apaiza traktorearen zurdan igota ekarri behar izan zuten.

– Erromako obispoa zirudien.

Handik lau egunera agertu zen eguzkia. Urtutako gazta handia zirudien zeru urdin arrearen ekialdean.

Barre osteko isiltasuna, bizidunen artean amarauna ilaunki ehuntzen. Harraskan alderik alde, lokarria. Lokarrian, zapiak eskegita. Zapian, marra gorri-urdinak. Marra artean, orban ilun bat.

«Erabakiak tristura sortu du inguruetan», idatzi nuen artikuluan. Artziko eta Longidako haranetako erretorearen hitzekin sendotu nuen tesi nagusia: «Hau guztia ez da esaten duten bezain sinplea, hildakoei gertatzen zaien guztiak eragina izango duelako bizidunengan. Hildakoen kal-

tetan egiten dena, bizidunen kalterako ere izango da».

Lorez dotoretutako gurutzeen argazki batez lagunduta, zazpi hilerrietan ehortzitakoen zerrenda eman nuen: «Orbaitzen dauden 170 gorpuetatik hamarrek soilik izango dute oroitarria Nagoreko hilerri berrian; Itoizkoak, 45etik hamabostek; Muniaingoak, 16tik hiruk; Nagorekoak guztiek, berrogeita batak; Gorrizkoak, 11tik batek; Artozkikoak, 130etik 40k, eta Larraingaingoak, 24tik hiruk».

1940tik atzera hilobiratutakoen izenak jasotzeko lana hartu nuen, eta nik ere, gobernuak ez oso bestela, horiexek salbatu nituen. Gainontzekoak kaxa bakar batean bildu eta honen tibia haren buruarekin bat eginda, beste honen eskua beste haren oinarekin, hobi komunera egotzi nituen, denak bat.

Atariko katetik Soledaden txakurrak hutsari egiten zion zaunka.

– Nora joan behar dut orain?

Horrelakorik ez esateko, alabak. Leihora hurreratu da, koskan dagoen landare bakarra laztandu du.

– Hemen hilko da hau, itotzeko betarik gabe, egarriz.

Gerizpetan egoteko giroa dago, baina kamioiak gora eta behera doaz, uzten duten hauts arrastoarengatik ikusten da nondik doan bidea urtegian barrena.

Batzuetan bakardadeak ez dizu bakarrik zaudela erasotzen.

– Nora? Iruñera ez bada, behin bakarrik atera naiz hemendik.

Norbaitek uso artera bultzatzen nau. Plaza baten erdian nago, platanondoak inguruan, katedral neogotiko bat duen zabalgunea, eta oztopomoztopoka, oinatz txikiz eta presatuz amaren ohar oihuen artean inoiz harrapatu ezin ditudan hegaztien atzetik nabil. Automobil gutxi kale artean, oraindik urteak behar ditut nerabe izateko ere.

– Donostiara joan ginen eztei bidaian. Ez naiz urrunago iritsi.

Iraganaren oraina.

– Zuek ezagutuko duzue, noski, hondartzak, Artzain Onaren katedrala-eta... polita da hura.

Telebista gainean marko berdinetan sartutako bi argazki daude. Batean Soledad bera ageri da, zutik eta beltzez, aulkian eseritako gizon dotore batekin, ezkontza egunekoa dirudien erretratuan. Bestean Soledad berriz, ezkontza egunekoa hau ere, baina beste batzuenean. Koloretakoa da argazki hau, bestelako soinekoa darama. Zoriontsuak diruditen ezkonberriak ditu alde banatan. Aurre-aurrean, neskatxa bat, Soledaden eskuak sorbaldan dituela. Loreak magalean. Bestean ez bezala, irribarrez daude guztiak.

– Ez daukat kexatzerik, esaten didate beraiengana joateko, baina nola ba...

Etzidamu eramango dutela esan du alabak. Gela prest du. Eta bilobak pozarren zain, gauza piloa dutela amonari erakusteko.

Amaren ongi iguala da alaba.

Aulkiaren bizkarrean utzi du zapia. Malkoek errea diote azala begi ondoetan. Barkatzeko, ez digula ezer eskaini orain arte, zerbait hartuko dugula. Estimatuta dagoela, lanik ez hartzeko gugatik. Zoragarri gaudela horrelaxe, entzuten. Harriz zamatutako kamioi horien joan-etorrietara ohitu den behi jendea larrean.

– Eta aire gaiztoak edo trumoiak jotzen badu zer utzi behar dituzte, hor part botata, Nagorera igoko dituen kamioia noiz etorriko?

Bizidunak nola, hala uda atariko zaparradapean edozein errepide bazterretan, hirira eramango dituen autobusaren zain.

–6–

Urak irakin gabe.

Logelako pertsiana goizero altxatzea bezain mekanikoa dirudien arren, urregilearen antzea eskatzen duen lantegia da matea taxuz gertatzea, Maite. Neuk ere lanak izan nituen, ez pentsa, baina umetan etxean ikasi bezalaxe egiten dut oraino ere: ongi lehortutako matea hartu bezperan utzitako apaletik, belarra erdiraino bota, eskuaz estaliz ontzia ahoz behera jarri hautsa aska dezan, bonbilla sartu, egoki kokatu, ingurua bustitzeko adinako ur xorta bota, ahorainoko belar guztia erantsi, eta ur beroaren txorrota isuri.

Oraindik ere aditu egiten dut aita etxeko sukaldean, egunkaria mahai gainean zabalik duela, ezpainak silaba bakoitzarekin ozen ebaki eta entzuteko moduan irakurtzen, begiak paperetik altxatu gabe, ni batera edo bestela nabilela, nik dakit bada zertan, atzealdera joanda zigarroren bat erretzera, edo Osvaldo *beltza*-rekin leihoaz bestalde kalakan... eta ez dakit nola, haren begi

handiak azaltzen zaizkit oraindik ere, berripaperetik doi bat jaso eta beha, gure zaharraren begi irten haiek, aurrean zuen oro ehizatu eta, ezta Constitución geltokian bildu ohi diren basazakur amorratuetako bat balitz ere, letagin artean hamaika zati egiten ninduela.

«Irakin gabe!».

Entzun egiten zuela esango nuke, Maite. Aitak entzun egiten zuen uraren mintzoa, burbuilak *pava*-ren ipurditik gorantz igotzen, badakizu, purrustila txiki eta geldoak hasieran, ur azalaren kontra jotzen duten gero eta anpulu borobilago eta azkarragoak nik sutatik erretiratu gabe bertan utzi arau.

Borbor egin arte.

Sarri samar gehiegi berotzen uzten nuen. Edo hotzegi erretiratzen ontzia beti piztuta zegoen surtatik. Orduan begiei laguntzen zien bekozkoa eta ezpain mintz okertua. Alferrik galdutako matea zen hura. Letrak orri zabaletan zeudenean utzi eta begiak ziren eleka zirenak. Aita arraina zen, ez esan nolakoa, Misioneskoa edo entrerrianoa, Amazonas aldekoa nolanahi ere, *surubi*-aren aldean bestelakoa, ez dakit nola

esan, baina matea egiteko uretan bizi zen arraina, hozbero jakin hartan bizi zen bakarra. Eta esan dizut, txakurrak baino hobeto zekiena ehizan.

«Txahal begiak dituzu, *vasquito»,* defenditzen ninduen amak senarra erregosten ikusten zuenean. Eta orduan gure zaharrari are handiagoak egiten zitzaizkion, zuloetatik jauzi eta eraso egin behar zizutela zirudien. Ez zuen amaren umore alemana jasateko nahikoa egonarririk. «Alemantzar hauek guztiak bertara joango balira!» esanda, orduan inork ulertzen ez genion ahapeko erretolika luzean katigatzen zen, eta egunkaria mahai gainean utzita, gelarakoa egiten zuen, ateari danbatekorik eman gabe baina. Ondorengo orduetan Radio Rivadavia egiten zen etxearen jabe, eta gurasoen gelatik bazter guztietara zabaltzen ziren *Fontana Show* edo Hector Larrearen *Rapidísimo* saioaren hotsak. Afalondorena bazen, Radio Continental jartzen zuen aldiz, berak inoiz argi azaldu ez bazigun ere, bagenekien, Olavarriakoak tarteko familiako egiten zitzaigun Betty Elizalderen ahotsa entzuteko. Ez

zitzaion haserrea irratia mututzen zen arte itzaltzen.

– Proba ezazu, Maite.

Hamabost urte nituen. Hilabete batzuk izango ziren Peron hil zela, eta irratiak behartuta zeuden ehuneko handi batean bertako musika jartzera.

– Kontuz, erre egiten du-eta.

Nazionalismoek bizirik jarraitzeko behar izaten duten neurri bat, aurrez berotutako jendearen gustuko erabaki populista horietako bat. Badakizu, tangoak-eta, baina folkloretik asko. Zer nahiago gure zaharrak, ez zituen ingelesak kanturako ere begien aurrean nahi.

«Esadazu musikari ingeles on baten izena!».

Alferrik aipatuko zenion edozein.

«Errusiarrak, hungariarrak, poloniarrak... tira, Alemaniaraino. Horiek bai!».

Klasikoez ari zen, noski. Eramanezina zitzaion musika berria.

«Lurraren indarra, ulertzen? Lurraren indarra!».

Eta aitonak zapatak konpontzeko behar adinako sekretuak kontatu bazizkion, ordainean

musika nola maitatu behar zen erakutsi zion gure aitak aberririk, uhalik eta maletarik gabeko soldadu uzkur hari. Melomano handiak ziren biak.

Horregatik harritu ginen Larralderen milonga baten ostean irratiak kanal berean segitzen zuela ohartu ginenean. Beatlesak ari ziren, *Let It Be* zela esango nuke, seguru, pieza amaitu arte jo ahal izan zuten. Aitona berehala ohartu zen. Kanpora begiratu eta espaloia harrotuta gehiegi hazitako ezkiaren adarretan geratu zitzaion begirada. Uda betea zen, urtarrila, eta umeak berandu arte ibiltzen ziren patio atzean jolasean. Baloi baten hotsa entzuten genuen, horman behin eta berriro joz. *Let It Be*. Zoazte zeuen gelara agindu zigun arrebari eta bioi. Amaren bila atera zen gero, auzoarenera. Egunkaria han gelditu zen, mahai gainean, hildako kalatxori handi bat balitz bezala.

Barkadazu, Maite, ez dakit zergatik bahitu didan gogoa orduko ilunabarrak, leiho orriak zabalik, arbolak besoak luzatuta eta Osvaldo *beltza* ateraino helduta, zer gertatu den jakin nahian. Tangozale amorratua zuen aita, gorria arras, eta

Puglieseri zion fedea, musikan ez ezik bizitzaren aurreko filosofian ere. Hortik zetorkion izena, Osvaldo. Nik, berriz, Oscar, aitonarena. Bata dela edo bestea, jabetzen zara, inoren bizitzak norberarekin beti, izenean bada ere. Hala zen usadioa gurean.

– Azukrea ere botatzen diote batzuek, mikaztasuna kentze aldera. Nahi baduzu...

Aitonarentzat gordea genuen alorrean ehortzi genuen, Chacaritan. Petrala zen, baina zital askok bezala ez zuen umorerik falta. Nik badakit barre egingo zuela ikusi balu non lurperatu genuen. Berak kontatuta dakit Virulazok, ezagutzen duzu?, hemengoa zen jatorriz, Jorge Martin Orcaizaguirre, Argentinan inoiz izan den tango dantzaririk onenak, Italia aldean jiran ibilita etxera itzulita, hangoaz galdetu ziotenean eman zuen erantzuna:

«Venezia? Chacaritako hilerria, uholdeak harrapatuta egotea».

Eta han da aita orain, Virulazoren ahokadan, Ca’Foscari jauregia dirudien panteoi haietako batean barik lurpean, gaindosiz hildako erdipur-

diko rock kantari baten ondoan, berenez beren betirako.

Lur eman genion igande goizean, atertu gabe aritu zuen goizetik. Katabuta lurrean sartu genuen unean ere arindu ez zuen euri xehea, hemengoaren aldean bestelakoa baina, eta sinbolismorako keinurik ez, hodeiak ez ziren zabaldu, eguzkia ez zen zirrikitutik lotsagabetu. Tximu eginda nengoen, euriak soingainekoa pasa eta elastikoa bustitzen zidan. Amak etxean geratzea zuela onena erabaki genuen, eta osaba-izeben esku utzi zen guztia. Egunak eman nituen irudia burutik kendu ezinik, aita Dogoen Kanal Nagusian betirako.

«Irakin gabe!».

Gaizkitxo, arraina zen.

– Ez duzu gehiago nahi?

Hura hil eta denboralera joan zen aitona, Prozesuaren garaian. Penaz, alabarekin errukituta eman zituen ilunabarrak harrezkero. Ikusi zuenean non hobiratu genuen aita, berarekin ez genuela horrelakorik egingo agintarazi zigun, erre egin behar genuela sartu zitzaion. Hala hitz emanarazi zion amari. Azkenean pneumoniak era-

man zuenean, esan bezalaxe egin zen. Segizio txikiak lagundu zituen errautsak Costanera Nortera. Han, Arrantzaleen klubaren parean, auzoko bezero batek klarinetea jo zuen, eta hala joan zen La Plata ibaian behera egun sargoritsu batean. Aitonaren hautsak ur lohietan galdu zirenean norbaitek Oskar Escher bere aberrira itzuli zela esan zuen. Nik ere eskuaz hartu nuen aitona. Errautsak epelak zeuden. Ontzia eguzkitan uzteagatik zela azaldu zuten han. Alkandora orduan ere blaitu egin nuen, eta burua altxatu nuelako, hegazkin baten sabela dut gomutan, gurpilak aterata, Jorge Newbery aeroparkera iristen.

Ezagutzen ez nuen pieza zen.

«Shostakovitxena da, oso zuen maitea».

Halakoxea zen.

Hitlerren armadak bederatziehun egunez setiatu zuen Leningrad. Ordukoan gosez hil ziren milaka herritar haiei eskainitako zazpigarren sinfoniaren txatalarekin egin genion agur.

Bortxazko soldadua zen aitona. Ez nazia.

Aita hil ondorengo hilabeteetan irratiari mihia jan zion katuak. Matea hartzen bai, segitzen ge-

nuen, nola ez bada, baina akabo tangoak eta milongak, joan ziren Cafrune eta Discepolo, eta amak berak, kantari aparta zen, gehiago ez abestea erabaki zuen.

Osaba Fransek aurkitu zion lanari esker egin ahal izan genuen aurrera. Astegunetan ez zen ilundu arte itzultzen Saenz Peña eta Mitre arteko bulego hartatik. Larunbat eta jaiegunetan ere askotan aplikatzen zitzaion joan beharra. Etxea erabat hustu zen. Aitona ez zen ausartu suhiaren gauzak ukitzen, eta disko bilduma hautsak jan zuen. Giltza auzokoaren kakoan utzi zen, eta arrebak eta biok institutuan ematen genuen eguna.

Garai hartan gauzak aski azkartu ziren. Ogia goizean goiz erosi beharra zegoen, iluntzerako biren prezioa baitzuen. Egunero hori. Arrunt uste zabaldua zen, hala esaten zen eta hala sinetsarazi ziguten, bost orduan behin hilketa politiko bat gertatzen zela. Egunkariek lotsarik gabe iragartzen zuten bazetorrela, eta ezin gintuela gehiago babestu ohartu zen ama.

Goiz batean bera izan zen sukaldeko mahaiko mantel loratuaren gainean zeuden ontziak

baztertuta tartetxo bat egin, gelatik beso artean ekarri, eta patioko atea zarratuta, irratia piztu zuena. Videla jenerala zen hizketan ari zena, Maite. Isabelitaren berririk ez. «Seguru gatibu dutela», pentsatu genuen. Ohitu egingo ginela ahots hartara.

Delinkuentziaz aritu zen, subertsioaz eta gure artean habia egina zuten piztia marxistez. «Iluntasun honen aurrean, Argentinako herria iratzartzeko momentua iritsi da», esan zuen. «Bakea ez da eskatu bakarrik egiten, zoriontasunaren zain ez da egon behar. Biak, irabazi egin behar dira».

Hala esan zuen, zoriontasuna irabazi.

Egun hartan ez ginen institutura joan. Lainotuta zegoen. Presidente berriak amaitu zuenean, materako ura berotu nezala eskatu zidan amak.

–7–

Friedrichekin eta honen margoekin lotzen ninduen bilurra eteteko garaia iritsia zen. Batean eta bestean lardaskan arituta ikusi ahal izan nuenez, ez zuen sakonegi teorizatu artearen eginbeharraren gainean. Utzi zituen idatziak ere ez ziren horrenbeste, eta koadroak, Rügengo labarrena eta besteren bat izan ezik (egun Hamburger Kunsthalle-n dagoen *Ibiltaria laino itsasoaren gainean*) ez zitzaizkidan bereziki miragarriak egiten. Hitz bitan, ez nuen aitzakia nahikorik Caspar Friedrichez idazteko. Ez nuen asmatzen nola lotu behar nuen Hitlerren armadako marinelen istorioarekin. Areago, ez nuen artikulua egiteko gogo mendrenik ere, nahiz eta ikusitakoaren arabera, sinbolistek aurrena eta Max Ernst-ek eta surrealistek gero, aitzindaritzat jo izan dutela jakin. Banuen lehenagoko lanik.

Ordenagailua piztu eta «Friedrich» zioen karpeta zabaldu nuen. Nituen artxiboei begiratu bat ematea nahikoa zen azken egunetan pilatutako anabasak hartutako neurriaz jabetzeko: errepro-

dukzioak, datu biografikoak, hitzaldiak, tesien laburpen dibulgaziokoak, neuk egindako lotura subjektiboak (*Rügengo labarrak* margotu zuen urte berean, 1801ean, alemaniar erromantizismoaren publizista nagusia, Wilhelm Humboldt Euskal Herrian zen)... urrunegi joana nintzen Oscarrek nahi gabe erakutsitako amuari helduta. Azken batean gordeko nuen artxibo bakarra ireki, haren esaldiena, eta Friedrichen gogoeten artean bikainena aukeratuta, itzuli egin nuen: «Bil itzazu begiak, koadroa lehenbizi zure izpirituaren begiez ikus dezazun. Gero, agerraraz ezazu egunez zure gauaz ikusi duzuna». Pantaila itzali eta erredakziotik atera nintzen. Elkarrizketa nuen Maisonnave hoteleko kafetegian lanik ezagutzen ez nion brasildar zinemagile batekin.

Ordubete egon ginen ia.

Porto Alegre, Rio, Manaus, baina batez ere Sao Pauloko Zinema Pobreari buruz eman zidan informazio zaparradari forma nola eman barrundatzen ari nintzen poltsikokoak jo zuenean. Esti zen, Laida neuk jasotzeko, zeharo aldrebes ez bazetorkidan behintzat, bera ospitalera zihoala hautsez ipurdi.

– Lehengusua –esan zidan– oso larri dago, bihar bertan irekiko omen dute.

«Ireki» esan zuen, haurtzaroan harategiko egurrezko mahaian barru agerian ikusten genuen txerria nola, arkumea bezala kakotik zintzilik, irekita, azkenaldian ia igandero patata, tipula eta tomate xafla egosien gainean labean sartzen dudan haztegiko urraburua edo lupia bezala, olioa, gatza eta baratxuria, buztanetik zakatzetara ganibeta zabalaz irekita.

Betidanik gustatu izan zait kalea autobuseko leihotik ikustea. Beste neurri bat du denak aulki goratuetatik, Bruno Diegues zuzendariarekin izan nuen elkarrizketak berotuta ohartu nintzela horretaz uste dut. Kameraren begia oso da bestelakoa handik, goitik beherakoa, zenitalera iritsi gabea baina.

Txapitulapean, adineko emakume bat jasotzen dugun artean neska beltzaran batengana doakit begirada. Jira eta buelta, urrats lasaia du, inorako presarik gabe, inor zain ez balu bezala. Autobuseko kristala tarteko, begiradek elkar lotu dute une batean.

– Zer zara? –galdetu zidan Estik batak bestea ezagutu genuen egunean.

Erantzun asko etorri zitzaidan lipar batean: lotsatia baina ausarta, apala baina harroa, goibela baina eroa, petrala baina gozoa...

– Kazetaria naiz –esan nion.

Eskuak jolasean hasterako, zertan aritzen nintzen azaldu nion. Izan zitekeela okerragoa esaten entzun zidan, nik behintzat banituela aukerak erredakziotik ihes egiteko, «zure modukoekin sarriago egoteko», bota nion lotsagabe.

Beste bat nintzen orduan.

– Xelebreak zarete gero –esan zidan–, munduan beste muturretik heldutako pertsona batekin egoteko aukerak izan, aurrez aurre inor gutxiri egingo dizkion aitorpenak jaso, kafea ordaindu eta kalera. Seguru asko berarekin gehiagotan egongo ez zaretela jakinda. Horrelako aukerekin bestelakoak beharko zenukete izan. Ez zarete maitatzen errazak.

Hamar urte daramat Estirekin.

Ez dakit beste bat egingo dugun. Ez gabiltza ongi.

Orain etorri zait:

– Nik zu beti maiteko zaitut –esan nion handik gutxira.

– Ez esan hori. Hori ez da inoiz jakiten –erantzun zidan. Negua zen eta istripua zegoen autobidean.

Erredakziora igo eta neukan denbora kalkulatu nuen: ez nahikoa erreportajea eta elkarrizketa osorik eta ganoraz burutzeko, ezta hain urri ere ezer ez egiteko. Halaxe jakinarazi nion Gemari alboko mahaian. Erredakzio nagusira deitu, beste egun bat beharko nuela abisatu, bi orrialde gordetzeko eskatu eta banaketa nola egin pentsatu nuen. Argazkiak txukun antzekoak ziren, eta titulua banuen: «Ohiko zineman objektua dena, horren begia da gurea». Kontzeptu zailegia zela iruditu zitzaidan. Beste bat topatu beharra zegoen bada ez bada ere. Elkarrizketaren sarrerakoa egin nuen, grabazioa egiaztatu: dena ongi, ozen eta garbi entzuten zitzaion. Erdi portugesez, erdi gazteleraz, ez nuen arazorik izango. Artikulurako, aldiz, nekerik gabe atera nituen puntu nagusiak. «Etzi», pentsatu nuen. «Egun hobea duk, gainera. Etzi emango ditek filma, eta

publizitate moduan ere funtziona lezakek, merezi dik», lasaitu nuen neure burua.

Ia ordu erdi nuen Laida jaso aurretik. Bilatzailearen gunea zabaldu eta «Graff Spee» idatzi nuen. Oker. Berehala zuzendu nuen: «Graf Spee». Ia hirurehun mila sarrera eman zizkidan. Espero bezala, han agertu zitzaidan Hans Langsdorff bera, argal, planta oneko, itsasgizonen uniforme zuriz, militarren sonbreiru zapala eskuan zuela. Buenos Airesko hoteleko ohe gainean imajinatu nuen, banderan bildua, tiroa zuela lokian. Dena zuri-beltzean, odolaren gorria izan ezik, maindire garbien artean behera, zorurantz. Zer aurkituko zuten, hurrengo goizean iratzartzera joanda ala gauean bertan, tiro hotsak asaldatuta? Nolanahi ere han nuen, irribarrez, gizatiar, burdinazko gurutzea zuela ezkerreko paparrean. Ontziaren argazki asko zegoen: kanoiekin harro batean, tiroka bestean, ketan, zauriak erakusten istriborrerantz etzana, eta urpeko kamera batez hartua, baita Montevideo aurreko uren hondoan ere. «Uruguaiko Gobernua», zioen albiste batek, «Graf Spee lehorrera ateratzeko asmotan dabil». Gero, bi bideo ere topatu nuen.

Batak La Platako batailako irudiak jasotzen zituen, ingelesez. Bigarrenak halako zirrara eragin zidan: Ingrid Langsdorff zen, Hans Langsdorff kapitainaren alaba, aitak Buenos Airestik bidalitako gutuna irakurtzen.

Datuak, gutxi-asko, ez ziren elkarren oso bestelakoak. Itxura guztien arabera, 1.050 ziren marinelak eta 44 ofizialak osotara Alemaniatik atera zirenean, eta Oscarrek kontatuta bezala, hasiera batean elkarrekin egon baziren ere, Argentina osora zabaldu zituzten ostean. Herri batzuetako kontakizunak arrunt ziren zehatzak, Mendoza aldekoak-eta, nola aritu ziren mahastietan. Non bizi izan ziren zehazten zen, auzoen izenak ematen ziren, batzuen lanbideak eta ezkontza datak, edota zer elkartetan batu ohi ziren. Foroetan, emaztearen osaba bertako tripulaziokoa zela eta zerrenda osorik eskatzen zuenik bazen. Urrunetik heldutako gizonen arrastoa legendan sartzen zen, eta aleman itsaspekoen berri ematen zen Necoechea, San Cayetano, Tres Arroyos eta Miramarko hondartzetan. Mitoa errealitatearekin nahasten zen. Beldurra miresmenarekin. Kasinoetan ba omen zebiltzan hiru atzerritar ile hori,

denbora gutxian, inork oso ongi nola ez dakiela zeharo aberastu zirenak: «Okertzeko beldurrik gabe esan dezakegu –idatzi zuen kazetariak ordukoan–, hiru gizon misteriotsuak Graf Speeko marinel ohiak direla».

Langsdorffen heriotzari buruzko datuekin sortzen ziren zalantzak. Bere buruaz beste egitearena ez da, antza, hain garbi dagoen gertaera. Bada honetan guztian nazien zerbitzu sekretuen eskua ikusten duen ikerlaririk ere. Langsdorff, webgune guztietan hala esaten da, ez ohiko soldadua zen, profesionala, «gerra humanizatzen ahalegindu zen horietakoa». Zergatik ez esan: erromantikoa. Horregatik Friedrich. Horregatik Rügengo itsaslabar zurien deia.

Jaiotze eta heriotza datak apuntatu nituen paper batean. Kontuak atera nituen. Izutu egin nintzen: Langsdorffek La Platako borrokan zuen adina dut ia. Gizon heldua ikusten da Montevideoko argazkietan, ia agure bat zirena baino zaharrago diruditen marinelen artean, hildakoen kutxak kanposantuko lur gainean direla.

Hilketa politikoan pentsatzeko zioak badira egun ere. Haren irudia zuritze asmoz ez bada,

nor hasiko da hori ikertzen baina? Itsasoko *gentleman*-a izan arren, kortsario erromantiko bat, nork du egun adorea Alemania bentzutu eta kondenatuko ofizial bat defenditzeko? Hilketa balitz ere, ez litzateke azken batean beren arteko zerbait? Molaren hegazkina Gasteizera bidean meteoro bat bezala amildua. Badakit, ezin dira konparatu. Barruak ere, behar dira: Graf Speek III. Reicheko arranoa zeraman brankan, hegoak Tarifatik Stalingraderaino zabalik eta esbastika erdian, garaiko argazkietan ikusten da. Langsdorff ez zen Escher. Langsdorff berak hautatutako lanbidearen gatibu zen; Oskar Escherrek ez zekien zer egingo zen gurutze oker harekin. Hamazazpi urte zituen ontzian bortxaz sartu zutenean. Biziraun. Ez zen beste asko bezala Europara itzuli Hitlerren armadan gerran segitzeko. Bizi. Ez zuen marinel ohien meza-bazkarietan parte hartu. Desegin, ahaztu nitaz. Marinela urtu eta gizona argentinar egin zen, zapatariak gazteleraz, eta urteak egin zituen, ongi ikasi ez zuen arren.

(Argazkietako batean marinel aldra handia ageri da atoiontzi gainean igota, denak kamerari so. Graf Spee betirako utzi eta Buenos Airese-

ra iritsi ziren unean aterea dela dirudi. Portuko tximinietan kea ikusten da. Gizonak, denak dira elkarren antzekoak egungo begiarentzat. Kurlinta baten antza nork izan lezakeen nabil. Escher, hor zaude?)

Joan beharra nuen. Neure benetako izenez sinatu eta galdera idatzi nuen, foroko norbaitek laguntza ematerik baldin balit ere: «Gure aitona Graf Speeko marinela izan zen, Oskar Escher deitzen zen. Inork ezagutu zuen?».

Tiradera zabaldu eta botikarik banuen begiratu. *Seroxat*-a amaitzen ari zen.

Telefonoak jo zuen.

– Imanol, hiretzat –abisua Gemak.

Maite zen:

– Zurekin egon beharra daukat.

–8–

Agindutakoan iritsi banintzen ere, Maite han nuen ordurako. Sukaldeko atetik gertuegi zegoen mahaitxo bat zuen hartua. Urduri sumatu nuen. Begiak ziren, eta ezpainak nerabearen artegatasuna salatzen zutenak. Ez nenbilen oker, eseri eta batera eskuinaz koilara eta aiztoa eta ezkerraz furxeta ia berauen tokitik mugitzeke doitzen hasi zen. Beste horrenbeste egin zuen edalontziarekin, esku artean hartu gero ipurdi bustiak marka utzia zuen biribilaren gainean uzteko berriz. Auzi medikuari mahaian hamaika bider egiten ikusitako keinu hura: bisturiak, arraspak, stryker zerra.

– Ez duzu denbora larregirik izango...

Ez nion hala ez zenik ukatu nahi, banuela lasai bazkaltzeko astia esan nion, jolas egin nuen, egia zen gainera, non egongo nintzen han baino hobeto, «hain konpainia onean». Aurpegia piztu zitzaion. Ostirala zen, lantokira itzuli beharra nuen, banuen zeregina, batez ere astebururako Ziudadelako Armategiko aretoan antola-

tzen ari ziren erakusketa harekin, «baina zuk», ohartu nintzen orduan, «zer egiten duzu lanera joateke?».

Begiez hurbildu zitzaidan.

– Edateko zer?

Rochekoak izan ez zuen segida izan nahi zuen bazkari hark. Oscar zegoelako, ezin izan genuen geure gauzez hitz egin, eta hala aitortu nion, bi ezezagun bagina bezala portatu ginela ordukoan. Erreportajea egitera joan ginenean, berriz, lanean ari ginen biok, «zu, hildakoak azalera ateratzen; ni, zure hildakoen etorkizunaz galdezka jendeari». Telefonoz deitu zidanean bezain hotz sumatzen nuen. Distantziak, Bartzelonako urteak, berehala ohartu nintzen, bion borondatetik harantzagoko neurria hartua zuen. Itauna ere, halakoxea, zer moduz nenbilen.

Bera zen galdetzen zuena, eta ongi, erantzun nuen, buruarekin baietz egiten bezala, ahoa biribilduz, ongi nenbilela, ongi genbiltzala etxean. Tximistaren bristada bat-batean: Laida eskolako jantokian, ez ahal zuten deituko, gaixo dagoela eta bila joateko. Ez genuen ongi behar bestela. Galdera itzuli nionean, berdin erantzun zuen

Maitek, singularrean beti, nahita, eta lasaitu egin nintzen, eta pentsatu nuen telefonoz hots egin izanak ez zuela hasieran eman nion larritasunik.

– Dei bat izan dut.

Emakume bat izan zela argitu zidan, ahotsagatik ez gaztea ere, lantokira deitu ziona. Orain hurrena, urpean geratuko ziren hilerrietako lanak zirela-eta, osaba zahar batekin hizketan ari zela gaia atera eta Larraingaingo hilerrikoa aipatuta, eroaren pare jarri omen zen gizona. Lortzeko han ari zirenen telefonoa, deitzeko, solasteko agudo, langile haiei esan beharreko bat zuela berak.

– Eta?

– Horregatik deitzen zidala. Ea gizonarekin hitz egingo dugun erregutu zidan.

– Zuek?

– Ez, guk, Imanol.

Hau da beraz, etorri zitzaidan, niretzat gordea zenuen konfidentzia sekretua. Ez da kazetaria nahi zuena, laguna baino. Poztu egin nintzen.

Gizona zahartuta zegoen, itxura. Erabat galduta ere ez, baina ez omen zen bere buruaz osoro arduratzeko gauza.

– El Vergelen dago, egoitzan, gurpildun aulkian. Aspaldiko konturen bat izan behar du, ateratzeko dugun hildakoren batekin duena zerikusia.

Emakumeak ez ziola argiegi azaldu, ez zela hitz errazekoa desenkusatu zen.

– Osabarekin egongo ginela entzun arteko onik ez du izan. «Ea bakean uzten nauen behingoz», atera zaio.

– Eta zuk, zer esan diozu?

– Zurekin hitz egin nahi nuen lehenago. Enpresan ez dago ezer esateko modurik. Joatekotan, lanordutik kanpo egin beharrekoa litzateke.

Maiteren begietan ikusi nuen neure burua. Hegirik gabeko putzu beltz bi, kanpora egin arau argitzen, goroldioz berdetzen zirenak. Garai batean, osin haietatik ez ateratzera jolasten nintzen, ahalik eta gehien irautera, albait sakonen itotzera. Gero, beste bat erori zen putzuotan, baina. Ni, ia lehortu gabe, beste batzuetan murgildu nintzen. Gaur arte. Orain berriro nengoen bertan. Eta ez nuen igeri egin nahi.

– Lasai, joango gara.

Goitik beherako arrakala estu bat zuen beheko ezpain mamitsuan.

Eskatu eta Rochen agindua niona eskura emateko unea zen.

– Hau da aipatu nizun liburua.

Azkazal motzak zituen, gustatzen zitzaidan bezala biribilduak, nabarmenak azal beltzaranean. Ezinbesteko zauri txikiak hatz muturretan.

Maiteren hortzen ederra liburua hartzean. Azalean Mastroianni eta Piccoli ageri dira filmeko fotograma batean. Largabistak zintzilik, lepoa animaliaren baten larruz dotoretutako militar jantziz bata –orduantxe etorri zitzaidan: badu Langsdorff-en aire bat argazki honetan–; larruzko jaka eta jertse beltzez bestea, jeep kabriolet batean doaz. Atzean, mendi mazela soildua, haitzak agerian nonahi. Mediterraneo hegiko beste herriren batean filmatua zen, duda izpirik gabe, Albania izan nahi zuena.

Kontrazala irakurtzen hasi zen. Gazte baten erretratua du barrenean, ia ikasle batena begitantzen dena. Enver Hoxha-ren Albaniako idazle ofiziala zen orduan, beste Ismail Kadare bat.

– Ez nuen ezagutzen.

Neure sinadura aurreneko orrian, liburua erosi nuen dataren azpian. Berarentzat zela argitu behar izan nion, bila ibiliagatik, ez nuela aurkitu, liburu-dendetan katalogoz kanpo dutela eta ez zidatela borondate handirik erakutsi egon liteken azken zulotik ekartzeko. Hala beharko zuela esan nion, barkatzeko, ertzak horitutako edizio bat, pixka bat nasaitua, «baina merezi du».

Zurikeriarik gabe onartu zuela iruditu zitzaidan.

– Asmatu duzu gainera: atzo nituen urteak.

Zorionak ematen ari nintzaion barazki pasta ekarri zutenean biontzat. Ardotik atera nuen.

– Biak bizi dira?

– Mastroianni ez. Piccoli baietz uste dut.

– Beste garai batekoa dena –esan zuen.

Biok ere, Maite, ez gara beste garai batekoak? Ez balitz horrela, beste nonbait geundekeen elkarrekin bazkaltzen beharrean. Gogoan ez dudan norbaiti irakurria diot oraintsu, zauri batetik atera eta beste zauri batera goazela beti, hori dela eta ez besterik gure bizitza. Neuk ere ez nuke esango hala ez denik. Ikusi egiten dut, tar-

tean, errepide nagusi bat edo beste eta, bidegurutzean sartuta, karrefurrean, hamaika bide, estrata eta zidor. Badakigu zer gertatzen den: bideok nahaspilatu egiten dira, badira elkar jotzen dutenak eta ipar edo hego, badira elkarrengandik betirako urruntzen direnak. Betirako aldendu egundo gehiago ez ikusi arteraino gehienetan.

Aitorpenen unea iritsia zen. Norberaren bizitza besteak baso ardoa amaitu artean kontatzearena. Gizakiaren gozo eta malurak zazpi minutuan laburtzea badaitekeela erakutsi zuen berak. Nik, ur handiegietan sartu gabeko azalpen batez erantzun nion, uzkurrago hagitzez. Oso neurea den keinua. Ez dut piku heldua bezala zabaltzeko dohain hori.

– Neure gorotzetan egosten, horretan naiz ona.

– Gizaseme gehienak bezala.

Hasieran biok jarri genion langa iraganera eraman gintzakeen edozein aipameni. Erosoago zebilen hagitzez Maite urtegikoaz galdetuta. Lanak zelaitu zuen oro. Gustura ari zen, talde ona zuen eta beharrari dagokiona, berez, ohitze kontua baino ez zen.

– Nik ez nuke balioko.

– Zertarako?

Inoren hezurrek sortzen duten atzerakadarena aipatu nion.

– Eta nork balio du ba?

Ez nion galdetu zergatik ari zen, zer egiten zuen han, ez al zuen beste ezer aurkitu. Handia zen min emateko arriskua. Banuen susmorik. Kontua ez zen hilen eta bizien artekoa soilik. Ez zen ezezagun batzuk lurpetik atera eta garapenez mozorroturiko proiektu ero baten atzaparretatik libratuta memoriaren hobi txikietan gordetzea, duintasuna, eginbehar soziala eta hori guztia. Etorri zitzaidan egon behar zuela ihesen bat esker txarreko borondate hartan, kontatuko ez zidana eta, baldinbaitere, eskatuko ez niona.

Atzeratuta zebiltzan agidanean. Hilak ez ziren hasieran aurreikusi bezain azkar ateratzen azalera. Katabutek sustraiak zituztela omen zirudien, «hain erro sakonak non luzatu ahala elkarren artean korapilatu eta lurraren muinean galtzen direla ematen duen». Halaxe esan zidan.

Leihorik gabeko jangela itoan egurrezko mahaiak paperezko tapetez babestuak, aulki guz-

tiak desberdinak argi apalpean, bizidunen arteko hariak mantentzeko aitzakia baino ez ziren hildakoak: iraganari deitu eta bertan bizitzea, kale berauek beste era batean ibiltzea, betirako joan den jendea, inoiz itzuliko ez diren elkarrizketak, begiradak eta eskuak. Gauza askoren hasiera eta gehiagoren bukaera, Maite.

Hormetan, kolore biziz margotuak, Andy Warholen serieen maneran, Berpizkundeko goi emakume bat. Margot erreginaren ama, Endrike III.a Nafarroakoaren amaginarreba da koadroetakoa, Medicisko Katalina. Ostatuko nagusien jolas bat. Egin dezagun sinesten dugula hala deitzen ziotela, ostatuari bezalaxe, *Catachu*. «Paueko Gortetik arribatu Katherinak zabaldu zizun OstatUniversitate hau bisorraiaren isilik, non printzesa bera aritzen baitzen ostalers XVI.aren akaballan», jakinarazten zaio bazkaltiarrari. Jolasa, mitoa, asmakizuna... ederki sartua, baina zer ardura dio jatera datorrenari. Nire platerera arrankari zatia ateratzen ari zela, ausardia handirik gabe galdetu nion:

– Eta Oscarrekin?

Furxeta utzi gabe, ongi, esan zuen.

– Lanerako ona da, atsegina.

Tarteka, elkarrekin gelditu izan direla zerbait hartzeko, gehitu zuen.

– Bakarrik dago mutil hori.

Baietz, aitortu nion, Rochekoaren ostean neuk ere topatu izan dudala kalean, igoarazi dudala inoiz etxera, eta hala iruditzen zaidala, ez dabilela alai, baduela zerbait.

– Harritu egiten al zara.

Orain bost bat egun azkena, Nabarrerian. Galdetu nion:

«Aurrekoan ez hidan esan. Aitona eta biok, heldu zineten Rügenera?».

«Ni ez, bera bai, Alemaniara itzuli zen bidaia bakarrean. Super 8an filmatu zitian Langsdorffen arrokak, itsasoa, jaioterria. Ahotsik gabeko hamazazpi minutu dituk: hondartza zuriak, dunak, olatuak, arrantzontziak kalatxori artean portuan sartzen. Eta Graf Speeko nagusiaren jaioterriko kaleak, jenderik gabeak; eta haurrak, berrogeita hamar urte lehenago Langsdorff bera ibili zeneko eskolatik irteten Bergenen; eta... ez didak sinetsiko».

«Zer?».

«Aita Donostiaren pieza bat dutela atzean. Gainetik ezarri zioan. *Oinazez* dik izena, ezagutzen duk? Hil ostean aurkitu genian zinta, haren trasteen artean. Gerora jakin genian harako-harako erakutsi zutela areto batzuetan. Arrebak zaukak».

Kurlinta labarretan.

Orduan ohartu nintzen jantokian ere musika zeukatela jarria. Zerbitzariak hiru lagun eserarazi zituen aldameneko mahaian.

– Orain hurrena, zinemara joan ginen elkarrekin –esan zidan Maitek.

Dena utzita bizimodu hobe baten itxaropena diozu. Zer egiten du orduan argentinar batek hemen hezur batzen, Mastroianni eta Piccoli Albanian baino galduago bertako askok ere inoiz entzun gabeko herrietan? Neure burua ikustera egin dut Atlantikoaz bestalde, nik dakit bada non, Ixcanen, Iquiquen edota Sao Paulon, gerrirainoko lokatzetan sartua, inoiz neure arteko sentitu ez ditudan maia nekazariak, txiletar meatzariak, brasildar obreroak esku artean hartu, zapi batez arretaz garbitu eta metalezko kutxetan sartzen eta etiketatzen. Areago, urtegi-

rik ederrenean, ibaia baino itsasoa den Rio de La Platan uretan zuloa egin eta hogeita hamar mila desagertuen bila aritu naiz. Eguna paraje arrotz batean argitzen ikusi. Egunero. Esku lokaztuz heldu kafearen kikarari, eta herrikoak, hilerri hegira pasieran heldu eta begirazun bakoitzean oihuka, «utzi gure hilak bakean!», eta obrak amaitu eta ura ttupa-ttupa geldiro gorantz datorrela, iruntzietara txilioak, «atera azkar, ez daitezela hor gelditu, urpean betirako!». Etsiak eta iraganak jotako jendearen kontradikzio horiek guztiak.

Ulertzen ez nituen kontuak zituzten mintzagai aldamenean eseri berriek. Erosketa batzuk, tarifak eta irabazi marjinak.

– Biok joango gara orduan El Vergelera?

Egoitza batean bizi den agurea, azalera atera beharreko hildako batez arduratuta. Niretzat, probetxua ateratzeko moduko istorio bat izan zitekeen ausaz. Maiterentzat, jakizu.

Bi kafe huts eskatu nituen. Hildakoez landa, bagenuen zertan jardun. Zein bidegurutzetan urrundu ziren gure bideak gogora ekarri, esaterako.

–9–

Pantaila piztu eta lanean hasi orduko, bitan jo zuen telefonoak nire bila. Kilker elektrikoak baino bost bat minutu lehenago entzun nuen aurrenekoa, gertatuko dena aurrez sumatzen duzun une horietako batean. Espero duzunaren itzala ustekaberik gabe heldu zen. Esti zen eskolatik. Tonuan igarri nion zer esango zidan: «Lehengusua hil da». Isiluneak errepikatzera behartu zuen. «Lehengusua hil da», esan zidan berriro. Ez ginen sobera luzatu, egunkari bateko erredakzioa, harrigarria bada ere, ez baita galdera batzuk egiteko tokirik egokiena.

Eskolako sukaldetik patiora aterata ikusi nuen, hura ere hitz egiteko gogorik gabe, begiak arian betetzen. Erlojuan erreparatu nuen. Eguneroko lapiko industrialen kiratsa. Utzia zen arren, lankideren bati eskatutako zigarroa piztuko zuen seguruenik, jolastokia mugatzen zuen burdinazko hesi berdean bestaldeko autoen joan-etorriei beha. Baloi bat, punpaka porlan gogorrean. Orduan hustuko zen lasai. Anaia balu bezala maite

zuen. Etxean hazia zuten gurasorik gabe geratu zenean. Begien gorria apaldu arte itxarongo zuen ostera ere pertz, kazolara eta zartagin artean sartu aurretik. Izebaren semea zen, ez amarena, lanean jarraitu beharra zegoen. Eta esan gabe ulertu nuena, neu ere amaraunean nengokeelako: adinkide izateak dakarkizun izua. Hemen da. Orain zauden bezalaxe, itxuraz osasunez ongi, halaxe harrapa zaitzake datorren astean. Ez da pena soilik. Asko du beldurretik ere keizuak. Zeu izan zintezkeen. Beste nonbaiten, zeu zintuzketen orain hizpide maite zaituztenek zeu satorretara zoazela. Laidarekin zer gertatuko litzatekeen, hori ere hitz egingo zuten.

Bigarren deiak aurrenekoa ahantzarazi zidan, solasaldiak iraun zuen artean bederen. Maiteren ahotsa zen, beste azantza batzuen artean igerian. Jendearen mintzo goratuak entzuten ziren, edalontzien talkak eta kafe makina baten lurrun hotsa. Agoitzen zegoen, erreka aldera leihoak zituen ostatu batean, ulertu ahal izan nionez, eguraldiak hartaratuta. «Galanta da: hobiak urez beteta daude», entzun nuen, «ezin da lanik egin». Hamaiketakoa bukatzen ari omen ziren, eta las-

ter zetozen bueltan. Leihotik begiratu nuen: ateri. «Ba hemen gogotik egin du», jarraitu zuen. «Bero sapak trumoia ekarri du bart gauean mendialdean».

– Larunbat arratsaldea libre duzu?

Neure bostean egin nituen kontuak, lanekoak, etxekoak, Esti eta Laida. Ordurako lehengusua bakean utzia izango genuen, gu gabetan erroak bota zitzan lur berrian. Konponduko ginela atera nuen. «Ongi da», esan nion.

– Lauretan El Vergel atarian, Arantzadin.

Kanpoan, telefonoa kakotu orduko hasi ziren lehen tantak erredakzioko kristalaren kontra, elkarren arteko lasterketa eroan, zein azkarrago erlaitzera iritsi. Izan zen berehala jaiki eta leihoa zarratu zuenik. Euri lainoak Ezkabari kapelua ezarri gabe, oso goitik zetozen. Euria elizako dorrean behera irristatzen, orratza, haurlauza, burdinazko hesia jotzen. Erauntsi epela hiria inguratzen zuten pentze, soro berdetu eta etxeen hezurduren gainean. Euria ohartu orduko guztia betetzen, espaloi ertzetako hodiak eta etxe berriak doazeneko obretako hobiak. Euriaren emana logeletako kristalen kontra, aterpe eta

autoen kontra, euria jendearen, euritakoen eta aterkien kontra. Praka barrenak bustitzen, bidea utzi eta aterpe bila doan ama gazte hori, eskutik daraman umea blaitzen. Nonbaiten, euria errepideari distira ateratzen. Autoa azkar jartzeko errepidea Agoizkoa.

– Zatozte kontuz –atera zitzaidan.

Beharrik, ez zidala entzun esango nuke. Artean hizketan ari nintzela, telefonoaren klika aditu nuen.

Mahaitik jaiki eta leiho zabalera hurreratu nintzen. Bozina jo eta jo bat edo bat. Kalean, barazki banatzaileak utzitako kamioiak irteera oztopatzen zion auto urdin bati. Euripean, gizon bat automobiletik atera eta dendan sartu zen. Handik laster, gizon bera eta kamioilaria izango zena pentsatu nuena espantuka trabatutako autoaren aurrean. Txorimalo bi hiriko alor batean, haizeak besoak astintzen zizkiela, dena Nanni Morettiren film bat ikusten ari banintz bezala. Lehen, Laida jaio aurretik, gehiago segitzen nuen zinema. Astean bi-hirutan joaten nintzen Golemetara. Maite nuen erritmo hura, kultura

saileko ohiko lanez gain tarteka kritikak ere egitea.

– Azkenaldian ez duzu ezer idatzi zinemaz –gogorarazi zidan ez aspaldi Estik.

Isiltasuna. Erabateko isiltasuna bat-batean. Eta neu, lurrin hotsik ezin entzunik, laino artean bezala oinez, urrats sendoz erredakzioa zeharkatzen. Ohartzerako, neure mahaian nengoen berriz ere.

Goiz hartan gainerako egunkariei begiratua emateko beta hartu nuen. Labur pare bat osatu nuen agendatik ateratakoekin. Hurrengo egunean argitaratuko zen erreportaje baterako argazki egokiak aukeratu eta oinak idatzi nituen. Ordu biak jo orduko eskaileretan behera nintzen. Esti ez zen etxetik pasako, zuzenean zen ospitalera joatekoa, osaba-izebekin batzeko. Umeaz ez neukan arduratu beharrik, lagun batek hartuko zuen etxean biok itzuli arte.

Bakarrik bazkaldu nuen. Jangartxu nenbilen, ohitura txarretara moldatua nintzen azkenaldian, gainera erortzen ari zitzaidan etxetik ihesi. Nahikoa izan nuen ziri-mokadu pare bat eta ia aparrik gabe atera zidaten garagardo txepeldu

batekin. Alde egin nahi nuen ahantz orduka asaldatzen ninduten irudietatik, ez nuen nahi haien gatibu ibili, Estiren lehengusuarekin pasatako une guztiak bata bestearen atzetik, alferrikako mailukatze batean. Nireak ez, besterenak ziren momentu haiek. Bazterrean geratu eta erauntsia pasa arte itxaron, gehiegi sartzeke, sufrimenduaren ore hartatik atalik hartu gabe, neure ez, besteren, aldamenean egon behar zenerako. Hori eta ez besterik zen nitaz espero zena, eta horixe zen egingo nuena.

Ez ninduen, haatik, minaren kudeaketak gehiegi kezkatzen. Gainera, sentimenduek gainditzen dituzten jarrerak aztertuko ziren, banekien beste osagai batzuk ere aterako zirela, hilaren emazte ohia joan den gorpua ikusi eta familia agurtzera, horrelakoak. Neuk ere nahiago horrela hierarkia, erosoago.

Kafe hutsa eskatu eta Maiteri deitzea erabaki nuen. Etxean harrapatu nuen, telebista aurrean loeroan. Larunbatekoa nirekin hitz egin ostean lotu zuen, antza, gizonaren ilobarekin pentsatu baino azkarrago mintzatzea lortuta. Ezin izan omen zion Catachun esan zidana baina askoz

gehiago atera, Faustino Ibañez deitzen zela osaba eta gerra osteko konturen bat zela bakarrik, gizonak ongi ezagutu izan zuen Larraingainen dagoen norbaiten gorpuaz. Iloba bera ere agertzekoa dela, bitartekoak egiteko. Ez omen dio tankera txarrik atera, hitzez motz baina egoki, «osabaren nahia betetzen ari delako susmoa dut», esan dit. Ez espero izateko gauza handirik, elkarrekin bazkaldu genuenean esan zidan bezala, zaharra omen da oso.

«Gerra osteko konturen bat». Nahigabe bada ere, lagunari baino kazetariari ez ote zion deitu Maitek.

– Laurogeita hamaika urte ditu –zehaztu zuen.

– Eta burua?

– Aldika. Batzuetan bai, besteetan ez. Hori dio ilobak.

Ordaindu eta neure buruari atseden unerik opa egin gabe jo nuen kalera. Atarian auto baten argia, orain bai, orain ez, keinuka. Bi gizonezko itxurako barnean, neuri begira. Euriak usain guztiak zaharberritu zituen, eskertzen zen. Faustinok amuan harrapatu nahi baninduen, ongi hel-

dua nion, preso nengoen. Istorio hark ez zuen ausaz egunkarira ekartzeko adinako intereseko ezer izango, baina hala da arraina bazara eta beitarekin batera burdina okerrari eusten diozunean. Dena den, gauza bat: hildakoek badute zu beren kareleraino igotzeko indar hori, hildako batzuek esan nahi dut. Husten ari den hilerria, bizidunen barnean zerbait erretzen duen hezur multzo bat eta ezezagun bati egin beharreko telefono deia, elementu tentagarriak ziren ahaleginik egin gabe ihes egiten uzteko.

Erredakzioan inortxo ere ez. Bazkaltzera joanak ziren denak. Etsi-etsian, Friedrichek ez zuen tokirik idatzi nahi nuen istorioan. Berriro irakurri nuen:

«Goetheren laguna, gaixo depresiboa, lotsatia zen izaeraz Friedrich. 1835ean, 61 urte zituela, bihotzeko batek eskuin eskua maingutuko zion. Handik atzera, ezingo du gehiago margotu. Haren obrak urteak dira ez dutela garai batean izan zuen oihartzunik. Uzkurtua, bakartua, azken urteetan etxekoak ere ondoan nahi ez zituela hil zen 1840an, Dresdenen».

Dresden. Aliatuen bonbardaketek suntsitu zuten hiria 1945eko otsailean, baita hilerriak ere. Hildakoak danbateko bakoitzarekin ateratzen zirela hobietatik diote bizirik irten zirenek kronika harrigarrietan, behin eta berriz zartatzen zutela zartatua bonbek.

Irakurlea nahasteko baino ez zen izango.

Ezabatu egin nuen. Friedrichena bakarrik. Oskar Escherrek eta Graf Speeko marinelek kontatu beharreko istorioa zuten. Hamasei-hamazazpi urte zituzten haietako askok, eta gutxik bezalako fedea Langsdorffengan. Aitatzat zuten guztiek.

Areago, bada Hans Langsdorff kapitainak ez zuela bere buruaz beste egin dioen ikertzailerik ere, Berlingo kantzelergoak berak hilarazi zuelakoari eusten diona.

«Bai ala?».

«Ez duk aurrena izango».

Jarraitu nahi nion hariari. Hitlerren zerbitzu sekretuak Buenos Airesen, Langsdorffen logelaren bila City hoteleko pasabideetan, esbastika gabeko bandera inperial bat tolestuta besapean. Ebaska zabaltzen den atea, beste pistola bat. Es-

kura nituen biografia txatalek ez zuten, hala ere, hori horrela izan zela sinesteko ikerketa lerro fidagarririk eskaintzen itxura batera.

Inondik ezagutzen ez nuen Cori Arroyo izeneko baten e-maila nuen ordenagailuko postan. Bitan pentsatu gabe zabaldu nuen. Argentinako Rosariotik idazten zidala zioen. Graf Speeko marinelen istorioak liluraturik omen zuen bera ere, eta nik eskatutakoari zuzenean erantzuterik ez zuen arren («sentitzen dut, baina ez nuen zuen aitona ezagutu. Galdezka ibili naiz, hemen ez du inork gogoan. Segi bila. Seguru gizon aparta zela, Graf Speeko tripulazioko guztiak bezala»), Julia Grosz izeneko ikerlari batek erdietsitako zerrenda eransten zidan, korazatuko agintari eta marinel guztien izenekin («hahor non duzun aitonarena, hirugarren orrian»).

Agiria jatorrizkoaren kopia zen, bost orrialde eskaneatu eta luzetara aterata, bitan zabaldua bakoitza. Erreskadan zetozen idazmakinaz jotako izen deiturak, eta orri bakoitzak zigilu bat edo bi zekartzan. Zuriune bakoitzaren amaieran, data eta sinadura. Pantailan handitzekoari eman, eta letrak pixka bat desitxuratuta ager-

tuagatik, ez zitzaidan zaila egin Oscarren aitonaren izena aurkitzea. Cori Arroyok esanda bezalaxe, han zegoen Oskar Escher, 1922an sortua Bremenen, marinel huts.

Esker oneko erantzuna idatzi eta berehala eman nion *igorri* ikonoari. Oscar ez zen ari, bistan da, gaiztakeria handirik gabe inoiz burutik pasa bazitzaidan, bere iragana edertzen. Graf Speeren datuak biltzeko antolatu nuen artxiboa aurkitu eta argazkietako bat zabaldu nuen. Nor zen ez nekien, baina zetorkienagatik inongo izurik erakusten ez zuten gazte haien artean zegoen Oskar Escher. Handik urte gutxira Maria Merenson ukrainarra ezagutu orduko maiteminduko zen Oskar Escher, alaba euskaldun uzkur harekin ezkonduko zaion bera. Historiaren uharak biloba berriro ere Europara itzuliko zela jakin gabe hil zen, hemendik ikusita beste guztien antzeko, gehienak gehiago ikusi ez zituen lagunen artean ezkutatzen zitzaidan marinel anonimoa.

Begitarte ezaguna aurkitu nahi izan nuen atoiontziko marinelen artean. Aitonaren antza duela esan izan zidan Oscarrek. Alferrik.

Hurrengo egunerakoak entregatuak nituen. Materiala aurreratzen ari nintzen. Egunak eta gertaerak, behingoz, bat zetozen. Lasai nenbilen alde horretatik, hain lasai non El Vergel egoitzako gizonarenak gogoa har ziezadan utzi nuen berriro. Urduritzen hasia nintzen. Nor zen, baina? Zer nahi zuen aspaldi abandonatutako hilerri hartarik?

Bilatzailean Faustino Ibañez sartu eta izenak arakatu nituen. Beste milioika lagun bezala, gure gizona izan zitekeenaren arrastorik ez sarean. Izen bereko besteen artean ez zitzaidan zaila egin ohartzea han ez zegoela. Faustino Ibañez bat agertzen zen, baina Bilbon, Ibañez Rementeria Faustino, ordaindu gabeko trafikoko isunen zerrendan. Nireak laurogeita hamaika urte zituen eta ezinduta zegoen Iruñeko zahar egoitza berrian, zaila du gurpil gainean radarrarekin jolasean ibiltzeko.

Itsutzen ari nintzen, ezagutzen nuen neure burua, gauza txikiekin obsesionatu eta hutsa behar dut loari orduak ebasteko, ingurukoak ez zaintzeko, urteetan txeraz gordetako harremanak zuloan behera amiltzen uzteko. Pentsatze

hutsak hotzikara sortu zidan. Beharbada azkarregi eman nion baietza Maiteri. Joan zedila egoitzara Oscarrekin, gustura lagunduko zion. Atzerantz egitea pentsatzen ari nintzen telefonoak jo zuenean aldameneko mahaian.

Ez nintzen, agidanean, urduritzen bakarra. Barka eske artean, Maite zen berriro. Ilobak deitu bide zion, joatea erabaki baldin bagenuen arren hutsik ez egiteko esateko, siesta ordua dela, eta gu bagoaz ez dela oheratuko gogorarazteko, zain izango dela, eta zerbait bada deitzeko mesedez.

Ohi baino lehentxeago atera nintzen erredakziotik. Hirian erreparatu gabe egin genuen espaloian aurrera biok. Nik eta nire urdail zuloak. Beranduegi ohartu nintzen. Tanatorioa, ohiko bidetik joanda, bertan nuen. Jende ezagunaren gorpuzkerak sumatu nituen atarian, kalakan eta erretzen. Giltzerdi egin eta etxe artetik, parketik sartzea erabaki nuen, ibilbidea bortxatu eta pixka bat luzatzea, jende artean oinez, burua arintzea, hutsik gelditu arte. Bero handia egingo zuen gau hartan ere, leihoak zabalik lokartzen saiatuko ginen. Etorbide zabaletan ibili nintzen,

hirian ni bezain anonimoak izan behar zutenen bila. Zakurra ateratzera irtendakoen artean paseatu nuen. Espaloietan, arbolen usainpean, giroak tentatutako gazte asko, azterketa egunak ziren arren. Presaka zihoazen bi oin parek aurreratu ninduten semaforora iritsi aurretik. Elkarrizketagatik, zinemara zihoazen. Zebrabide zabal batera iritsi nintzenean, ibilitakoa desegitea erabaki nuen.

Zortziak paseak ziren tanatoriora heldu nintzenerako.

–10–

Begiak biltzen ditudanero, kolore biziz margoturiko altzairuzko amiamokoak ikusten ditut lurrean pikoka, Maite. Eta eremu arrea, ostertzerainoko lekaro soila. Petrolio gordina ateratzen dute zikoinok lurraren hondotik, baina begiratu batera esan liteke azaleko harri aleak jaten ari direla. Amiamokoak eta lurrezko errepide bat haria daramaten posteen barrenetik, gurpil marka bi dituena, hemendik hara eta handik jakin ezazu nora doana: horra nire etxea, Maite.

Eta begiak biltzen baditut hiri goibel bat ageri zait, bere itzalak jasotzen batere lanik ez duena. Etxetik ateratzerakoan, atetik irten orduko zerua buruaz jotzen ez baduzu, besoa gorantz luzatu eta atzamar muturrez ukitzeko moduan datorkizu gainera, horrenbeste jaisten da. Eta lurra beti maila berean, ez gora ez behera, arra bete ere mudatu gaberik, nabarra, elkorra, inoiz bete gabeko hustua, auskalo noiztik.

Horra zer ikusten dudan begiak biltzen ditudanean. Joan eta joan, eta uralita uhinen tanke-

ra hartzen duen lurrezko pista bat, noizka trenbidearen bila doana. Bide zuzenez eta zeharkakoz, geometriak marraztutako basamortua inondik ere. Herrien arteko distantziak gaitzak dira hemen aldean. Halakoetan geltoki batera iristen naiz, Patagonia bizitza berria hasteko paradisua zenean jasotako eraikin txikira, hutsik topatuko duzuna egun, aulkiak berak ere norbaitek ebatsita. Edota errepide nagusiarekin lotuko zaitu bestela, gasolindegi batean ausaz. Hornigailua eta aterpe bero bat, eta atarian, iparretik hegora eta hegotik iparrera *ruta 3* gau eta egun urratzen duten kamioi luzeak, zakurrak hauen itzaletan. Bizpahiru automobil albo batean, herrien izenak eta kilometroak zuriz idatzitako errepide seinale berde baten aldamenean utziak. Kafetegian sartu eta begiak itxi. Kamioilariak kikarak barra gainean dituztela solasean. Teilatupe bakarra orduetan. Begiak itxi eta opil egin berrien usaina aditu, eta ur beroarena, hau bezalako mate bat prestatzeko gertu. Ni hemen nagoen bitartean, munduak aurrera jarraitzen du beste nonbaiten, pentsatu izan dut urteetan.

Hala ere, baliteke beste norabait jotzea, eta txarrantxazko hesi batera iristea, eta estantziako langa morroilotua aurkitzea oinei, autoei, *pick up*-ei bidea oztopatzen. Txiletar peoi bat agertzea inondik ez, zer nahi dudan galdezka, eta hildako azeri bat ikustea alanbretan katigatuta, tiroz hila. Maiz hodeiek ardien itxura izaten dute, eta barre egiten diotela dirudi piztia gatibuari.

Halako gauzek ebasten didate akordua begiak biltzen ditudanean, Maite. Entzuna izango duzu lehendik ere etorkin guztiok zarratzen ditugula begiak egunero, oroz gain hasieran, etorri berri garela, begiak itxita bizitzeko behar duzuna ematen dizutelako, hobeto ikusten delako aurrean duzuna. Ez da, baina, jendeak pentsatzen duen bezala hemengora ez moldatzeko, hemengora moldatzeko hangoaren beharra dugulako baino. Bakardadeak, badakizu, bakarrik bizitzekoak dira, ez dago loturarik bataren eta bestearen bakardadeen artean.

Begiak itxi eta azken urteetako hegoaldeko lurralde elkorra bai, baina haurtzaroa ere badatorkit, umetako usainak, hotsak eta koloreak, eta nerabezaroko irudiak haien gaineko azpildure-

tan. Halakoetan betetzen zaizkit begiak, aspaldiko deien oihartzun lainoekin, ez hainbeste azken urteetakoekin. Zuk, gogoan duzu noizkoa duzun zure bizitzako aurreneko oroimena?

Nik ez. Lehen, orain dela urte batzuk, banekiela zein zen esango nukeen, baina etxe bihurtu zaizkizun oroimenekin batera eta bestera zabiltzala, egunetarako etxetik kanpo joaten zarenean bezalaxe gertatzen zaizu, beti dago galduta dagoen orrazia, edo galtzerdi bat, edo paper bat, berebiziko oharrekin inondik agertzen ez dena, eta nola ez dakizula, astebetegarrenera lehendik hamaika bider begiratutako tokiren batean azaltzen dena. Hala gertatzen da oroitzapenekin ere, Maite. Zein da aurrenekoa? Zein ondorengoa, lehena, azkena? Hau ez al zen han bizi ginenean gertatu? Zein dago zeinen azpilduran? Nork daki noiz eta non agertuko zaizun hurrengoa?

Begiak bildu, eta Olavarrian nago, izebaren etxean. Lau bat urte ditut, hara joaten ginen udetan-eta, Buenos Airesko bero sapatik ihesi. Etxe atzean, zelai eder bat zegoen, behor bat zuela beti bertan. Hesiaren bestaldean beste

etxalde bat, gurearen aldean apala, zuriz margotua, oholezko hormekin. Teilatua uralita gorrizkoa zuen, hegal aldera doi bat zapuztua, txabola bat ere estaltzen zuena. Neure adineko mutil bat bizi zen bertan. Lo egiten nuen gelatik haren leihoa ikusten nuen, eta oiloak etxe inguruan. Eroa zuen ama. «Burutik egin zaiola esaten dizut!» entzuten nuen ari zirela beheko solairuan. Banekien norengatik ari ziren. Behin baino gehiagotan entzun nuen istorioa, harrezkero omen zebilen horrela. Izeba datorkit, kontatzen: «Senarra urrutira joan zitzaion, lan bila. Denbora pasa eta gizonak hiriaren kanpoaldera jotzen omen zuen, zelaiak hasten ziren tokira. Horren beharra zuen, antza. Mugetaraino iritsi, ordu batzuk eman edertasun hari beha eta, barnera berriz. Behin, hiriak berak nahi baino estuago lotzen zuela ohartuta, bere burua bota zuen etxe handi batetik behera».

Harrezkero omen dago honela.

Haurtzaroa itzultzen zait, Maite, zoriontsu izan nintzeneko udak, eta urrun nagoela begitantzen zait, zalantzak sortzen zaizkit, zer egiten dudan hemen, ongi egin ote dudan etortzeare-

kin, zer egiten dudan hemen nirea ez den jendearekin, lau urte hemen bakarrik, lau urte eta oroitzapenen mina gozatu ezinik oraindik.

Horregatik, begiak ixten ditudanean usainekin egiten dut jolas, betazalak estuegi ez zarratuz gero argiak ninien barnealdean sortzen dituen itzalekin jolas. Begiak ixten ditudanean zaporeak darabiltzat buruan, eta nahikoa da bat, nahikoa da mila gerezi artean berezi bat egokitzea gogoa lanean hasi eta berriro ere haurtzaroan desegiteko. Gero, denbora ematen dut oroitzapenak antolatzen. Arrastoari segika, gogoak gordetzen dituen guztiak ez zirela benaz horrela gertatu ere, ondorioztatzen dut.

Begiak itxi eta beti ez naiz baina gauza haurtzarora itzultzeko. Orain, konparazio batera, begiak itxi eta mate egin berriaren usaina heltzen zait, oraindik esku artean hartzen ausartzen ez zaren belar berotuarena, eta asko hurbiltzen zatzaizkidanetan, baita zeurea ere. Egur usaina duzu, belar urrintsuena, euriak bustitako enbor azal beroarena. Horrelakoetan, zure adats azpian gordetzeko gutizia sortzen zait, eta musu aldea azalaren kontra, denbora pasatzen uzte-

koa, geldi, zure usain begetal helduan lo. Egun batez, nahi gabe, atera egin zitzaizun izena, Karlos esan zenuen. Horregatik dakit badagoela norbait zu gogoan zauzkana nirekin zaudenean ere, ni bezala, ni limurtzen nauen usain berberean galtzen dena.

Aita hil zenean, baina, zoriontasuna joan egin zen, Maite, katua aizarora bezala. Ordura arte zoriontsuak ginen bizitzak ez zigulako harririk ekarri, aita bere zapatekin, uhalekin, maletekin lagata oporretan Buenos Airesko lamadatik urruti Olavarriara joaten ginelako, baina batez ere ez zelako etxeko inor hil. Hori da ordukoaz uste dudana, ongi dakidan arren ez dela orduan benetan sentitzen nuena, baina hori du denborak, zur gainean paper latza pasatzea da. Orain dena da leun, gozo, adeitsuagoa.

Aitarenak ate bat ireki zuen, eta atalase hartarik sartu zitzaizkigun inon diren piztia eta ozeano hondoetako munstro guztiak lur eman orduko. Atelier txikian zituen makinak merke eman ostean etxea bera saldu behar ote zen pentsatu genuen, metro eta plano, tasatzaileak bertaratu zitzaizkigun, altzariak hormaren kontra jartzen

hasi ginen, mantak eta izarak zituztela gainean, ustez geure iragana ere babesteko, baina azkenean ateratzea lortu genuen. Arrebak eta biok ikasten jarraitu ahal izan genuen. Amak negar asko egiten zuen garai hartan. Esaten da emakumeek errazago daramatela alarguntasuna. Gureak gaizki zeraman oso senarra ez aurkitzea etxean sartzen zenean, behar zuen, nola petraltzen zen ikusteko bazen ere. Biak zuria eta beltza bezain igualak izanagatik, mira zion gure amak aitari, eta zer galdu zuen ohartu baino lehen, gabeziak panparen zabalera hartua zion, mendien abarorik gabe ehunka hektareatan. Bakardadeak gogor lotu zuen. Ahalegintzen zen guk ez ikusten lanetik bueltan erortzen zenean gelan sartu eta atea giltzatuta, zotinka hasten zenean. Badakizu, haize firrintak baino aiseago entzuten dira malkoak ate azpiko zirrikituetatik.

Zoriontasuna galtzeak piztu beharra esan nahi duela ikasi nuen. Amaren lan berriak eta guk auzoan harremanak estutzeak Olavarria iraganera kondenatzea ekarri zuen. Aitaren aldeko osaba-izebekin genuen tratua hozten joan zen, seguru asko inork nahi gabe, eta aita hil zenez

geroztik ez dut uste hirutan ere itzuli ginenik. Nerabezaroa atzean gelditu zen haurtzaroarekin batera zabaldiko estalpe haietako batean zokoratuta. Bi maleta elkarren gainean, ailorbe eta esne mikaztuaren lurrinetan bilduak.

Itzarririk zaude? Egon, utz iezadazu ongi tapa zaitzadan, hoztu gabe, ohartu orduko dugu hemen egunsentia. Bildu begiak, egin lo, Maite. Institutuan Giselarekin ateratzen hasi nintzen. Ilusio eta jolas haien azpilduren artean gorde nuen aitarena, neure buruari erakutsi nahian maitasuna heriotzari beti gailentzen zaiolakoa. Inoiz ez zidan esan begi tristeak nituenik, eta pozten naiz. Bi urte egin genituen elkarrekin.

Garaiaren seme-alaba gara, ordea. Dena ez zen musu artean gozatzen, laztan eta txera gozoak ez ziren nahikoak aita zenaren irratitik zaunka atera zen diskurtso hark ekarriko zuen uhara eztitzeko. Unibertsitarioak eta langileak baziren gehien mugitu zirenak, olatuak berehalakoan harrapatu zituen bigarren hezkuntzako institutuak ere. Geure artean biltzen hasi ginen, eta Gisela begi hezurra baino maiteago nuen arren, ez nuen maiteminduta bizi nahi, libre

behar nuen iraultza peronistan gogo eta bihotz aritzeko. «Inor ere ez maiteegi nigatik sufritzeko», lotsatu egiten nau oroitze hutsak, baina hala genuen orduan zabaldua lagunen artean.

Berehala izan genuen frogatzeko aukera. Goiz batean, Osvaldo betirako ezkutatu zen. Mihi gaiztoei aurrez entzunda genuen bezalaxe gertatu bide zen: matrikularik gabeko *Ford Falcon* berde ilun bat agertu zen auzoan. Gurpilek intziri egin omen zuten galipot berotan. Ate hots presatua. Bortizki zabaltzen den kofrea. Bertara igotzeko agindu zioten. Larunbat goiza zen eta Buenos Aires argazkietan hartzeko modukoa zegoen. Auzoan denek ikusi bazuten ere metraileta laburrak zituzten hiru gizonek behartuta Osvaldo Fossalto automobilean sartzen, inork ez zuen ezer ikusi.

«Osvaldo eraman dute», ahopeka.

«Nor?», atzerantz begira, itzalari.

«Osvaldo... Luciano Fossaltoren semea...».

Horrela ziren gauzak orduan *potota*-rekin.

«Ez badu ezer egin itzuliko dute...».

Kontua da ez zela, ez zutela inoiz itzuli, Maite. Osvaldo kea behelainopean bezala ezku-

tatu zen. Ia hogeita hamar urte daramatza agertu gabe. Fossalto aitak, Lucianok, egunero jartzen omen du oraindik plater bat gehiago mahaian.

«Ez badu ezer egin agertuko da».

Bi deabruen teoria nagusitu zen baina; alegia, militarra gaizki ari zela, baina *joan zutena* ere ez zela aingerua. Mugitzen hasi ginen, geneukan adin motzerako gehiegi ikasi genuen. Osvaldo ez zen bakarra. Eta nik, Maite, ikusi egin nuen. Nik Osvaldo ikusi egin nuen, bizirik.

Bera desagertu eta laburrera eraman ninduten ni ere, esanda bezalakoxe auto haietako batean. Poz bakarra, Gisela gabe izatea. Club Atlético deitzen zen atxiloketa gunea, Lezama parketik bertan, badakizu, Sabatoren *Heroiez eta hilobiez* hasten den tokian, Cochabamba eta Colon pasealekuen artean. Gero, Bocan barrena Avellaneda, Quilmes eta La Platara doan autopista eraiki zuten gainean. Hotz egiten zuen neguan, gogortuta gelditzeko hotza, eta hezetasuna berriz, edozer usteltzekoa. Hormetatik behera zetorren estoldetako ura kaletik. Argirik ez lanparena ez zena. Hantxe ikusi nuen Osvaldo.

Ilunabarra zela atera dut kontua, zaindarien afari usainagatik. Sudur mizpirak zabaldu. Begiak bildu eta usaindu.

«Oscar, hi haiz?», galdetu zidan ahots batek ziegako atepetik. «Hi haiz? Ongi hago?».

Beldurrak akabatzen nengoen, ez nuen erantzuteko adorerik batu. Gainera, han ez nintzen Oscar, D-048 baizik. Denok ginen letra eta zenbakien konbinazioa Club Atléticon. Baina ezagutu nuen ezagutu nuenez, banekien Osvaldo zela, banekien zaindariek C-123 hots egiten zioten ahots hura Osvaldo Fossaltorena zela.

Lehoitegia deitzen genuen ziega komunean sartu ninduten batean ikusi ahal izan nuen. Oinetakoak baino ez, begiak itsu bilakatu zizkidan bendaren zirrikitutik, bera zen, bereak ziren gerturatzen ikusi nituen zapata zartatuak, ezagutzen nituen. Eskuetatik heldu zidan hitz egiten hasi orduko, esku hotz batzuk barruan neraman piztia gozatu nahian. Hamazazpi urte baino ez nituen. Lasai egoteko esan zidan, aterako ginela handik. Bizirik aterako ginela. Dardara batean, erori egin nintzen, aztunpa bezala negarrez hasi nintzen lehoitegian geundenon guztion aurrean,

Maite, nahiago nuela hil. Orduan bera izan zen amildu zena, barkatzeko erregutu zidana, barkatzeko nire izena eman izanagatik. Ez nion neuk ere banuela zer ezkutatu aitortu, nik ere Gisela-rena eman nuela elektrizitatea barrabiletatik gora, zainen sarean barrena giltzurrunetan lehertzen imajinatzearekin bakarrik. Ez baininduten ukitu ere egin, Maite. Izua bera nahikoa izan zen mihiari herdoila kendu eta hizketan hasteko, nekien guztia ibaika esateko. Gure adineko neska batek jaup egin zuen izkina batetik. Pixa usaina jasanezina egiten zen, ez esateko horrelakorik, ez jarduteko horrela, mesedez. Gizakiak ginela, piztia bihurtu nahi gintuzten gizakiak. Haurdun zegoen eta bi egun omen ziren ez zuela sabelean kolperik sumatzen.

Hura izan zen Osvaldo ikusi nuen azken aldia.

Itaunketa gelan behin baino gehiagotan gogoraraziko zidaten Osvaldo bera izan zela salatu ninduena. Bisita neukala jakinarazi zidatenean azkena, atxilotuok Otelo deitzen genion sarjentu handiak.

– Zorteko haiz, gazte.

Osaba Frans zen, polizian zituen lagunez baliatuta Club Atléticon automobilen ate handitik barik ondokotik, oinezkoentzakotik sartzea lortu zuena. Azulejuz apaindutako gela batera igo ninduten, iritsi eta batera zenbakia, D-048 eman zidaten bertara. Kristalezko ateak zituen, eta egurrezko mahai zabal bat. Mahaian, idazmakina bat, Argentinako bandera, eta hauek zaintzen bulegari lana egiten zuen txakur argal bat, tipula baino luzeagoa, eskuak tekla gainean beti. Ez genituen hamar minutu baino gehiago egin. Elkarrizketa ez zen samurra ere. Ama ongi zegoela azaldu zidan, ea zergatik ahalegindu nintzen gauzak hainbeste zailtzen, «bizitzea errazagoa denean». Ia ezer esan gabe jaitsarazi ninduten, torturatuen oihuak ez entzuteko jartzen zuten musikak betetzen zuen gela. Ostera ere zulora eskaileretan behera nindoala jabetu nintzen bizirik aterako nintzela.

– Hire lagunek, D-048, bazakitek zeinen lapikotxiki haizen? Ez dik lotsarik ematen?

Itxi begiak, Maite, itxi ongi, ez zaitez atera loaren besoetatik, segi ezazu begietan argirik sartzen utzi gabe. Hangoa nola amaitu zen, badaki-

zu. Pasa da, hemen nago, orain hemen naukazu laztan nazazun, eman diezadazun orduan Osvaldoren esku urduriek, inork eman ez zidan beroa. Ez dakit kontatu dizudanetik zer entzun duzun, noiz eraman zaituen loak eta bakarrizketan aritu naizen, edo begiak bilduta, plantak egiten egon zaren, izuaren barrenera ni eskaileretan behera bezala jaisten.

Urteak dira ez diodala hau inori kontatu, nori baina, nori ez badut izan. Ez zen Osvaldo izan gehiago ikusi ez nuen bakarra, Maite. Haurdun zegoen neska lehoitegian egon eta bi egun geroago eraman zuten ibaiko arrainen buztanak ikustera. Giselaz dudan azken irudia, berriz, institutuan da. Banderaren eguna zen. Patio zabalean agur egiten dit, ikaskideak ditugula inguruan, liburuak besapean dituela eskua ezpainetara eramanda agurtzen nau, berak ez daki, neuk ere ez nekien, betirako.

–11–

Zuhaila kanpo hormetan, ilunagoak teilatuko metal xaflak fatxadan behera, kubikoa izanagatik neurrikoa, kanpotik beste nonbaitekoa dirudi hemengoa baino, akazia hazi, izei bezatu eta zelai zaindu artean arkitektoak eztiki utzia. Argitsua, hirian bertan dago, eguneroko batetik besterako joan-etorrietatik urrun. Ezarri dioten izenaren jabe da, El Vergel. Zozoak inguruko zelaietan. Hesi aurreko estratatik, ertzetako belar zantarren artean, neska gazte bat dabil txakurra pasierara aterata.

Atariko toldopeko aulki gorrian aurkitu genuen iloba behar zuen emakumea. Ordu-orduan iritsi ginen. Beldur nintzen, esku-estutzea ez zen hotzegi gertatu ostera. Tartea zainduagatik, eta hamaika horrelako janda naizelakoa esan dezaket, ez nion errezelo gaiztorik hartu.

– Biok zabiltzate orduan han lanean?

– Biok –erantzun zuen Maitek niri begiratu gabe.

Gezurraren arrastoan sartua, berari utziko nion etor zitezkeen galderei arrapostu ematen, baina beharrik, ez zen besterik egon. Hirurogei bat urteko emakumea zen, sotila eta, itxura batera, lana beltz egindakoa: eskuetan zuen ezagun. Presaka zen, antza. Edo bestela ez zuen gehiegi luzatu nahi. Eskaileretan gora gindoazela, osabak Faustino duela izena azaldu zigun, ez duela seme-alabarik ez seniderik, ilobak bai, «bakan batzuk,» eta telefonoz Maiteri esanda bezala, etxean alabak nik idatzitako erreportajea irakurri ostean piztu omen zen «su txiki hau», esan zuen. Isilik egotea zegokidan, gezurrei ekinda, ezin aitortzen hasi ni nintzela egilea. Karraju argian aurrera gindoazela, aurrez esandakoak errepikatu zituen, gerra osteko kontu bat dela, «osabak ezagutu zuen emakume bat, han lur eman ziotena». Zaintzaileetako bat agurtu eta entzun ez baina erraz interpretatu nuen zerbait galdetuta, egindako bidetik itzuli ginen. Ezkerretara jota, besteak baino zabalagoko ate baten aurrean gelditu ginen azkenik.

– Ez gara luzaro egongo –gaztigatu zigun–. Arrunt zahartua dago gizona, ez da nekatzea komeni.

Baietz erantzun zion Maitek, nola bada, ez ginela inori gogait eragitera etorri, entzun beharrekoa entzutera baizik.

Lau lagun baino ez zeuden egongela zabalean. Karta jokoan bi, telebista itzaliaren aurrean hirugarrena. Faustino leiho ondoan genuen zain, kristalaren bestaldetik sartzen zen udaberri arratsaldeko argitan.

– Hauexek dituzu, osaba.

Gurpildun aulkian zegoen eseria, artilezko jertse gris mehe bat eta txandal praka urdin batzuekin. Akitu itxuraz, kirola egitera behartzen dutela aitortu zigun, («garai batean gazteak fraidekietan bezala, buruak lanik egin ez dezan»). Iloba atera zen orduan, zakarregi («ez ezazu astapaolarik esan»). Betaurreko handiak zeramatzan, kristal nabarrekoak. Iharra zen gizona, zaintsuak eskuak, zimurrek zizelkatutako aurpegi luzexka, zuria eta eroria. Arnas hots ozenen artean begiradak ihes egiten zion, esan beharre-

koak etorri berriekikoak baino garrantzi handiago duenean bezala.

– Eseri, eseri –gonbidatu gintuen–. Ezin dizuet deus eskaini, hemen, badakizue...

Laguntzaileetako batek telebista piztu zuen. Nor berera, gonbidatuak kalaka. Entzun ez nion zerbait murtxikatu zuen ahopean Faustinok.

– Larraingainen zabiltzate orduan.

– Ez han bakarrik...

– Irakurri zidaten zertan ari zareten.

Aldameneko mahaitxo baten gainean zegoen gutunazala gertura zekiola eskatu zion ilobari. Argazki zahar batzuk atera zituen barrenetik.

– Hau naiz ni –esan zuen erakutsi nahi ez zuen erretratu bati ezin itzuri eginda, koadrila batean muturreko gazte argal bat seinalatuta.

Zubi gain batean zeuden, ibai handia zutela atzean. Ondoan *glaces* zioen gurditxo bat, zuriz jantzitako gizon bat tiraka.

– Non zaudete, Frantzian? –ausartu nintzen galdetzen.

– Okzitaniako Tolosan.

– Aspaldikoa da.

Azpialdean behatzeko agindu zidan.

– Noizkoa jartzen du?

Esku dotore batek ifrentzuan lumaz idatzitakoa irakurri nion:

– Toulouse, 1943.

– Hala izango da orduan, 43koa –errepikatu zuen–. Pont Neuf deitzen diote, Garona gainean. Ederra ibaia.

(Argazkigintza: irudiak gelditzeko makina denbora gelditzekoa ere bada).

– Frantzian zinen 43an? Lanean? –bota nion.

Ez nuen lo harrapatu.

– Beste lan batzuetan.

Ohartzen hasiak ginen. Faustino uharte txiki bat zen egoitza aseptiko hartan, besteengandik askatu eta aulki eta guzti ibaian behera zihoan iceberg bat. Geu aurrean ginelako hasia zen berregiten historia txatala. Etxekoak gogaituta zeuzkala hamaika bider entzunda, behar zuen kontatu ostera bizitako hura betirako gal ez zedin.

– Entzun...

Ezarian zetozkidan Ibañezen biografia osatzeko behar nituen datuak. Azalpena hemen, ziztada humano bat han. Nahasian, flashak eta ze-

haztasunez doitutako gertakariak, nahitaez ordu laurden edota hiru minutu lehenago esandako pasadizo batekin lotu behar nituenak, entzulearen lana zen hori. Ilobaren ezinegona sumatzen hasiak ginen, eta Faustino klandestinoaz osaturik nuen marrazkia oso ahula zen artean, zirriborro lauso bat.

Sartu ginenean baino hobeto nengoen behintzat. Zerbait bagenekien. Aditzera ematen ari zenagatik makian ibilia zen, ez ausaz mugaz bestaldetik igaro eta mendi aldeko erasoetan, ez zuen horren argi esan, baina bai gutxienez laguntzen, Gipuzkoa, Bizkaia, Kantabria eta Asturias aldetik zetorren jendea bestaldera pasatzen, mugalari lanetan.

– Bidetik atera gabe osaba, ez dira zure bizitza entzutera etorri. Esaiezu zer nahi duzun.

Bazen solasaldi hartan ilobak harrapatu ezin izan zuen zerbait, ordea. Orain eman, orain eten, orain enpatxatu, mataza egiteko batere samurra ez zen haria zen Faustino siesta ordua amaituta aretoa jendea betetzen hasi zenean. Haurrek arrunt urduritzen zutela konturatu nintzen. Inoiz umerik hazi ez duen pertsona bat izan behar

zuela begitandu zitzaidan. Ez nion galdera hori egingo.

Beste argazki bat hartu zuen.

– Begira, hau da Juanita.

Lau ertzak higatuak zituen argazki zuri-beltzezkoan, gazte talde bat ageri zen, festa giroan itxuraz. Aurpegi ederreko neska baten gainean ezarri zuen atzamar luzea. Mutur batean, berriro ere argazki hegian irribera, Faustino bera, ezkerreko eskuan duen botila batetik edontzi batera ardoa dirudiena ateratzen.

– Zer Juanita da? –ilobak.

– Hauxe da ba Larraingainen dagoena! Juana Ardanaz.

Faustino bera bazen jardunaren muina, berehala ohartu ginen erretratu hartan batzen ginela denok agurearen gogora, soineko estanpatuz eta oinetako ilunez jantzita ageri zen emakume haren bitartez elkartzen ginela laurok etorkizun gertuko ez dakit zein plazatan. Maitek eta biok hala erabaki eta nahi bagenuen, behintzat, zain genituela Juana eta Faustino.

– Ez dut Juana agertzen den besterik.

Ardaila gelan gero eta itogarriagoa zen, eta ez Faustinorentzat soilik. Lasai hitz egiteko aukerak unerik une erretzen ari ziren. Inguratuak geunden. Itxura guztien arabera, ez genuen egunik egokiena aukeratu. Larunbat arratsaldea familiaren kontzientzia lasaitzeko ordua zen.

– Atera nazazu hemendik –agindu zion ilobari, aulkia higitzeko keinua eginda.

Argazkiak azalean sartu, altzoan hartu eta pasilloetan barrena abiatu ginen txoko lasaiago baten bila. Zergatik ez ginen gelara igotzen proposatu zion ilobak. Laguna omen zegoen bertan («erreketeen Lacar tertzioan ibilitako bat, sinesten lanak ditu niri tokatzea ere»). Bi eraikinak batzen diren pasabide kristalduetako batean agertu ziren behar genituen aulkiak eta mahaia. Arantzadiko estrata ikusten zen bertatik. El Redín eskola harantzago. Kepixaz eta makila eskuan zuela, egoitzako gizon bat, Txantrearantz oinez.

– Nora doala uste ote du horrek...

– Zer zenioen Juanaz? –galdetu zuen Maitek haria galdu baino lehen.

– Han dagoela lurperatua, Larraingainen. Atera egin behar duzue.

– Han bada ez dugu han utziko, zaude lasai.

Bekozkoz begiratu zion. Eskua aihotz.

– Kanpoan dagoela, *putain*.

– Nola kanpoan?

Saiheskia mozten ariko balitz bezalako tanka ostera ere aulki ertzean.

– Hilerri kanpoan. Hainbeste jogurtek burua umetu egin dizue ala?

Arrazoi garbirik gabe petraldua zen. Elkarrizketa hura zegoenean uztea zela egokiena aipatu zuen ilobak. Joateko agindu zigun. Sakonagoak egin zitzaizkion zimurrak lepoan.

– Zaudete!

– Hauek ez dakite zertan zuk beste jakin –ahalegindu zen lasaitzen–. Dena azaldu beharra diezu. Bestela badoaz.

Lasaiago ekin zion handik atzera, ez zela gizon bera esan zitekeen. Haatik, hobe denontzat, ez zen barkamen eskerik egon. Ez zen beharrik izan, elkarrizketak berak ekarri zuen solasa bere bidera, eta hala jakin ahal izan genuen Juanaz ondorengo egunetan jakin izan genuen

guztia. Sortzez Larraingaingoa zela, baina Iruñean zebilela lanean gerra ostean. Faustino eta lagunak ezagutu eta tarteka hauen sare klandestinorako ere lantxoak egiten aritu zela. 1944ko neguan hilik agertu zen, «hemendik bertan, ibaian». Bere buruaz beste egin zuelakoan, sorterrira eraman eta hilerriko hormatik kanpo ehortzi omen zuten. Hura ez han ahazteko esateko deitu zigula, ateratzeko handik urtegiak betirako azpian zapuztu baino lehen.

– Inork gutxik gogoratuko du hura han dagoela. Nik bai. Bada sekula ahazten ez den jendea.

– Eman diguten zerrendan agertuko da.

– Elizarenean? Esan dizuet, atzo jaioak ematen duzue. Juanitak ez zuen bere burua bota.

Artzapezpikutzatik ateratako orria zen genuen bakarra.

– Hil egin zuten.

Isilune pisua.

– Hil egin zuten –esan zuen berriz.

– Nortzuek? –sartu zen larritzen hasia zen iloba.

Betaurrekoak kendu zituen. Arrosatuak zituen begiak, amaraun likidoa niniak biltzen. Isilik

gelditu zen. Aurrean nuen baina denboraren beste gelaren batera joana zen. Beharra, gosea, heriotza. Nerabeek harria jaten nola ikasi zuten ikusten ari zen, jaiotzen zirenean oilaskoek baino gutxiago pisatzen zuten haurrak, gorrotoa eta larderia erakusteko hamaika bide.

Kanpoan, katu batek sare gainetik egin zuen.

– Seguru jakin ezean, ez dago ongi izenik ematea –gaineratu zuen emakumeak.

– Isilduko al zara?

– Eta familiarik, badu? Alarguna, seme-alabak?

– Seme bat zuen, Juan Antonio, baina Ameriketan bizi da.

Argazkian Juanak ez zuen itoek izaten duten begitartea. Alai ageri zen, zazpi-zortzi bat urte izango zituen haur baten aldamenean.

– Hauxe da Juan Antonio.

Nekatua zegoen. Joatea genuen onena. Argazkia eskatu nion, ea utziko zidan kopia bat egiten.

Kanpoan, zuhaitz gerizpearen bila ekin genion. Hitzordua zuela-eta, oinez egingo zuela Txantrearakoa esan zidan Maitek. Zer egin behar

nuen nik. Estiren gurasoenera joatekoak ginen merienda egitera, hala genuen ohitura hartua hamabostean behin, aitona-amonek umeaz ere goza dezaten. Erlojuari eman nion begia. Mugitu beharra nuen helduko banintzen. Zubiraino lagunduko niola agindu nion. Arantzadiko estratan aurrera, itzal gozoa ematen zuten akaziek, indi gaztainek eta abantzu eskola parean adarrak zeruan katigatuta zituen zumar bakartiak. Baratzeetako negutegiak. Zelai argien errea. Hitz gutxi egin genuen ibaira bitartean. Begiko nuen inguru hura: Toscanakoa dirudien Irujo etxea, egun lantegi-eskola bilakatua; honen atzean Maurice Ravelen lagun frantximantek kostaldean edo Amikuzen laketzeko moduko etxalde *neovasco* bat; aurrez aurre, Galiziakoa izan daitekeen garaia, lau isurkiko teilatu eta guzti, eta Arga hegian, kaputxinoen komentuaren bestaldean, Karpatoetako baserria: Europako landa arkitekturaren buketa, ehun metroan bildua.

Agurtu aurretik, argazkia atera nuen gutunazaletik.

Biok begiratu genion Juanari.

Bioi begiratu zigun Juanak.

– Zer tankera hartzen diozu?

– Ez dakit.

Egoitza behealdean, japoniar gereziondoen azpian utzia nuen autoa hartzera joan nintzenean, Faustinoren itzala ikusi nuen errezelen bestaldean, Maitek eta biok agurtu genuen tokian bertan. Harri bat jo nuen ostikoz, hotsa entzun zezan. Iloba zuen atzean. Eskua altxatu eta diosala egin nienean, bietako inork ez zuen imintziorik egin.

–12–

Norberarekin eraman behar hori, hildakoak diot. Badu gaitzetik dauden zuloak hutsik utzi eta katabutak bizkarrean lotuta geure egin izan ditugun parajeak abandonatu beharrak, nork daki nora bidean. Eta horretan zebiltzan, bakoitza bere erara, hilerrietakoen senitartekoak bai, baina baita Maite eta Oscar ere, lanbideak berarekin daraman beharrak horretaratuta. Ni ere, Faustino Ibañez ezagutu nuenetik, ez nenbilen oso aparte. Hor banuen beste istorio bat, eta hau ez zen Escher eta Langsdorffena bezain urrunekoa egiten.

Baziren bi aste ez nintzela Rochetik pasa, ez niola Estebani deitu ezinezkoa zitzaidala esateko ere. Nik ere banekien nahi gabe zabarra izaten.

Juana Ardanaz Larraingaingo hilerriko hormaz landa lurperatua zegoen, itxura batera hazita zetorren Argara bota zuelako bere burua 1944ko egun lauso batean. Istripuarena, baztertu beharreko hipotesia zen. Hala izatera, ez zegoen arrazoi argirik kanpo aldean hobiratzeko.

Nik hasieratik hartu nion egia itxura handia Faustinoren bertsioari, zergatik hasiko zen gezurretan gizona, kontatu zigun bezala kontatuta gainera, begi hotzak su hartuta. Bestalde, suizidak lur bedeinkatutik kanpora ehorztea orain arterainoko usadioa izan da Eliza Katolikoarentzat. Bere buruaz beste egin zuen ala esku batek eutsi zion urpean birikak ur hormatuz bete zitzaizkion arte, horretara jarrita ere sekula argituko ez nukeena zen. Azken beltzean, hain munta handikoa al zen? Han zeuden Ezkabako gotorlekuko hilerriko guztiak, ilaran, eguzki eta elur, haize eta sapa, gaixorik edo tiroz hilak, borondate ukaldi batek noiz aterako. Gerraosteko Iruñean hamaika halako izango zen, irabazleen harrokeriari jaten eman behar-eta. Maitek gorpua lurpetik ateratzeko ahalegina egingo zuela, ez nuen zalantza izpirik. Baina hori, ahalegina. Ez zuen erraza, zer esan behar zion hustutako herriak suntsitzen ari zirela hartutako jarrerarengatik gero eta kritika gehiago jasotzen ari zen enpresari? Burura ekartze hutsa ezinezkoa zen: «Begira, bada ia ehun urteko agure bat Iruñeko zaharretxe batean Larraingaingo hilerri kanpoan eza-

gun bat duena, berrogeita lauan hila, bai, inon ageri ez den gorpu bat, eta makinak eta langileak behar ditut hura handik ateratzeko, ezin dizut esan zenbat denbora beharko dugun, zer esango dizut, lau-bost egun, eta hala ere ezin esan seguru agertuko den».

«Hilerri kanpoan, non?».

«Non da hor nonbaiten?».

«Han utzita ere, zer? Historia aldatuko al duzu horrekin? Ez da gerra garaikoa ere!».

Astearte hartan, neure buruari lehentasun gisa huraxe jarrita agertu nintzen Rochera. Beti bezala zegoen guztia. Hormetan, Afrika mendebaldekoak ziruditen kolore biziko margolan *naif* berak, sinatu ez zituen esku batek margotuak. Gizakirik gabeko paisaiak, kostalde berdeak, orban hori batzuk. Komunera igotzeko atean iltzatutako kontzertu, hitzaldi eta gainerakoen afixek salatzen zuten soilik denboraren ihesa.

Esteban bakarrik zegoen.

– Agertu haiz. Deitzekotan izan ninduan bart gauean. Hau hiretzat nian gordea.

Ilundutako marmol zurizko mahaiaren gainean utzi zuen orriak bere burua kizkurtzera

egin zuen, papera hezetasunak hartzen duenean bezalatsu.

Inork ikusteko beldurrik gabe zabaldu nuen:

«George Steer britainiar kazetaria *The Times* egunkariak igorrita heldu zen gerrara. 1937ko apirilaren 6a zen, asteartea, Donibane Lohizunetik atera zenean HMS Beagle ontzian. Itsaso zabalean Almirante Cervera gurtzeruak eta Admiral Graf Spee korazatuak Bilbora jangaiak zeramatzan Thorpehall britainiar zamaontzia geldiarazia zuten. Gertaeraren berri izan zuenean, torpedoak igoarazi eta hau askatzera abiatu zen HMS Beagle. Halaxe jarraitu ahal izan zuen aurrera Thorpehallek».

– Nondik atera duk?

– Kazetariok gauza bat duzue txarra: ez dakizue adiskidetasuna eta lana bereizten.

Atlantikoko abenturari ekin baino ia bi urte eta erdi lehenago frankistei laguntzen ibilia zen beraz Graf Spee Bizkaiko Golkoan, Bilbora kanpotik sar zitekeen edozein laguntzari bidea blokeatzen.

– Gaixo Langsdorff! –Estebanek irri txikia disimulatu gabe.

Urteengatik, Oskar Escher ez zela orduko hartan tripulazioan ondorioztatu nuen. Gazteegia behar zuen artean, hamalau bat urte. Eta zer. Garratzetik izan zezakeena kenduta, banuen aitzakia polita Oscarri adarrean zerbait esateko. Azken batean, ez zen Hego Hemisferioko abentura hartan hemen egiten ibili zenaz oso bestelako zerbaitetan ari Graf Spee. Jaurlaritza setiatuak kanpotiko laguntzarik ez zezan jaso ahalegintzen hemen; han ontziak ozeano hondora bidaltzen, Estatu Batuetatik Britainia Handira armak eta populazioak behar zituen bizigaiak hel ez zitezen.

– Eta beste gauza bat –jarraitu zuen–. Nik ez zakiat zen edo ez, baina hire Langsdorff hori, maite ditek Blood&Honour-eko kaskauts horiek. Lardaskan aritu nauk, eta sinetsidak, estimu handitan ditek.

Beti izan du Estebanek oso berea historiaren azpilduretan galtzea.

– Galdera bat badiat hiretzat –esan nion.

Kikara hutsetik koilaratxoa hartu eta esku artean jolasean nerabilela egin zuen kokotsaz keinua.

– Bota.

– Hildako baten bila nabilek.

– Beste bat?

– Hau gurea duk.

Mahaian bi kafe pausatzen dituen esku ezagun bat, ke mehea dariola.

Juana Ardanazez Faustinok esandakoa xehatu nion, hark kontatuta bezalaxe. Esteban ez zen harritu, banekien antzeko gehiago entzuna zela. Ordainetan, makiak ekintzaileak Iruñetik Pirinioez bestaldera pasatzeko zuen sareaz hitz egin zidan, hirian jendea hartzeko zeuden etxeez, Iratiko trenaz, Agoitzeraino erabiltzen zutena. Gero, igarobideak, «lau bai gutxienez», eta Graf Speez eman zidan papera hartu eta boligrafoa atereaz mapa marraztu zuen atzealdean («ez zaik inporta, ezta?»), eta xehetasun gutxiko karta zuri hartan, mendien bila zihoazen lau gezi iparrerantz: lehena, Garde eta Jaurrietatik gorakoa; bigarrena Zaraitzu eta Irati ibaien artean kokatu zuen, Itoizko urtegitik iparraldera; hirugarrenak Erronkaritik mendebaldera jotzen zuen, eta Olagueraino heltzen zen; azken sektorea, berriz, Etxalar eta Amaiur artekoa zen, eta hau

esanda, lau, bost aldiz, biribil obsesibo bat marraztu zuen aurrez zirriborratu zuen geziaren gainean.

Mugalarien izen batzuk ere ezagutzen direla gaineratu zuen («nahi baduk, lortuko diat dokumentazio gehiago, argitaratua zagok»). Nabaritu egiten zitzaion, gustura ari zen. Bazekien zertan zebilen.

– Demetrio Larralde, Tomas Labairu, Anso abizeneko bat... dozena pare baten izenak, bazaudek. Berandu habil baina. Gehienak harrak gobernatzen dauzkak.

– Faustino Ibañez, ezaguna egiten zaik?

Bazitekeela mugalaria ez izatea erantzun zidan, baizik eta «batetik bestera armak hartzera edota Carrillo, Lister eta enparauen ikastaroetan parte hartzera» zihoazenak Iruñetik herrietara laguntzen zituzten horietako bat izatea, «Juana bera bezalaxe».

– Yague jeneralaren soldaduak Oiartzundik Erronkarira, Polizia eta Guardia Zibila herri eta hirietan, beti neguan ibili behar, bost-sei eguneko lana izaten zuan herrietaraino iristea... hori ez duk bi lagunekin egiten.

Makiaren azpiegitura Entreprisse Forestier du Sud-Ouest-en oinarritzen zela azaldu zidan. Itxura batean baso lanetan aritzen zen enpresa bat. Hauxe izan omen zen ataka erabiliena mugaz honantz sartzeko. Bazekien Lantz aldean lur sailak ere erosi zirela, pago egurraren aitzakiarekin jendea eta puskak eramateko batetik bestera, Kintoko txofer bat tarteko.

– Hotel Continental eta Villa Castilla Pauen, Tournefeille-ko etxaldea Tolosa kanpoaldean, Santa Garazi, Urepel edota Arrosako *chantier*-ak, berehala ohartu zituan diru asko behar zela hura guztia mantentzeko, ez zuan erraza.

Zer gogoratuko ote du Faustinoren buruak honetaz, han behean, El Vergelen heriotzari itxaroten dion bitartean? Larritu egin nintzen. Tarteka gertatu izan zait. Esku artean zerbait duzula ohartu eta presa horrek lotu: ez ahal da ni iritsi artean hilko.

– Gainera, ez ahaztu beste gauza bat. Sarea zulatua zegoan, Berbintzanako Txatoak bide bazterretan garbitutako edozein gizajok baino zulo gehiago zitian. Ausarki erori zuan jendea harako hartan.

Banuen Faustino nondik bideratu. Galderak zuzenegi eginda, Estebanek esandako guztiak aipatuz gero, litekeena zen ordura arte esandakoak ahaztu eta izutzea, okerreko zerbait ulertu eta atzera jotzea.

– Ez dakik onena –aumentatu nion azkenik.

Ezin nion gorde. Estebanek, ez askotan ere egon ginelako, baina ezagutzen zuen Esti. Lehertuko zitzaidan hesteren bat bestela.

– Esti duk, ez ziotek lan kontratua berritu.

Ez al zebilen elizaren eskola batean sukaldari. Baietz, arazorik gabe endemas, azaldu nion.

– Atzo arte.

Arrazoirik bazegoen galdetu zidanean askatu zitzaizkidan barruak, eta tripekin batera, behazuna.

– Gogoan duk urtegiko hilerriez egin nuen erreportajea? Zeharka baino azaltzen ez nuen gizon bat, Artzapezpikutzako gizon handia, herrena? Hahor duk arrazoia, kargua bezain potoloa. Ez nian onberegi atera, antza, tentetik gorako hura.

Gogoan zuen, bai.

– Hori eta Artzapezpikutzak 1,6 milioi euro kobratuko dituela urpean geratuko diren eliza eta hilerriengatik. Ez ezak heure burua engaina, Imanol. Eliza azpijokoekin egin dela herritarrena den ondarearen jabe idatzi huen.

«Zure senarrari esaiozu ea lasai dagoen emaztea langabeziara bidalita».

Comedias kalea itotzen zuten banaketa-kamioien artean irten nintzen. Neure burua Burgalés ostatuko beira-leihoan islatuta ikusten nuela, erredakziora deitu nuen. Beranduago joango nintzela esan nion Gemari, baten batek nigatik galdetuz gero hamabietatik atzera egongo nintzela, orduan hots egiteko. Zer nuen. Itoitzera nindoala.

Atarian bertan agurtu nuen Esteban.

Autoaren giltzak praka gainetik ukitu, eta udaletxe plazatik behera Arrotxapeako zabalera abiatu nintzen, han utzi nuen bezperan.

Motorra martxan jarri eta irratia automatikoki piztu orduko, kutxatik atera berri nuen diskoa eman nion ahora. Hala egin nuen Agoitzerainokoa, errepidearen gorabeherez ohartzeke, ni ez nintzen beste batek gidatuta bezalaxe. Irudi ba-

karra gelditu zitzaidan: lirain goratua zetorren garia. Soroak uhin argiak egiten zituen muinoetan.

Bazuen zerbait Aita Donostiaren *Oinazez* hark, azaltzen asmatzen ez nuen zera tristea.

Konturatzerako, horma aurrean.

Basoak berdetuta zetozkidan mendi magaletan behera. Egurrezko pasabidea Irati errekaren gainean. Eta arbola artean, hilerriak, errai erakusle. Larraingaingoa baino ez zen falta, itxuraz, heldu eta batera Maitek esango zidanez. Apiril hondarretan hasi eta berrogeita bederatzi egunetan buruturiko lana. Etxeak dagoeneko eraisten hasiak ziren. Kamioien joan-etorria etengabea zen. Guardia Zibila, makiaren garaian bezalaxe, errepide bazterrean edonon. Gezurretan aritu beharra, ezagutuko ez ninduten esperantzan beti. Nonbaitera deitzen entzun *Patrol*-etik: «Arellano Martinez, Imanol. Forentsearen laguntzailea da». Izena hartu zidaten. Laster hasiko ziren Itoizko azken biztanleak indarrez ateratzen. Egunkarietako argazkiak, ez zen zaila asmatzen zein izango ziren.

Soledad non ote zebilen. Burlata, Barañain edo Mendillorriko parkeren batean imajinatu nuen, senarrarekin emandako uneez arintzen egunak. Haurrak, helduak, adinekoak; dendak, etxeak, lainoak; oro ezezagun. Laurogeita urterekin bizitzen ikasten berriro.

«Bizitza osoan zaindu ditugu».

Ez zen ulertzen erraza. Ia bost hilabete ziren urtegia betetzen hasiak zirela, «froga gisa» zioten, baina ezarian ura gero eta gorago, urpean geratuko ziren herrietan artean jendea bizi zen arren. Leherketek eta kamioien gurpil gaitzek harrotutako hauts grisa hosto gainetan pausatuta. Landa-marrubiak bide ertzean.

– Zer dugu?

– Ez naiz horretara jarri.

Metalezko kutxak estalkirik gabe bata bestearen gainean pilatuta. Eguzkia laino artean berotzen. Oscar, garraioan izerditan.

– Zerrendan ageri da?

– Esan dizut, ez dut betarik hartu.

Itxitura gainera zalu igo eta besoak funanbulista baten antzera zabalduta, bira osoa eman nion hilerriari.

– Zuk non ehortziko zenuke?

Sarreratik patarrerantz, arte ihartu bat tente, adatsa malda aldera zuela. Nire itzalak izututa, sugandilak harri zapalaren gainetik mugitzea erabaki zuen. Liken berdekarak harrietan. Gurutzerik jarri ote zioten?

– Gurutzea komunista bati?

Izan zitekeela erantzun nion Maiteri, zergatik ez. Ez zen aurrenekoa izango. Gerra osteko larderiazko giro hartan, edozer, eta zer zikinagoa hildakoei amets izan dutena ukatu eta bortxaz norbereganatzea baino. Erreferentziaren bat, pentsatu nuen, gurutzea ez bazen beste zer edo zer. Hesola bat, zutoina («alferrik, egurra berehala usteltzen da kanpoan»). Elkarren gainean jarritako harri moltxoa. Mugarri gisako kare haitz bat akaso.

Harri mokor tenteturik ez bueltan.

Lurrera jauzi egin eta errotik erauzi nituen inguruan zeuden landare urriak, muluak eta lahar arantzatsuak. Adaxka hautsiz eta harri txintxorrez garbitu nuen buruan nerabilen alorra. Maitek eta Oscarrek berean segitzen zuten, nire jardunari jaramonik egin gabe. Portugesetako

baten hondeamakina txikiak atzerantz egin zuen, horma jo zuen arte. Maiteri entzunda, banekien beste kolore bat hartzen duela lurrak lehendik harrotua izan den tokietan. Urte gehiegi igaro zen, ordea, aire poltsak egoteko.

Jateko modukoa zegoen.

– Maite, Maite... beha hona.

Itxurosoa atera zen fotoa: bi eskuen ederra pala kirtenari helduta.

Gauza bat zuen ona lanerako: duin baina errukirik gabe ukitzen zituen Maitek gorpuzkinak.

Berriro igo nintzen hobiak inguratzen zituen horma apalera. Izerditan nengoen. Bidean nentorrela, 35 gradu markatzen zuen autoko termometro digitalak. Arratsalde gazteko beroa lurrari kolorea jaten.

– Arbola baten itzaletan, zer moduz?

Lurra gorrail ageri zen, kendu ez nituen txilar bakan batzuek dotoretua. Suge azal zahar bat izpi lehorren artean utzia.

Eta ikusi egin nuen. Itzal bat, zorua lixibaz marruskatu izan balute bezala. Gainera, harroago zegoen inguruan baino.

–13–

Hitlerren marinelen bizitzaz arduratzen hasi emigrazioaren mila istorioetako bat kontatu didatelako. Harako hartan ibaiak eramandako emakumea osatu zahar egoitzan ikusitako argazki batetik. Horra zertara etorria nintzen Rochen Maite eta Oscar topatu nituenetik.

Kontua da harrapatuta nindukatela istorio biek.

– Konturatuta zaude beti hildakoak dituzula tiraka? –egin zidan gaztigu Estik zertan nenbilen aipatu nionean.

Jakin, banekien. Arrazoi zuela aitortu niola dakit, hegazkin bat pasa zela leihoan alderik alde, halako hari zuri bat lainorik gabeko zeruan, zabaltzen, listen, desegiten ari zena, baina behin honezkero hala beharko zuela. Gero besarkatu egin nuen, min eman arte estutu nuen. Ez nuen galdu nahi, inori ez esateko izua nion bakardadeari. Lapiko hondoetako ur kondarrena, egindako tomatearena, koipe zaharraren usaina eskuak, ilea, sabeleko azala osoro hartzen, orain-

dik ere. Hala saiatu nintzen beso artean nuen soin txikiari haren beharra nuela helarazten, esaten ausartzen ez nintzena esaten, hitzik gabe erreguka ez nazala utzi, ez nazala utzi arren, ez naizela gai bakarrik ekiteko bizitzari. Egurrezko zoruaren krakatekoa oinpean. Besoen indarra, giharren dardara, eta azkenik, ezarian, arrunt berandu sentitu nituen bi esku ahur, hatzak gehiegi kakotu gabe nire bizkarralde pixka bat makurtuan. Sofa gainean etzanarazi nuen, eta sugandilak banituen eskuak azken harripearen bila, hartzaren atzaparrak iruditu zitzaizkion, Laidaren hiru txerritxoen otso puzlariarenak, zakar ari nintzaiola, zer nuen, poliki joateko. Nahiak tentatuta baino errukia nagusitzen delakoa, eta atzamar urduriak gerrikoa askatzen, kuleroak eranzten, oinetakoak zoruaren kontra, krokodiloaren haginetan gatibu dagoen hegazti zuria haren lepoa, harrapatua nuen, baneraman Afrika barreneko ibairik lohieneko ur uherretan behera.

– Lasaitu zaitez, Imanol.

Abaildua zuen aurpegia, nola ez zuen izango. Lehenaz gain, lanetik bota zutenetik bera arduratzen zen batez ere etxeko gorabeherez eta Lai-

daz. Zimelduak zituen ezpainak, lehorregiak, hondarrezkoak. Musu bortxazko batez busti nizkion.

– Beldurtu egiten nauzu horrela jartzen zarenean.

Hegazkina ezkutatua zen. Bidaiariak imajinatu nituen, buruak aulkien belarrietan, edo metakrilatozko leihotik begira, aspermenak lotuta, orgatxo berotik azafatek pixkanaka aterako zituzten bandejen pozean. Behean, gehienek ezagutuko ez zuten hiri bat, behialako egitura militarraren marra geometrikoak, harresi lerroak, gotorlekuen izarrak, osoro goizarenak ez ziren ordu haietan ubel.

Erdiko hatza aurrena, erakuslea gero lerratu nizkion barrura. Ahoa zabal, Estiren arnasari ausiki egitera bezala egin nuen. Hortzak nituen aurrean, tarteka kanpora ateratzera egiten zuen mihia. Zabalik, bata bestearengandik milimetro batzuetara baina ezpainak ukitu gabe segitu genuen, jolasean kosk egiten aireari. Likinaren beroa atzamar kakotuen muturretan, Estiren aldakak mugitzen sentitu nuen, lagundu egin nahi

nion, erritmo berean hasi nintzen neu ere haren ondoan. Keinu zakarrez aterarazi zizkidan arte.

– Utzi niri.

Begiak bildu, sigi-saga doazen inurriak diruditen orban zuriak betazalen barne aldean, esandakoa egiten ahalegindu, eta aratinik, olatuaren zain gelditu nintzen. Haren eskua sentitu nuen barrabilak laztantzen, zakil lokartuan azalari gora eta behera eragiten. Hildako txepetxa zen ordea iratzarri nahian zebilena, hegoak bilduta. Ezin egonik, neuri zihoazkidan eskuak haren azalaren beroaren bila, hezegune irekietara. Egoteko geldirik eskatzen zidan, uzteko berari, baina segundoak orduak ziren, laztanak indargabeak. Mailu nahi nuen, labana gozo, off-ik gabeko perkutore, baina ezin. Ikusia nintzen ostatuko kafe makinaren atzetik erortzen labezomorroa zoru gainera. Bizkar gainean egon zen luzez, zango kakodunak airean alferrik astinduz. Tabernariaren zapatapean amaitu zen dena. Oskol hautsia, krakateko lehor bat. Halaxe sentitu nintzen. Behartuta erakarri nuen haren burua, ezpain mintzak, mamiaren gozoak sentitu nituen zabaltzen,

mihiaren beroa neure baitan nahi, atximurka txikiak titiburuetan.

Irratia piztuta utzi genuen sukaldean. «Bluesak behin haur bat izan zuen, rock and rolla da haur hori», esan zuen gizon jakintsuak.

– Ez arduratu, botikengatik izango da.

Baina ardura amorru, ezin eta lehertu beharreko indar mataza nuen, nola askatu asmatzen ez nuen korapiloa sabelpean bildua. Neu ahalegindu nintzen, zakar, gozo. Nahi, behar nuen hustu. Alferrik.

– Ez dio axolarik, hurrengoan izango da –lasaitu nahi izan ninduen masailean musu emanda.

Gero janzten hasi zen.

Ezin nuen galdu.

Barregarri behar nuen larru gorritan sofa gainean, arropak bil-bil eginda alfonbratik kanpo. Herbal sentitu nintzen. Hildakoa baino biluziago autopsia gelan, marmolezko mahaiaren hotza bizkarrezurraren, ipurmasailen, izterren, orpoen kontra, hildako zakila esku bilduan. Stryker zerraren ebaki biribila. Hezur errearen usaina. Kerik aterako litzateke?

Egongelako mahaitxoaren gainean, arrebak Marokora joan zenekoan ekarritako lanparatxoaren ondoan –larru tindatuan, *henna*zko marrazki bat: buztan luzeko hegaztia lore baten gainean–, Faustinori itzuli beharreko argazkia.

– Hildakoen berri ezin ba bizirik ez dagoen batek eman.

Begira ari natzaio. Laurogeita hamaika urte dituela esan dit. Kontuak ateratzen ditut: hamabikoa da. Hogeita lau urte zituen gerra hasi zenean. Hogeita hamarretik gora makiari laguntzeari ekin zionean. Nahi baino urte gehiago Frantzian, autoentzako balaztak egiten zituen lantegian.

– Balaztak eta, nola da txasisetik gurpiletara doan pieza hau...

– Ez zinen ezkondu?

Irri egin du, ordura arte inoiz ikusi ez diodan bezala. Nahi gabetanik zoriontsuagoa izan zen garai batera behartu dut. Tolosan dabil, Garona ertzeko kaietan pasieran, agur honi, adio hari, eta asteburuetan Langedoc-eko landa herri lasaietan, bizikletari eragiten inpresionistei jasotzea ahaztu zitzaien zelai naroen artean. Neska

ilehori bat doakio aurretik. Buruaz atzera eginda, suzko adatsa airean, ulertzen ez dudan zerbait diotso Faustinori. Bizikleta biak arinago doaz orain. Automobil urdin bat igaro zaie aldamenetik, bozina jo du. Mitxoletek malko gorriak dirudite belazeetan.

– Frantsesekin ez zuan erraza –eta Faustinori ezpain mintza zabalagoa egiten zaio.

Eta ezkondu ezetz, baina ozta, andregai bat izan zuela aitortzen dit, esposatzeko zeudela gaixotuta hil zena.

– Sylvine zian izena.

Eta Sylvine apuntatzen dut koadernoan, zergatik ez dakidala.

Iloba aurrean ez duela, lasaiago dago, begiradan antzematen zaio. Bi begi txiki eta ilun betaurrekoez bestalde, eta leihotik sartzen den argiagatik niniak handitzen zaizkionean, putzu bietan barrena, bihotza ikusten zaio, nire antzera, hain da txarra disimulatzen. Badakit, ez dut lortuko iristerik, baina hurbiltzen utziko balit, bidegurutzeraino besterik ez bada ere, bera Frantziara eta Juana Ardanaz 43ko abenduan betirako hemen utzi zuen bide bururaino...

– A, argazkia!

Kopiarik egin diodan galdetzen dit, beha geratzen zaio. Argazkian ez da enmarketik kanpo erakutsi zuten adorearen itzal mendrenik ageri. Ikurrik eta epikotasunik gabe, zortzi neska-mutil gazte baino ez dira Sanferminetan, begira dagoenarentzat zorionekoa dirudien klikada batean harrapatuak. Eta haur bat: Juan Antonio.

Juanaz dakiena kontatzeko eskatzen diodanean, ea zerbait aurreratu ahal izan dugun erantzuten dit.

– Gezurra esan nizun lehengoan: ez nabil han lanean. Egunkarian ikusi zenuen artikuluaren egilea naiz.

– Niri joko didak. Begira ezak zer esku dituan.

Lotsagorritu egin naiz. Izter gainean ezkutatu ditut ahur beraxkak. Larraingainen izan naizela esanda atera naiz lakiotik, besteak lanean ari direla, zula eta zula, eta hilerriko horma gainera igota, onkologoak metastasiari nola, lurrari erreparatu diodala, eta malda aldera dagoen arbola bakarra begitandu zaidala hildako batentzako aterpe egoki. Bestela, deus ez. Satorrek urteetan

obraturiko habia, pasabide eta tunel sistemak. Dena harrotzea ezinezkoa izango dela.

– Adurra izan zian, izan ere.

Ez da espero dudan hitza. Adurra.

– Zergatik diozu hori?

Eta orduan hasten zait, pitika, gainontzekoak kamerari so, elkarri sorbaldatik helduta daudela, argazkiko emakume irribarretsua mugitzen. Umea ere bertan uzten du, eskutik aske, eta Juana badoa, kalean behera musikarien osteko aldraren atzetik, zerbait ahaztu balitzaio bezala egin eta itzultzen den arte, eta badator:

– Nik, ez nahi beste, gerra aurrean ezagutu nian. San Gregorio kaleko Euskaldunako barran aritzen zuan, zerbitzatzen. Larraingaindik etorri berri behar zian. Orduan neska asko biltzen zuan horrela herrietatik Iruñera, ostatuetan aritzera. Lana zegoan, eta euskaldunak ere behar zituan, San Nikolasen-eta.

Banekien non geunden, dena ongi bidean ezer galdetu beharrik ez dagoen unera iritsiak ginen. Iloba aurrean izan genuenean baino erra-zago, solasa berez zetorren, euri ura mendi ne-garrean behera bezala.

– Badakik, tabernetako zerbitzariekin-eta gertatzen dena, denei ongi egin eta gaizki ulertuta, asko zirela harekin tematzeraino txoratu zirenak. Nahi gabe ere sorgintzen zitian hark bezeroak barra atzetik. Hauen artean etxe-laguntza egiten zion burugorri bat zegoan. Juanitak ez zian ezer nahi harekin, baina gauetan, tabernako ateari giltza emanda, besteak lagundu egiten zioan etxeraino. Kontua duk halako batean behartu egin zuela, eta hona aipatzen nian adurraren lehen haginkada: Juana hezur berritzen utzi zian. Hala pasako zuan harena, beste askorena bezalaxe, baina gerra ere ate joka zela, erreketeetan sartu mutila. Kasernara ere iritsi zuan gertaeraren berri, eta artean Juanari handitua igartzen ez zitzaiola ezkontzera behartu zitian kapitain batek. Orduko gauzak, badakik. Mutilarenean jarri zituan bizitzen, haren etxekoekin. Ez zitean ez haserretzeko ez maitemintzeko betarik hartu. Burugorria Irun hartzera bidali eta joan orduko zuan bueltan. Gotzainak berak bedeinkaturiko kamioian ekarri zitean etxe ataririaino, egurrezko kaxoi batean, *detente bala* paparrean eta tiroa bekoki erdian zuela.

Orduan ohartu nintzen eskuko dardarizoaz.

– Begiak bezalako egiak dituk hauek.

«Izango ez dira ba» esan nion behakoarekin, «ez zaitez orain gelditu Faustino».

– Juan Antonio jaio zenean ostatuko lana utzi eta herrira itzultzekotan egon bazen ere, hemen geratu zuan. Nik nire iritzia diat, baina ez iezadak galdetu zergatik. Burugorriaren amak egindako gonbitari uko egin, sorgin zahar bat, eta handik aterata, Arrotxapean jarri zuan bizitzen, Errotazar karrika buruan, Navascuestarren etxean. Badakik non den, pasta fabrika zian bertatik bertara, Kale Nagusiko Armendariztarrena. Etxalde ederra zuan hura, harlauza zapalez eginiko patio zarratu harekin. Egunez Argako latsarrietan aritzen zuan, arropa enkarguz garbitzen. Ilunabarra lisaketan ematen zian, edo adabakiak josten. Ezagutu behar zuan giro hura. Egun autoak uzten diren zabalgune horretan, dena hesola eta zintzilikatutako maindire eta arropa. Ordain zezakeenak hala egiten zian, emakume haien esku uzten zian lixiba. Andre haiek hazi zitean Juan Antonio, «alargun gorriaren» semea.

Hasi da argazkiko emakumea itzal zuri-beltzezkotik mamitzen, orain ez zait batere erraza egiten Juana paper uhertuan irriz ari zaidan aurpegian errenditzea. Mina gordetzeko ahalmena duen begitartea du. Burugorriaren abizenaz galdetzen diodanean, ez du asmatzen ez izenik ez deiturarik ematen, galdua da, gordea, arratoia zabor artean bezala kukutua urteen tolesduretan.

Eta kanpora atera dezadan eskatzen dit, haizea behar duela, ikasi duela belarri artean ez hitz egiten. Ez kezkatzeko zaindariengatik («nahi izatera, bazkalordura arteko bulda ditek gatibuek»). Pasabideetan barrena, segurtasun handiko presondegi batetik ihes egiten laguntzen ari natzaion gizona naiz, nik kontatzen ez badut denborak tarrazean bere estoldetara eraman eta betirako itoko duen historia txatal bat dudala aulki gurpildunean garraioan.

– Eta zeu, zer moduz zaude?

– Bizitzen aspertuta.

Kanpoan gaude. Kanporago nahi du baina, aurreko eskoletako mutilak atsedenaldian dauden aulki aurretik pasa eta joan den larunbatean

Maiterekin egindako bidera bultzatzen nau, arbolapean. Aulkitik bera da ni naramana, orain ez hainbestera arte eskutik helduta Laidak eraman izan nauen bezalaxe.

Poltsatik atera eta Layanan erosi ditudan pastatxoen kutxa utzi diot magalean.

– Gozo beharrean ikusten nauk ala?

Ezetz esan gabe, ez dudala jakin zer ekarri aitortu diot.

– Juanitak berak egiten zitian ederrak.

Aulkia trabatu gabe doa estratan aurrera, akaziapean. Hesiaz bestalde, udaberrikoak emanda, udakoak eskaintzeko gertu negutegiak. Alanbre, aliketa eta mailu, bi langile ari dira burdinak sendotzen. Gelditu beharra izaten dut hizketan hasten den aldiro.

– Urte zailak izan zituan benetan. Jendea erori egiten zuan, Otxoa, Juaniz, Yesa eta hauei heriotza zigorra jarri zietean, eta ez balitz Olaetxea gotzainarengatik harrak gobernatzen ziratekeen. Galanta duk, zeini eta Elizari eskerrak eman beharra! Ehun bat lagun izango gintuan. Eta alderdikoa ez bazen ere, kostalde horretatik zetorkigun jendea mugara hurbiltzen asko la-

gundu ziguan Juanitak. Trenean egiten zian Agoitzerainokoa. Gero mugalaria heldu artean Artozkin gordetzen zitian, edo Usozko zeran, Artxabalen, edo Larraingainen bertan, lastategian. Baina esan diat, adurra zebilkion atzetik.

Zorte txarrarena berriro ere.

– Ez zian gizonekin aldi onik. Baduk lehendik gertatutako gauzak berriz gertatzen zaizkion jendea, txarra bada aiseago. Juanitak ez zian atsedenik ezagutu. Tamalez, lehen burugorria bezalaxe, etxeko arropak garbitzen zizkion ospitaleko mediku bat tematu zitzaion, harekin behar zuela eta harekin behar zuela. Biurrun izeneko bat, Segundo Biurrun. Atzetik ibiltzen zian, baina Juanitak ez gizonik behar. Medikuak ez zioan bakerik ematen, eta hura ez izan isiltzen diren horietakoa. Behin, plaza betean, bereak eta asto beltxarenak bota zizkioan. Hortxe galdu zuan. Ez ziotean gizona laidoztatu izana barkatu. Ahoz aho zabaldu zuan emakume ahoberoarena. Moralgabea zela, matxanberoa, gorria... Biurruni aurre egin eta ez zituan hamabost egun pasako goiz batean, hortxe, horkoxe latsarrietan agertu zenean, ur azalean itoa.

Eta buruarekin atzeranzko keinua egin du, Arga aldera.

– Batzuek izotzetan irrist egin eta erori egin zela esaten hasi zituan, beste batzuek bere burua bota zuela. Bere buruaz beste Juanitak? Gezurra eta zikina. Biurrun bera ez bazen izan, berak hilarazi zian. Ordurako ez zuan edozein, hark kendu zioan bizia. Ezagutu beharra zagok nola ibiltzen zen jende hau orduan. Gau hartan Juanitak ez zian etxean lo egin. Auzoak zaindu behar izan zian Juan Antonio. Esadak, zein joaten da, berdin dik, orduan ere, zein joaten zen gau erdian lixiba egitera?

Egia da Maitek dioena. Arrosa kolore horrekin, Toscanakoa dirudi Irujo etxeak, hiru arkupe handi lehen solairuan, berdea balkoitik balkoira, huntza ez den beste igokari bat, ur jauzia balitz bezala erortzen. Baratze zainduak inguruan. Ur turrusta txiki bat. Toscanako istorio bat, Piamontekoa, Emilia-Romagnakoa faxistekin eta komunistekin, *Novecento*n bezala.

Pasta kaxa zabaltzeko agintzen dit, bat hartzeko diost. Ezin diot ezetz esan, mutu nago.

– Apaizek bahitu zitean gorpua, etxekoak tarteko. Orduan hala zuan. Sorterrira eraman zitean, eta gurutzerik gabe, lorerik gabe, hilerriz kanpo ehortzi zitean, hala esan zigutean orduan. Aitzakia, bazitean. Senarra martiria izanagatik, bera gorria zuan, eta suizida. Horregatik esan nizuen handik ateratzeko, bigarrengoz ito ez dezaten.

Koadernoa eskuan, disimulurik gabe, gero kontatua berregiten lanik emango ez zidaten apunteak hartu nituen, lerroz aise jauzi egiten zuten gertaeretan laburtu nituen Faustino Ibañezek kontatu berri zidana. Izen bakarra idatzi nuen, Biurrunena. «Segundo Biurrun, medikua», jarri nuen. Eta Irujo Etxeko ate parean, idazten ari nintzela jakinda, nahita bota zidana ondoren.

– Iraganean mina dago, egun beldurra.

–14–

Ahots buzoian Maiterenak emakume zaharrago batena dirudi.

«Imanol?», entzun nuen. Eten luzea gero, okerrekora jo eta, ohartuta, telefonoa kakotzera zihoala iruditu zitzaidan. Beharrik, jarraitu egin zuen, ordea: «Zer zabiltza? Faustinoren ilobak deitu dit, ez zaiola gustatu zu abisatu gabe agertzea El Vergelen. Ahazteko zaharrak esandako guztia, burua nahasturik duela».

Dutxako txorrota zabaldu nuen, eta itxaron egin nuen ura pixka bat berotu zedin. Ispiluan, hanpatua ikusi nuen neure aurpegia, puztuak betondoak ez ezik baita masailak ere. Ez zen esnatu berri nintzelako. Inoiz berriro izango ez nintzena zen. Esti umea autobusera lagundu eta erosketak egitera joana zen. Laidak irteera zuen ikastetxetik, etxalde-eskolaren batera, eta ez zen iluntzera arte helduko. Denboratxoa zen hiria esnatua zela, eta hiriarekin batera baita gure etxea ere. Komunetik entzuten nituen ongien ohiko zaratak: inora joateko adinik ez duten

umeen orroak, kaniletatik behera doan ura, telebista bat piztuta goiz-goizetik.

Ez nuen erredakziotik pasatu beharrik, zuzenean joango nintzen liburu aurkezpenera. Honelakoetan ez da erraza ohiturak ezarritako arrastotik ateratzea. Aretoan bildutakoa ahal den eta txukunen eman, argazkilariarekin hitz egin eta elkarrizketa egilearekin. Hahor nigatik espero dena. Urak gorputz osoa bero diezadan utzi. Txorrotaren indarra sentitu buru gainean behera, bizkarra epeltzen, berotzen, erretzen igarri, jarioa lepotik, soinetik, zangoetatik behera. Aparra harrotu esku artean. Ilea gozatu, bularra, sabela, zakila, barrabilak igurtzi, ipurmasailak, uzkia. Ura, aparra, ura. Kanilak, hodiak, kolektoreak, ubideak, urtegiak. Saihetsak ezagutu, besoak, bernak, oinak, galtzarbeetaraino igo, atzamarrak xaboitan irristatzen sentitu. Aspertuta nengoen horrelako liburuekin, ez nafar ez gaztelau, guztiez enpo, ez zitzaidan errege bakar bat gehiago sartzen kolkoan. Ez nuen ulertzen obsesio hura, borondate politikoa hamahiru, hamabi, hamaikagarren mendera eramatearena. Nazkatuta nengoen estetikarekin berarekin, arranoekin, zigilu

lakatuetatik berreskuratutako zaldunekin, Erdi Aroko azokekin, ovni batetik heldutako izakiak baino arrotzagoak zitzaizkidan denak.

Errealitatea oso bestelako zerbait da. Zaldun agaramontarraren tokian etxekoen diruak bilduta Ekuadortik heldu berri den emakumea bizi da goiko pisuan. Hiru seme-alaba utzi ditu Guayaquilen. Caixako bulegoak garbitzen eta ametsetan ematen du eguna, denak ekarriko dituela esaten dit eskaileretan topatzen nauen aldiro. Ahizpa datorkio datorren astean. Ez dut ur hotza maite. Erre arte zabaltzen dut giltza. Larregi beti, orban gorrikarak ateratzen dizkit azalean. Hotzetik nahastu. Aparra desegiten ikusi oinen ondoan, lainoak ematen dute. Volkswagenerako aulkiei azalak jartzen ematen dute eguna errege-erreginen jopuek orain. Haurdun gelditzen direnean, bota egiten dituzte, eta beldurrak lotutako beste batzuk sartuko dira haien tokian, orain-dik merkeago. Erresumako muga gotorlekuan orain ez dago bufoi izeneko inor, baina Nicolaek ere berea dakar goizeko hotsen sinfonia honetara. Leihoan bestaldean sentitzen dut, ahalegintzen da errekaduetan, bestelako zereginetan da-

bilen jendea alaitzen, errumaniarra da. Dozena erdi bat pieza baino ez dakizki, soinuak ere ez dio laguntzen, zaharkitua du, mailatua pasta nakaratua, eta horiexek jotzen itxaroten dio iluntzeari. Begiratzen badiozu, hortz zuri ederrak erakusten dizkizu. Inoiz Europa ekialdeko film grabatuak pasa izan dizkiot DVDan.

Txorrota itxi eta historia noiz bilakatzen den akigarri etortzen zait, non dagoen inork zehazten asmatzen ez didan muga. Ez dut teoriarik, asealdia da beharbada, beteta nagoela, gogaituta. Desberdindu beharra dudala, nahi ditudala bereizi Juanita eta Faustinoren kontaketa eta maila sinbolikoan ere ingurukoen artean neurri kezkagarria hartua duten mitoak. Juanita Ardanazen bizitza berregin, lanera lagundu hirira, horma arrailduaren kontra bortxatzeko lagundu etxera, haren eskuak sentitu ibaiko uretan hormatzen, ospelak egiten, lana, laidoa, larderia, eta Arga aho zulotik behera, egunsentiarekin batera lixiba egitera ibai ertzera jaitsitako emakume baten arrama, gorpu bat dagoela latsarri artean, laguntzeko arren hura handik ateratzen.

Ur jarioa soinean behera joan zain, marrazki bat egiten dut atzamarraz manpara lausotuan. Lauki bat, gurutze bat duela barrenean: Larraingaingo hilerria. Eskuinaldean, orban bat: magal aldera etzanda dagoen artea. Eremu bat zarratzen dut gero arbolaren inguruan. Goitik behera datozen ur tantek zauriak egiten dizkiote mapari. Berehala ezabatzen dut dena.

Eta mundu osoan gizon bakar bat hartaz norbait gogora dadin oihuka. Ateratzeko emakumea handik, urtegiak harrapatuta betirako galduko dugun memoriaren zoko, troka, desleku hartarik. Ilobak burutik ongi ez dagoela sinetsarazi nahi didan gizasemea, gurpildun aulkian bizitzaren ibaian behera. Bere adinekoren bat ikusi eta begira-begira gelditzen zaion iceberga, garai bateko parrandaren bateko laguna identifikatu nahian, zimurretan eta begiradetan igande arratsalde hartan Irañetan edo beste tabernaren batean topo egindako mutil bipil hura ezagutu nahi izango balu bezala. Norberaren itzalaren ikusle mutua izan, bizitakoa berriro pasatzera egin, eta ezin asmatu kateatuta ematen, ezin gertaeren sailkatze kronologikorik egin, guztiak ahanztura-

ren bazka dira, eta hemen udaberriko elurra bezain garbi dena udazken arratsa bezain erraz iluntzen da han, eta ezer ez da dirudiena.

Itzuleran, barrenak hustu ostean egoitza aurrean egindako aitorpena datorkit:

«Poztu ere egiten duk bat izualdian, gizakion ankerkeria izango duk, badakik. Besteak hiltzen ikusteak, ez zakiat nola esan, hurrengoa norbera izan daitekeela etortzen zaik, baina era berean biziago gaudela sentiarazten ziguk».

Iragana orainera ekarrita, lortzen denean bederen, dena da mandoagoa, kolore biziagoak hartzen ditu berez txepelkara zenak, lausoa, azalera ateratzean, hazi egiten da. Eta orain, nori ardura dio orduko maitasun zaparrada hark, nor da gai muga pasatzearen ilusioa berpizteko, non dago ametsa, lilura, kezka gazte haien indarra.

Nola esan zuen?: «Denbora gure ezjakintasuna da borrokan ari zirenen aurrean».

«Zuen historiaz ezer ba al dakigu barren, Faustino...».

Nahiaren adabakiz eta bidaia atalez osaturiko giza paisaia. Inondik ere irabazteko egindako

trabesa. Mugaz haraindi, bilerak eta arma horniketa. Hemen, ahal zena. 1944ko urri hatsarrean, berrehun lagunetik gorako taldea igaro zen Ezterenzubitik Orreagara, 54. brigadakoak denak. Aurreneko tiroak, Itzaltzun, Lasako mendate horretan, Polizia Armatuaren kontra. Bi polizia eta hauen itula-lanak egiten zebilen guardia zibila hil. Gatibuak hartu. Asko zirela-eta, banandu beharra. Faustino Abaurrepera heldu zen, han artatu ziren zaurituak. Egun berean, tiro gehiago Bidankozen, San Fernando inguruetan, América batailoia zutela aurrean. Tenientea eraitsi zuten, baita lau soldadu gehiago ere. Hildako makiak ez zituzten inon izendatu, hauei ere hilerriko hormetatik kanpo lur eman zieten. Baina oso gerora jakin ahal izan zuten. Laino sarrian berriro muga igaro aurretik askatu zituzten bahituak.

Hori da historia, kea. Lurruna. Lausoa.

Egon, hortxe dago egon. Ekartzen lanak. Mito zaharretako ardi larruarena gogoratzen dit honek, ontzurrez betetako mintzarena, non edo non lurpean gordea. Norbaiten lorratzak behar lurra urra eta urra, larrua, eta noski, urrea agerian uzteko.

Berlinen, behin erreportaje bat egin nuelako dakit, Gertz izeneko artista batek, Jochen Gertzek, performance xelebre bat burutu zuen ez aspaldi. Jakin zuenean Alemania nazian 2.146 hilerri judu suntsitu zirela, berak eta lagun egin zuen ikasle talde batek Saarbrückengo plazako galtzadarriak ebatsi zituzten. Gauetan, harriak hartu eta hilerri bakoitzaren izena idatzita atzean, bere tokira itzultzen zituzten. Handik urte batzuetara Monumentu Ikusezinaren plaza izena eman zitzaion Saarbrückengo zabaldi nagusiari.

Hori hemen egitea badagoela begitantzen zait, Gazteluko enparantzan. Hesi itsutuen gainetik jauzi egin, parking berrien gainean eraikitzen ari direnetik harriak hartu, eta gauero dozena bat harrotuta, historiak gurean arrastaka eramandakoen izenak jarri orpoan, berriro beren tokira bueltatu aurretik. Badakit nork lagunduko lidakeen horrelako erokeria bat burutzen. Badakit noren izena idatziko dudan aurrena.

Non dago muga, ordea? Zergatik erregeak ez eta Faustino eta Juana bai?

«Hik memoria maite duk, ez historia», entzun behar izan diot behin baino gehiagotan Estebani.

«Non dagoen aldea galdetzerik ba al diot berorri?».

«Oroimenak funtzionatzen duen auzoa, hori memoria duk. Estua duk, ordea, historiatik bereizten duen saihesbidea. Nahikoa duk ezagutu duana, entzuna bada ere, ahaztea, bidean bestaldera pasa eta megapoli beldurgarri horretan sartzeko».

Iaz ama hil zitzaigunean, hamaika mezu jaso nuen. Ordenagailua piztu orduko besarkatzen ninduten adorerako deiak guztiak. Lagunenak batzuk. Laguntzat ere ez nituenenak asko. Tartean, jakin ezazu non itsatsita gelditzen zaizkizun hitzak. Ahazten ez ditugun artean hildakoak ez direla hiltzen zioen batek. Halako zerbait gertatzen delakoan nago, etxekoak ez badira ere, Juanita eta erregeen kontu honekin. Bata, nahikoa izan da agure baten hitza ahanzturara kondenatutako emakume bat, edo behintzat honen izena azalera ateratzeko. Besteak, behin eta berriro aipatuagatik, sakonegi lurperatuak daude

mendeetan gainetik pasa eta pasa aritu arren bizitzara agertzeko.

Bainugelatik lausoa sute bateko leihoetatik bezalaxe ateratzen zela, oinutsik egin nuen sukalderakoa. Bizarra egin behar, ez ahaztu. Atetik sartu orduko, sudur-mintzak hartzen dizkizun kafe urrina. Estiren oharra mahai gainean, erosi beharreko gauzekin. Agurrean, «musu bat».

Maiteri deitu nion.

– Jaso dut zure mezua.

Zer ibili naizen errepikatzen dit, emakumea haserretu egin dela, gehiagotan sartzen ez uzteko aginduko diola harrerakoei, gainera, gizona ez dabilela ongi burutik, urduritu egiten dugula. Badakigula Faustinok zer esan nahi zigun eta uzteko bakean esanda moztu omen dio, erantzuteko aukerarik gabe.

– Eta zuek, zer moduz zabiltzate?

– Oraintxe bukatzen. Akabo hemengoa. Enkargatua ere pasa berri da, eta gauzak jasotzen hasteko agindua eman digu. Astelehenean bertan datozela hondeamakinak, eliza, etxeak eta hilerritik geratzen dena eraistera.

Memoria ahanzturaren laguna da.

Izatez, ez gara gure iraganaren jabe ere, baina. Hutsa behar da zerbait gogoan izatetik, nola ez dakizula, zabortegian betirako ahanzteko.

Amaz oroitzen naizenetan irriz ageri da beti, ingurukoak nahi gabe ere kutsatzen mahaiaren bueltan. Esku hezurtsuak, orain txoria, orain zuhaitza, airean keinuka. Badakit ez zuela eguna irri zuriz ematen, baina hala ageri zait, gazteago zeneko gertaera bat antzezten. Beste guztia galdua da. Menturaz denbora gutxi igaro da orain-dik, horregatik izango da, baina amaren hortz handiak, ahanzturaren bidean. Hemendik urte batzuetara Laida ez da amonaz oroituko. Soiltzen, xaretzen, kolorea galtzen joango da hartaz duen irudia, eta senideok joaten garenean, orduan hilko da. Kalera goazenean gelako atea emeki zarratzean, ate ondoko giltzari sakatuta itzaltzen den bonbilla bat bezala.

– Ari naiz opari eman zenidan liburua amaitzen.

Memoriaren mekanika: ez nintzen berehalakoan ohartu zertaz ari zitzaidan.

– Zer egin didazu, Imanol. Piccoli eta Mastroianni erotu egiten dira Albaniako lan horretan.

– Ez nizun zu zora zaitezen eman...

Amaren irribarrea ikusten diot Maiteri telefonoaren, uhinen, espazioko enegarren geruzaren bestaldean, gomazko goanteak lurrez lohi, katiuskak lokatzetan errotuta. Paisaia beldurgarria zinez: bonbek sabela lehertuta bezala, zuloak han-hemen erakusten hilerria. Lauzak elkarren gainean pilatuak. Batzuk, izena dutenak, batu eta Nagorera igotzeko dira, senideek hala nahi badute. Gehienak, kanposantuko hormakoekin nahastuta, bertan utziko dituzte, batek daki ur gezetako zein animaliaren gordeleku izateko.

– Zaindu zaitez, osorik behar zaitugu –jarraitu nuen, neuri ere irria entzuteko moduan.

Ez zegoen astirik. Berandu heldu zen Faustino eta berandu honen deia. Han geratuko zen Juanita Ardanaz, baina ez agurea loa galarazteraino estekatzen zuen ardura. Ez nuen kontatu gabe utziko istorio hura. Idazteak hori du: letra bakoitzarekin forma hartzen du ordura arte kaosa, lainoa, oroimen zati izan dena. Idazten ditugunean bakarrik egiten ditugu, neurri batean,

istorioak gure. Nituen datuekin erreportaje polita neukan. Argazkiak eginak nizkion. Larraingaingo hilerrikoak ere hor zeuden. Juanitarenak, eskanerretik pasatuta, nahiko kalitate zuen. Neure esku zegoen, beraz, norbaitenean egotekotan, azkenaldian gogoa hartu zidan emakumeari bizitza luzatzea.

– Zaude pixka batean –entzun nuen.

Oscar zen, pozarren amaitu zutelako. Banekien agindutakoa obratu orduko enpresatik alde egiteko amorratzen zegoela.

– *Che*, geratuko gara zer edo zer hartzeko?

Baietz erantzun nion. Nik ere banuen gogoa berarekin egoteko. Gainera, Graf Spee Bilboko blokeoan egon zela bota behar nion.

–15–

Begiak biltzen baditut Patagonian aurki daitezkeen gris guztiek biltzen naute, Maite. Oraingo arropa etiketetan, galtzetan, jaketan, jertseetaneta, deitzen dira bada koloreak horrela, badakizu, arbel grisa, antrazita beltza edo granito zaharra, halaxe etortzen zaizkit niri ere guztiak, Trelew grisa, Caleta Olivia iluna, Puerto Argentino beltza. Haitzei, labarrei, kale harriei lotutako kolore hilak guztiak, hego haietako ordokietako haizea bezain setati erasoan, edota hautsezko bideetakoak, petrolioak zikindutako pertsonena, geltokiena, zeruarena barren-barrenean hozka, kauskaka, *minbizitzen*, ezta metastasia balitz ere.

Baina ongi da, begiak bildu eta deus ez imajinatzera egin. Eta begirik ez badut, usaimena pizten dut. Zurea datorkit orain, izerdi eta loero nahasketa bat, izaren leungarriena eta lingirdena. Itzali egingo dut, ordea, giltza hori ere. Ahorik ez, gozotasun honetatik iratzarriko nauen zaratarik ez. Begiak itxi eta eskuak baino ez izan,

horra zertara naizen bihurtua. Eta eskuineko besoa luzatzen dut, ukitu nahi zaitut, baina ez zaitut esnatu nahi, eta burkoaren gainean pausatu zaizkizun ileak laztantzen dizkizut, begiak zabal ez ditzazun zaintzen beti. Mundua da, istant honetara bildua. Erromantikoen ametsa fisika bilakatua.

Puntu bat espazioan.

Puntu bat zure sorbalda-hezur gainean, eta beste bat, eta bestea, elkarren artean lotutako hamaika tinta sastada bizkarrean gora igotzen ari zaizun muskerra puntuz puntu osatzeko. Tatuatzailearen bekaitz naiz. Minik eman zizun? Eta sabelpean dituzun txinatar idiograma horiek egiterakoan? Itzartzen zerenean, esan behar didazu zer esan nahi duten.

Hori naiz orain. Zure loa, zure sorbaldapeko harri zapalean zirkinik egiten ez duen muskerra balakatzen, laztantzen, babesten duen zaindaria. Errukarria? Neuk nahi dudan neurrian errukarri. Hitz hori erabilita, ez didazu inoiz eraso egin, baina badakit hori dela hain juxtu nigatik sentitu duzuna inoiz, errukia, batez ere Club Atléticon gertatu zena kontatu nizunean. Ez

dakit zergatik biluztu nintzen horrela, Maite. Gezurra, zer diot, badakit zergatik kontatu nizkizun inoiz inori esan ez dizkiodanak. Erraza ikusi nuen, agidanean; gustuko duzu, zuk ere, gizona ume ikustea, kiribildua zure magalean, eta zu nire gainean etzanda, besarkadan osoro babesten, lasai zaitez, nirekin zaude orain Oscar, hona mundua eta aterpea, xukatu malkoak, amaitu da amesgaiztoa.

Egia da ez nuela beste irtenbiderik topatu zure beroa neureganatzeko. Zail nuen besteekin neurtzen hasiz gero, nola egin ikusgarri eskain niezazukeena errukiarekin ez bazen, nola alderatuko nintzen Karlosekin, Imanolekin, nola behin bakarrik ikusiagatik hitzetik hortzera darabilzun Faustino horrekin, ezagutzen ez ditudan hamaika horiekin. Esadazu, nola neurtuko naiz hilobitik gau eta egun deika duzun Juana Ardanaz horrekin haien aldean ahul agertzeke. Hilabeteak dira inorekin egon gabe, eta etxetik kanpo zaudenean oroimena nahikoa izan liteke arnasa hartzeko aldi batez, baina nik norbait behar nuen, nik behar zintudan, Maite.

Kontuak egin ditut, ez da zaila. Hau da elkarren ondoan lo egiten dugun laugarren aldia. Lau gau eta hauen osteko lau egun luze urtegia ezpain berdin bete arteko haranean, gainean eguzki errea eta oinpean ahaztuen hezurrak krakatekoka ditugula. Ez zaizu burutik ere pasa nola eutsiko niokeen basatza horri zu ondoan izateko ilusioa ez banu, zure barruan egon izanaren ilusioak ez banindu akuilatu? Hau amaitzera doa baina, honek eman du eman beharrekoa. Ahuspez zaude, esna egon zintezkeen, aitormen hau entzuten, baina arnasaren konpasean mugitzen den zure soinak salatzen zaitu, Maite. Ez dut berenez beren dudan gorputz hau gehiagotan laztantzeko aukerarik izango, badakit unea ezagutzen, lehenago ere gertatu izan zaidalako dakit.

«Ez dut zurekin katigatuta geratu nahi» esan zenidanetik, badakit agortzen ari den botilatik ari garela. Jolasa urrutiegi eraman dugula aitortzen didazu ahal duzun bakoitzean, norbaitek gu bion artekoaren berri izateak sortzen dizun izuak dardarka jartzen dizkizu begiak so egiten didazunean. Eta nik, berriro ere, onartzen hasi beharra dut ezer ez dela betirako.

Lau, bost, sei... zenbatetan egon daitezke bi maitale elkarren gozoan bietako bat maitemindu gabe?

«Patagonian ez duzu inor utzi?» galdetu izan didazunean, badakit zer esan nahi didazun. Ez duzu egia, ez duzu Las Herasen etxeek zer kolore hartzen duten, nolako zerua dagoen konta diezazudan nahi. Izutu egingo zinateke, ia hilero dago heldu izatera iritsiko ez dela erabakita bere burua argi-indarraren postetik esekitzen duen gazte bat, edo gurasoen auto barruan sartuta betirako lo geratzen dena. Eta baldintza horietan, zaila da inori betirako maiteko duzula esatea. Handik irtetera doanak ez diotso hori inori. Sinetsidazu, nik hogeita bi urte egin nituen inori maite nuela esan gabe.

Matea hartzera heldu zinen lehen arratsalde hartan, kostatu zitzaizun, oroitzen?, ez zenuela inoren beharrik esan zenidan. Hesolak, txarrantxa, iltzeak, hesia jartzen ari zinela ulertu nuen. Horrek egin zuen tentagarriagoa dena.

Desagertuen gaia atera zenuenean, Osvaldo *beltzaz* akordatu nintzen, esan nizun, auzokoa genuen. Maite genuen etxean, maite genuenez.

Han nola egiten zuten, badakizu. Orain hurrengoan entzun nion Imanoli Argentinako desagertuez gehien gustatu zaion filma *Garaje Olimpo* dela, eta ea zer iruditu zitzaidan. Beharbada bera dela txukunena erantzun nion, bai behintzat hemen ikusi ahal izan dituzuenen artean. Hor daukazue ongi azaldua zer izan zen hura. Atxiloketa guneetatik irteterako indizioa eman besagainean, lotaratu, eta hegazkinetara. Ez ziren askorik urruntzen, nahikoa zuten pilotuek itsasora pixka bat ateratzea, badakizu, ibaia da, baina itsasoa dirudi La Platak zabalera hartu orduko. Filma ikusten negar egin nuen. Hegazkinak sabel metalikoa ireki eta gorpuak uretara erortzen uzten hasten zen unean, *Aurora*-ren notak entzuten dira. Eta *Aurora* zer den, guk bakarrik dakigu. Argentinako eskola guztietan jotzen den airea da *Aurora*, Maite, banderari egiten zaion otoitza. Pieza tristearen lehen akordeak entzuten dituzularik, eskola garaira, haurtzarora zaramatza musikak, eta gorputzak dunba-dunbaka jausten, eta umeok kantuan, «goian zerua arrano gerlaria», hegazkinak geldi dagoela ematen du, «zeruaren urdinezko hegal

bat», atxilotuek eta torturatzaileek inoiz, zer zetorren jakin gabetan, «itsasoaren urdinezkoa bestea», elkarrekin abestutako *Aurora*.

Ez bada erraza uretan zuloak egitea, are zailagoa da inor aurkitzea. Gainera, zuek pentsatu aldean, denbora laburra eman dugu desagertuen bila. Han ere errazagoa izan da inoiz aurkituko ez diren zokoetan begiratzea. Hegazkinak ikusi egiten ziren, ordea. Eguzkiak hegaletan jotzen zuenean, zilarrezko bristadak aise ikusten ziren Costanerako edozein ertzetatik. Geldirik dagoela dirudi, urmael azalean legokeen makal hosto bat bezala. Ikusi batera halaxe dagoela esango zenuke zuk ere, nola litekeen metalezko hegazti astun hori geldirik, baina hegal dirdiratsuei beha itsutu arte egoten bazara, orbana gainean duzula ikusten duzu, etxera dator. Motorrak geroago entzuten dira, gurpilak harmonikoki ateratzen Shostakovitxen piezaren gainean, aitonaren hauts epelak urarekin bat egiten duten unean berean.

Zeuk atera zenuen gaia, desagertuena diot, Maite. Eta orduan otu zitzaidan zergatik ez nizun esango, zergatik ez nizun aitortuko ez bada

osoro gezurra ni ere eraman nindutela *Falcon* berde haietako batean, atzeko kofrean eskuak lotuta eta ahoa bozatuta. Ez naiz bakarra, ez nintzateke bakarra izango bizirik itzularazi zutena osin beldurgarri haietako batetik. Egunotan ari dira zuloa egiten autopistapeko habe artean, Club Atlético egon zeneko orubean, ea zer aurkituko. Lagun batek idatzi dit oraindik orain, webgune batean sar nadin agindu. Bizirik atera zirenak ari dira erakusten langileei nondik jarraitu behar duten, zer zegoen orain marrazkiekin, izenekin, zenbakiekin aurkitzen ari diren hormen atzean. Zer du txarretik azken batean beste era batera baina bizi izan dudan iragana moldatzeak? Nori egiten diot kalte neurea ere izan bada iragan hori? Har ezazu ironia gisa, nola esan nizun agurtu gintuela Videlak?

«Zoriontasuna irabazi beharra dago».

Osvaldo eraman zuten goizean, ni ere eraman ninduten, Maite. Gisela atxilotu zutenean, berriz, artean nire barnean geratzen ziren oxigeno, nitrogeno, hidrogeno molekula apurrak igo zituzten hegazkin haietako batera, azken kaltzio, potasio, sodio atomoak. Atxilotu, ez ninduten

berez atxilotu, orain lo zaudela aitortzen dizut, ez ninduten harrapatu, dena izan da beste iragan bat kontatu dizudana, eta ez naiz gaizki sentitzen horregatik, eta benetan diotsut, ni ere, bizirik segitzen duten beste asko bezala, ibaian hobiratutako haietako bat naizelako.

Gainerakoa, badakizu. Hesiak erori egin ziren, zure bihotz hotza hausteko behar nuen mailua topatuta, gogorregi ez jotzea zen kontua. Izotza kendu behar nuen, arian beratu, ez dena hautsi. Egia ere, ez dizut inoiz ezkutatu. Osvaldo eraman zutenean, Patagoniara bidali ninduen amak, petrolioan lan egitera, babestuago egongo nintzelakoan. Han ez zuten *milico*-en garaian ia inor betirako eraman, nahikoa zen lan egitearekin. Eta halaxe izan zen. Lan egin nuen. Neure iraganetik ihesi bizi izan naiz aberriaren azken zulotik atera eta berriro bizitzen hastea erabaki nuenetik. Ezen nik, Maite, han edo hemen, zurekin edo zu gabe, bizi egin nahi baitut.

–16–

– Ez zuan City hotelean izan.

Aurreneko orriko aurreneko lerroa irakurri eta batera egin zidan Oscarrek oharra, Hans Langsdorff kapitainak ez zuela City hoteleko gela batean egin bere buruaz beste, nik idatzia nuen bezala.

– Nik beti entzun izan diat portuan bertan Argentinako armadak zuen egoitzan izan zela, ofizialenean, aurretik ondoko eraikinean zeuden marinel guztiak agurtu ondoren. Itsas Armategia deitzen duk, egun museo bilakaturik duten Etorkinen hoteletik ate-atean, baina berdin ziok.

Nola bada, hala bazen zuzenduko nuela hitz eman nion, berak esandakotik abiatuta nonbaiten irakurri nuelako kontatu dudala horrela, ez neuk asmatua erreportajea edertzearren. City hotela oraindik ere bada, Mayo plazatik bertan, han hil zen jakitea ez da hain zaila ere izango. Azken batean, logikoagoa ere bazen Oscarrek zioen bezala izatea. Zer egiten zuen militar batek turistentzako hotel batean?

– Eta beste gauza bat. Tiro hotsak aldameneko geletako bezeroak iratzarri zituela diok. Seguru hago gauez suizidatu zela?

Begiratuko dudala hobeto.

– Argitaratu egingo duk orduan?

Baietz erantzun diot, kontatu nahi dudala pasarte hori ere, La Platako borrokarena, Langsdorffen gizatasun militarrarena, eta batez ere, eta bekoz beko begira esan diot, «zuen aitonarena, iraganaren itzaletik ihesi, aberri hartuan laketu ezin eta gabonetan-eta euskal kantuak abesten zituen soldadu aleman harena». Ea Oskar Escherren argazkiren bat inguratzeko modurik duen, armadan zen garaikoa («baduk bat, arrebari idatziko zioat, ea azkar bidaltzen duen»). Eskatzen hasita, ahal bazen, Rügengo filmaren kopia igortzeko ere eskatu nion, ikusi nahi nuen. Esango ziola. Ikusi egiten dut kronika igandeko gehigarrian. Ez da samurra egingo, borroka egin beharko dut zuzendariarekin, badakit. Baina aterako da, aterako nuen.

«Utz itzak kontu horiek. Herriak husten hasiko dituk, ekin iezaiok egungo kronika bat idazteari, egunerokoaren idazlea duk kazetaria».

Eskerrak Gema dugun, ni baino trebeagoa zeregin horietan. Bera ari zen hustuketen egunez egunekoa jarraitzen, enpresa eraikitzaileen jukutriak xehatzen, obra burutu zedin gobernuko hainbat kideren interes partikularrak argitara ateratzen.

Lasai nengoen, memoria aipatuko nion. Inork batu ezean Historiaren zabortegira doazen istorioena. Historiaren zabortegia, bai, letra larriz Historia. Nork jaso behar dituen, kazetariak ez bada.

Gehiago esan nahi diot Oscarri, egunen batean eleberri bat idatziko dudala honetaz, oroimenaren arantzez, ahanzturaz eta bizirauteaz. Nobela bat, Oscar, icebergak ibaian behera gogoratzeko diren gauzez, azken batean gure belaunaldiaz, eta badakidala nola hasiko naizen, Buenos Airesen, City hoteleko gela batean.

Esan izan banio galdetuko zidan:

«Eta ni, Imanol, sartuko nauk?».

Berehala zukeen erantzuna:

«Baldinbaitere. Hi gatza haiz. Bizi-nahia».

Erbestearen labanak hartu zuen solasa baina.

– Ni beti izango nauk hangoa, Imanol.

«Ez iezadak negarrik jo» esatera noakio txerazko estutu batez, «niri ez, Oscar, mesedez», baina «hala behar dik, ez?», erantzuten diot hotzago, «bietako izate hori, diot».

– Ni poztuko nindukek egunen batean heure burua hemengo ikusten baduk hangoa ikusteari utzi gabe.

Irakurtzen hasia zen atzera ere. Beraren izenaren gainetik pasatzen ikusi nuen, pertsonaia bihurtua Europatik Ameriketarako joan-etorriko istorio hartan. Amaitu zuen arte ez zuen zirkinik egin.

– Ongi zagok. Horixe duk kontatu niana.

Besterik ez, «ongi zagok» besterik ez zuen esan. Folioak itzuli zizkidan. Atzeko poltsikotik kartera atera eta zenbat diru zuen begiratu zuen.

– Lagunduko didak errekadu batzuk egitera?

Konkortu egiten da espaloian aurrera doala, oinak ez doazkio kurlintenak bezala, bi zangoak luze ageri diren arren kanpotik daraman alkandorapean. Garbi darama ile luzea, argia eta sorbalda gainera eroria. Udaletxe plaza ertzean, bu-

legoan ohi baino beranduago arte geratu diren zinegotzien bizkartzainak berriketan ari dira auto ofizialen inguruan. Futbol kontuak, aldamenetik pasatzen entzun ahal izan diet.

– Hangoak amaitu dituzuela, ezta?

– Berez bai.

Zigarroa piztu zuen Oscarrek, eskaini egin zidan («ez, estimatua zagok, baina utzia diat»), barkatzeko, beti ahazten duela, baina berak behar duela. Bost-sei ufada eman orduko oinetako muturrarekin zapalduko zuen zigarrokina azokara sartu aurretik.

Ixten ari ziren. Presaka erosi genituen biharetzirako behar zituenak. Azkar egitekoa dena, zartaginekoa: xerra pare bat, arrautzak, jogurtak. Zer egin behar duen galdetzen diot, («lanarekin?»), baduela zerbait dio, («Telefonicatik deituko zidatek laster»). Segurua al den. Baietz. Ez luke hain seguru egon behar, baikorregia da, ez sinesteko agindutako guztiak esan behar nioke, hemen errazegi agintzen zaiola kanpokoari dena, baina ez diotsot deus («ongi orduan»).

Arratsaldeek oso bestelako itxura hartzen dute ekain erdi alderako, argiak halako alaitasun

bat irabazten du egunetik egunera. Santo Domingon behera abiatu ginen. Autoak Hezkuntza aurreko parkingetik ateratzen, jende asko gora eta behera oinez etxera bidean. Eskaini zioten segitu nahi izanez gero, enpresan bertan, suntsiketan aritzeko. Ezetz erantzun zuen. Gauzak hasieratik zeuden ezinago oker, langileak herrien hustuketen kontrako protestetan dabiltzanei jazarri izan zaizkie. Ez zirela horregatik hasi hilerrietakoekin erantzun ziela, ez kamioi astunekin jendea azpian harrapatzeko. Nik badakit Maitegatik sartu zela bera, lepoa egingo nuke. Pentsatzen dut Maitek zergatik esan zion baietz aurrez katalogatutako hezurrak ateratzea besterik eskaintzen ez zion azpikontrata hari. Ez zen erronka handiegia auzi-antropologo batentzat.

Sabotajeena aipatu nion. Zortziehun metroko kableak txinparta artean etenda erortzen, zinpekoa lotua eta pistola garita gainean. Telebista kamerek jaso zuten guztia. Oscarrek entzundakoagatik zuen ekintzaren berri. Laster dira epaitzekoak egin beharrekoak burututa atxilo noiz hartuko hantxe bertan geldirik egotea erabaki zuten zortziak.

Tignes-koa kontatu diot, 1952ko udaberrian, EDF argindar konpainiaren aspaldiko asmo bat Savoian. Populazioak ez zuen jakin urtegia eraikiko zutela sinatu eta zortzi urtera arte. Tignes berrian, lehorrekoan, urpean geratuko zen elizaren bikia eraiki zen. Itoizkoan bezala, erretaulak, estatuak, kanpaiak dena kendu zitzaion eraikin zaharrari. Orduan ere izan ziren sabotajeak. Historiak errepikatu egiten direlakoa, nola ez, ulertzen du, poztu egin da, berak behartu nauela uste dut hori esatera. Tignesen biztanleek eginahalak eta bi egin zituzten beren hilak hobietatik ez ateratzeko, lurpeko jendea protestaka «gu hemengoak gara». Hilik ere oihuka: «Hemen bizi nahi dugu». Hezurrak urtegiaren kontrako arma nagusi bihurtu ziren. Argazkiak ikusi ditut: andre-gizon batzuk, beraiek osorik estaltzeko moduko zuloan sartuta, palak eskuan. Goian, katabut hutsak horma gainean etzanda. Azkenean, CRSek babestuta atera zituzten gorpuzkinak, eta Boissesko eliza berrira eraman. Udal artxiboak ere jendarme artean garraiatu behar izan zituzten. Egun, neguko kirolen estazio olinpikoa dago Tignesen.

Zarata zebilen hurrengo astean sartuko zirela Itoitz hustera, abisua pasea ziguten. Luze gabe, hildakoak aterata, bizidunak indarrez lekoratu eta mendeetan sustraiak botatako etxeak, Jakue, Bernatena edo Santa Eulaliako eliza bera, hondeamakinek eraitsiko zituzten. Etxe, biltegi, etxalde, lastategi edo transformadore, Artzin eta Longidan, bi haranen artean, erredakzioan ditut datuak, «ehun eta bost izango dira orotara lurrarekin berdinduko dituzten eraikinak» esan nion. Eta ura, «froga gisa» bazen ere, hasia zen bizidunek ez ezik hildakoek ere utzi beharreko lurrak hartzen.

Nahitara egin nuen geldialdia zubian. Espaloian zetorren inori enbarazurik ez egiteko, ibaiaren emanean barneratzen diren hiru erpinetako batean sartu nintzen, beheko begi gainekoan, besoak baranda berdearen gainean pausatuta. Espero nuen bezala, atzetik etorri zitzaidan. Besoak tolestean, erosketen poltsa eskumuturretik zintzilika geratu zitzaion.

– Hementxe aurkitu zitean Juana.

Urari beha geratu gara. Hegitik, platano gaitzek hosto muskerrez betetako adarrak makur-

tzen dituzte Arga gainera. Jose Joaquin Arazuriren entziklopediatik ateratako fitxa bat eman zidan Estebanek aspaldi ez dela: 1899an landarazi zituen udalak arropa garbitzaileei gerizpea emateko. Adar berdetuek tunel gisakoa egiten dutela ikusten da. Inoiz piraguentzako inoiz ahateentzako ubidea ibaiaren albo batean. Hostotzan, ikusi batera nabarmen ageri ez diren txorien kantua. Zuhaitz hauek dira gertatu zenaren lekuko, datorkit. Halaxe esan diot Oscarri. Egun, ez dago lixibarrien arrastorik. Urteak dira falta direla.

– Zer nahi duk esatea –diost–. Ez diat garbi ikusten.

– Eta Maitek?

– Itsututa zagok, bi egun nahikoa direla.

Zurtu egin nintzen, orpoz ipurdi osatu behar izan nuen zer gertatu zen azken orduetan. Belarria ere ipiniko nuke hala dela: asteburuan, enpresaren ezkutuan bilatu nahi ditu Maitek Juana Ardanazen gorpuzkinak. Oscar eta bera bakarrik, azken ahaleginean.

Laneguna ez izanagatik, ez dute langetatik aurrera pasatzeko oztoporik izango. Ezagutzen

dituzte, Ramos Arzu enpresarentzat ari dira, hala jartzen du letra handiz furgoneta saihetsean. Eta ni? Non sartzen nintzen Maiteren tema hartan? Oscarrek lagunduko diola hitz emanda, nahiago izan du ni ez kakaztu, ez diost ezer, badakit, nahiago izan du goza dezadan familiaz, konpon dezadan konpondu beharrekoa etxean, dena hondora joan dakidan baino lehen. Inor molestatu gabeko eginbehar hori, gero deia egiteko: «Imanol, topatu dut. Zuhaizpean zuten».

– Portugesekin?

– Ez, biok bakarrik.

Erpuruan pausatuta, erdiko hatzaz jo du zigarrokina Oscarrek. Loratuta erori da uretara.

– Arbolaren bueltan hasiko zarete, noski.

Berehala galdu da zubipean.

Igaro diren urteak direla-eta, ezin izango dituztela zundak erabili lurra non dagoen biguna-go jakiteko, baina inon izatekotan, Maitek ere hantxe ikusten duela. Eskuz harrotu beharko dutela, enpresak ez lieke makinarik utziko. Bestalde, portugesak etxera bidean, nork erabili ere ez dago.

– Artzapezpikutzako zerrendetan badago?

– Han ez duk Juana Ardanazik ageri.

Ulertu behar nuke Oscarren ilusio eza.

– Noiz geratu zarete?

– Bederatzietan Las Pocholas aurrean.

Zubiaren beste muturrean, ihiak, uretatik zurtointzen.

Eta itzal ezagun bat zubi burutik gorantz, gugana. Goiko bizilaguna da, atsekabetuta dator.

– Ez dakizu zer gertatu den Imanol... ahizpa, Barajasen atzera bota dutela. Ekuadorrera itzuli dute.

Oscarri begiratu gabe egin du aurrera, itzaletan galtzeko.

Urrutiegi ez joatea erabaki genuen, etxerako bidea garaiz hartuko genuela. Zezenen ukuiluak albo batean utzita, autoen orubea zeharkatu eta urteetan ibili gabeko kaleetan sartu ninduen, («hemen bizi nauk»). Bakarrik geratu nintzen bebarruan. Guayaquilgo aireportua nolakoa izango den etorri zitzaidan. Turistentzako afixak hormetan nonahi. Ez izateko droga garraiatzeko tentaziorik, ez onartzeko inoren paketerik. Poliziak hegaldien zain. Berehala zen behean. Hozkailuan sartu gabe utzi zituela erositakoak.

– Nahi duk benetako argentinar bat ezagutu?

Ez genituen bi minutu egin taberna estu batean sartu ninduen arte. Musika ozen zegoen, («Charly Garcia duk, ezagutzen?»). Hormetan, Boca Juniorsen eta Perito Moreno glaziarraren poster bana, eta apaletan, objektuen elemenia ikusgarria, Ushuaiatik La Quiacara artekoan aurki daitezkeen traste zahar guztiak, hautsa jasotzeko beren-beregi jarriak ziruditenak botila artean.

– Atera duk nondik datorkion izena zulo honi?

Erreparatu ez eta ez dakit zer dioen, Maiterena dut buruan, baina konta diezadan eskatzen diot: ba omen zen Valdes penintsulan itsas otso bat, baleak ikustera inguraturiko turistekin ohitu eta zeharo lotsagabetu zena. Denborarekin, esan zidan, hainbesteko lilura sortzen zioten bisitarien gauza haiek («kamera, erloju, *lonely planet*-ak, nahi duzuna»), non ezarian hauek ebatsi eta jaten ikasi zuen.

– Egun batean ez zen gehiago agertu. Arrainetan ahaztu egin zitzaiola zabaldu zen. Sabelean zeraman zamaren zamaz, behin uretan sartu eta bertan gelditu zela. Hor duk itsas lehoi

hura harrapatu zuen arrantzalea, Imanol. Eta hor atzean animaliak urdailean zituenak. Kontaiok, *iharra,* kontaiok. Kazetaria duk, istorioak maite ditik.

Eskua altxatuz agurtu zuen tabernaria. Beste muturrean, barra gainean erdi lo zegoen adinez ia agure bati ari zitzaion hau, joateko etxera, ardoak itzala egina ziola.

– Bi *Quilmes*, hotzak.

Etorkina, erbesteratua ez bezala, ez dagoela etxeko edozer jasotzera behartuta esan nion Oscarri; ez dela egia batetik besterakoan objektuen pilaketak mantentzen zaituela bizirik. Metafora moduan ezin onar dezaket.

– Ez hadi horren seguru egon.

Erlojuari eman nion begia: bederatziak laurden gutxi.

«Hauxe hartu eta etxera noak», esan nion. Alaba jarri nuen aitzakia, («Laidak lo hartu aurretik heldu nahi diat»). Gainera, eta hau da esan ez niona, orfidala eta paroxetina ez dira ongiegi konpontzen alkoholarekin.

– Zergatik kontatu nahi dituk istorio hauek?

– Kazetaria nauk, hori diat lanbide, istorioak kontatzea.

– Eta beti kontatzen duk egia?

– Egia baino, errealitatea, ez? Errealitate txatalak nire begien bidez kontatuta. Ez duk besterik.

Hormako erlojuak atzerantz zerabiltzan orratzak. Beha ikusi ninduen. «Sorterrira lehenago heltzeko duk, ezta zaharra?», bota zion tabernariak Oscarri. Gaitarako zebiltzan biak. Botila begian sartu zuen atzamarra. Pentsakor gelditu zen. Uste nuen banekiela zer esango zidan: zer errealitate den nirea berak kontatua bada Graf Speeren abentura. Non nengoen ni Juana Ardanaz ibaian lixibarri artean trabatuta azaldu zenean.

– Ez didak erantzun. Hori baino gehiago duk. Jende guztiak dik errealitatea aurrean, baina ikusi, zenbatek? Hori duk zuen zeregina. Gehienetan errealitatea hain duk itsusia non ez dugun ezertarako hari begietara so egiterik nahi izaten. Nahikoa diagu bizitzearekin. Zuen lana duk guri dena eramangarriagoa egitea, egia kontatzen di-

guzuela sinetsaraztea. Horregatik erabili diat egia eta ez errealitatea.

Beharbada zuzen zegoela erantzun nion, baina ez idealizatzeko gure lanbidea, ez ginela egokienak ahotan zerabilen horretarako.

– Ez didak ulertu. Esan nahi diat askotan egia ez esanda laguntzen duzuela gure kontzientziak garbitzen eta hala gu lasaiago bizitzen.

– Engainua esan nahi duk?

– Ez derrigorrean. Idazleek egiten ditek, errealitate zatar hori eder bihurtu, eta hala eman hazkurria gose denari. Zuena zailagoa duk. Zalantza izpirik gabeko egia moduan saldu behar duzue eskaintzen duzuena. Horregatik, ez zaidak hain berebizikoa City hotelean izan zen edo Armategiko egoitzan.

Ez zuen esku artean nituen bi istorioena berehalakoan bota, lehendik zebilkion buruan:

– Gauza bat, Imanol. Hans Langsdorff eta nola da Maite bila dabilen emakumea... Ardanaz, Juana Ardanaz, ez dituk biak gerraren ispilu bera?

– Zer esan nahi duk?

– Egun gerra egiteko inon aurkitzen ez den etika baten jabe bata; gerra amaituta ere haren txingarretan errea bestea, biak direla gerraren bidegabekeria biktima.

– Ez haiz benetan ari.

– Bi istorio dituk, baina arrazoia bera duk ongi begiratuta. Gerraren dolareak irentsi zitian biak. Azken beltzean zer, ahulegiak zituan.

– Ez itzak konpara.

Ez nengoen lerdokeriak entzuteko.

– Ez ezak gaizki har, baina bazagok istorio bat gurean, hi bezalako kazetari batena. Behin, 56a zela uste diat, Pedro Eugenio Arambururen diktaduraren kontrako ahalegin bat egon zuan. Ez zuan ongi atera, eta gazte batzuk hartu eta fusilatzera eraman zitiztean Buenos Aires kanpo-aldeko zabortegi batera. Handik sei hilabetera, xakean ari zen kazetari batek abisua jaso zian:

«Fusilatuetako bat bizi duk».

– Nola biziko duk fusilatu bazuten.

Berriro errepikatu zidan:

– «Fusilatuetako bat bizi duk», esan ziotean.

– Eta?

– Bizi zela. Topatu zian, hitz egin zian harekin...

– Ez diat ulertzen nora heldu nahi duan.

– Hi habilen moduan, historiak ondo itxi gabeko kapitulu hartatik, geldiro, ez bat, ez bi, hariari tiraka zazpi fusilatu bizi aurkitu zitian kazetariak. Haien lekukotzei esker berregin zian Jose Leon Suarezko zabortegiko gau beldurgarri hura. Maisulan bat duk egun ere.

– Oscar...

– Handik urte batzuetara desagertarazi egin zitean. Bai, kazetaria bera. Militarrek, nork bestela. Rodolfo Walsh zian izena.

– Hau ez duk Argentina.

– Baina ni handik natorrek, Imanol. Bazakiat zer gertatzen den zakurra amorrarazten bada. Hans Langsdorff, Juana Ardanaz, hik nahi duana esango duk, baina esaten diat, ez zagok peso erdi baten alderik bien artean.

– Hoa txakurraren salara, Oscar!

Kanporantz ateratzeko keinua egin nuen. Ahaztu aurretiko zerbait nuen:

– Galdera bat egin behar diat, Oscar. Zer dira Rügengo labarrak?

– Zer?

– Rügengo labarrak, zer esan nahi duen.

Sorbalda gainean etzan zitzaidanean txotxongilo baten jitea hartu nion. Masaileraino hurreratu zitzaidan hitz egiteko, eta garagardo eta tabako kiratsa izan zen mintzatu zena.

– Haurtzaroa, zoriontsuagoak izan gineneko garai hura. Bahuen galdetzeko ordua.

Basa eginda geunden biok.

– Hago pixka batean. Galdetzen hasi haizenez... utzidak orain neuri bat egiten, Imanol. Nire aitonaren istorioa, Langsdorffena gabe, ez zukean aterako ez?

Besotik heldua ninduen.

– Hotel bat, leihotik begiratu eta hiri handi baten argiak. Ohe gaineko kapitain suizidarenak ematen ziok kolorea hire kontakizunari. Bestela, zer daukak? Alemaniarrena ez duk hain istorio ona. Ez ezak gaizki hartu baina hik piroteknia maite duk...

Piroteknia esan zuen, piroteknia periodistikoa zela Graf Speeko marinelekin egin nahi nuena.

– Eta Juanarena? Piroteknia duk hori ere?

– Ez, hori lehen mundukoen kontzientzia txarraren aspirina duk. Ari haiz heure ustez zerbaitetan. Zeren bila? Tibia bat, berna hezur bat gerra osteko batzuen larderia salatzeko, gizajo batzuen irudia salbatzeko. Eta? Hori duk dena?

– Ni ez nagok ezer aldatzeko.

Ez zegoen bakerako:

– Hezur batzuk, urtegi bat... Europan, ez duzue benetan beste kezkarik?

Ez nuen asmatu ezer berririk esaten, ahal izan nuen moduan babestu nuen neure burua, betikoa esan nion, Historiaren zabortegian amildu aurretik atera beharreko istorioak nituela («Historia bai, letra larriz»), inoiz gertatua kontatzen duen kazetaria baino ez naizela.

– A, bai, beste Lady Di bat, pertsonen kontrako minak erauzten Angolako soroetan...

– Ostia, Oscar...

Hozka egin nion ezpainari, ukabila estutu barra gainean. Lotsagabetuta, beste erronda bat eskatu nuen («*iharra*, beste bi, azkenak»). Ez nintzen pentsatutako orduan etxeratuko.

– Ez haiz hi, Imanol, dolarea duk, zuen gizarte hau. Hemen horrek lasaitzen bazaituzte, au-

rrera. Ohartua nagok. Mundua oso bestela zabilek, ordea. Baten batek esan behar zian.

Berandu zen oso. Tabernariak musika apaldu eta erratza atera zuen.

– Hau ez duk onen eta gaiztoen arteko zerbait, ez gu bion artean behintzat, Imanol. Entzun dituanak entzunda, esan behar diat, heu haiz hala ere ezagutzen ditudan kazetarien arteko txukunena, pentsa zertara ohitua naizen. Eta ni...

– Hi, zer?

Kokotsa altxatuta egon nintzen erantzunaren zain.

– Ni ere urruti nagoela heroi bat izatetik.

Hurrengo egunean *Polaroid* batez egindako argazkia aurkitu nuen alkandorako poltsikoan, *Bon apetit* zioen paperezko ezpain-zapi mehean bildua. Paperean, ohar bat: *Der gute Kamerad*. Oscarren letra zen. *Gure lagun ona*, XIX. mendeko alemaniar doinu militar bat da, Langsdorffi oraindik ere bere marinelek urtean behineko omenaldian abesten diotena. Oscarrek jarri ninduen arrastoan ez dakit zenbatgarren botilan. Erretratukoak berriz, biok ginen El lobo chorro-ko

barran, lepotik helduta. Barreneko zerrenda zurian, Oscarrek zerbait idatzi zuen boligrafo beltzez: «Mila esker nirekin honaino etortzeagatik. Oskar Escher, Bs. As. 1939».

Ez zidan grazia pitorik egin.

–17–

Ez nuen nahi Esti kezka zedin. Denboralea neraman gauez begiak behar den bezala biltzeke, eta egunez nekea gailentzen zitzaidan. Atzendutako lan bat erredakzioan larunbatean bertan entregatu beharra nuela esanda atera nintzen etxetik. Lanera ez nintzela astelehen arte azalduko abisatu nuen, eztarria hartua nuela, burutik beherakoak ez zidala arnasa hartzen uzten. Gau txarra pasatu nuela oso esan nion Gemari.

– Alaba ibili dun aurrena, orain neu.

Ez zen erabateko gezurra ere, gaua egunduta eman nuen; gainera, arranoa, ez zen egunkarirako lana esku artean nerabilena? Buelta ematen nuen aldiro iratzarri nuen Esti. Zer dudan. Ezer ez, segitzeko lo.

– Bazkaritara etorriko zara?

– Ez dut uste.

Amarenera eramango zuela Laida orduan. Han egongo zirela, lehenago heltzen banintzen. Urteetako harremana hondora doanean, harrigarria da nolako pausua hartzen duten hitzek.

Dena da lasaiagoa, trumoiak jo aurretik belar moztu berriaren usaina aditzen duzunean bezala.

– Ederra egiten diguk, baina moldatuko gaituk –Gemak.

Ahul itxura ematen ahalegindu nintzen, zakur eztula atera nuen, ez entzuteko moduan mintzatu nintzaion erredakzioko lagunari. Gehiegi fio beroaz eta hoztu egin nintzela.

– Eskertzen dinat.

– Beste gauza bat. Bisita izan diagu gauean –esan zuen bat-batean–. Oraintxe ninduan deitzeko.

Sarraila behartuta aurkitu zutela. Barruan gauza askorik ez zela falta, antza. Ez zirudiela Poliziaren lana, baina ikusteko, aurrez jasotako abisuak ez zirela txantxetakoak. Bazegoen jendea ez zuena ongi hartu Gemak Itoitzen inguruan azkenaldian argitaratutakoa.

– Itsu nahi naitek. Nire betaurrekoak. Eta kaseteak, grabazio batzuk.

– Nire mahaian?

– Itxuraz, ezer ez. Etortzen haizenean ikusiko duk.

Dena utzi eta erredakziotik igarotzeko harra. Gemak berak lasaitu ninduen.

– Presa gabe, pasa ahal duanean eta salaketa jarri behar diagu.

– Ea bihar –esan nion.

– Hori bai, bihar bahator ez duk ikusiko utzi diguten oparia.

– Zer opari?

– Ikusiko duk.

– Esadan...

– Txiza arrasta hire mahaian. Ez duk zuhurregia izan beharrik, nahikoa duk kazetaria izanda: bat gizonezkoa zuan behintzat.

Berriro eragin Larraingainera abiatu aurretik egin beharrekoei. Azken egiaztapena ordenaren egokitasunari: Faustino, Artzapezpikutza, Soledad. Horrela egingo nuen pentsatutakoa.

Faustino Ibañezena, ilobarena jakinda, ez dakit nola espero nuen ongi ateratzea. Kontua da larunbatean goizetik ugaritzen direla bisitak egoitzan, eta ez dela erraza sartzen den guztia nor den jakitea. Hori nuen neure fabore. Eta pentsatu aldean erraz gurutzatu nuen sarrerako aretoa, harreran ez ziren ohartu ere egin pasabidee-

tan barneratu zen gizon urduriaz, eta hala bazen, geletan nengoen. Orduan konturatu nintzen eginahalaren alferraz. Ez nekien zein zen Faustinorena. Galdetu nuen, baina okerreko atean jo nuen bitan. Jaitsi eta egongela nagusian begiratu nuen. Inor ez.

Gehiegi saiatu ez izanaren harrarekin irten nuen egoitzatik. Nolanahi, ez nuen asko gehiagorik ateratzeko Faustinori. Azken ahaleginaren pena, non sartu zuten, gogoratzeko ongi zer entzun zuen Tolosan. Gero bestela, hainbeste urteren ondoren Iruñera itzuli zenean. Edo osterantzean, pentsatzeko nork lagun diezagukeen horretan. Bi egun baino ez genituela makinek kanposantua Larraingaingo etxe eraitsien harriez estaltzeko.

«Atera ezazue handik!».

Oinaztura balitz bezala etorri zitzaidan bristadak kezkatu ninduen gauean: hezurrekin, zer egin behar genuen? Semea Ameriketan, non ez dakigula; Faustino izan ezik lagun ezagunik ez, nori utzi behar genion metalezko kutxa oinetan? («tori, hemen duzu, atera dugu. Ez da berriz itoko»).

Autoa hartu eta ibaia gurutzatuta, zezen plaza ondoan utzi nuen. Labrit atzetik, berehala nintzen artzapezpikuaren jauregian. Ez ninduen ustekabean harrapatu, artxiboa giltzatuta zegoen («astelehen arte; gainera, ordua eskatu behar da»). Ez nintzen premiazkoa zela azaltzen ahalegindu gizon zimurrari, batzuetan galdu egiten dut kazetarioi egozten zaigun *savoir faire* hori. Bi dei egin nituen. Dena ez zegoen galdua. Soledad Barañainen bizi zen orain, alabarenean. Emateko tarte bat, hamar minutu behar omen zuten helbidea topatzeko.

Hamaikak jo gabe frontoi ondokoan kafea tortillarekin hartzen nuen artean, begiratu azkarra eman nion prentsari. Azalean, bezperakoa, gaurkoa edo biharkoa izan daitekeen argazkia: Saddam Husseinen ehunetik gora jarraitzaile hil dituzte Pentagonoko soldaduek Irak iparraldean. Kulturan, kasualitate liluragarri horietako bat. Elkarrizketa Paul Austerri: «Faxismo uhinaren abangoardiak agintzen du Estatu Batuetan». Esanda baino lehenago jo zuen telefonoak. Joateko lasai, zain nuela.

Hilabete lehenago bezalaxe hartu ninduen Soledadek. Oker nengoen, aldaketak ez zion bihotza ilundu.

– Gordea dut gutaz idatzi zenuena. Baten batek jaso behar zuen. Mila esker.

Gorritzen ikusi ninduen, barre egin zuen. Eta poztu egin nintzen. Mesede egin zion hiriko bizimoduak. Bakarrik geunden alabaren etxeko egongelan. Atearen bestaldean, aspiradora bat zokaloetako zuraren kontra. Txikia da Soledad, azal zuriak garden bihurtzen du ia. Mapa bat da. Eskumuturreko muinoen artean zainek ibai urdinak dirudite nonbaitera bidean. Argazkia aterako niokeen makina aldean izatera.

– Soledad –bota nion, beharbada azkarregi–, ezagutu zenuen Juana Ardanaz izeneko neska bat Larraingainen?

Berea ez, Juanarena zen han, ordea, foto bakarra. Esku dardarti batek jaso zuen har zezala erregutu nionean, begiratzeko lasai.

Aitaren presatu bat egin zuen. Ahoa estali zuen gero, erpurua gora eta beste lau atzamarrak bilduta irribarre joana gordetzen.

– Gaixoa!

– Ezagutu zenuen orduan? –poztu nintzen.

– Ezagutuko ez nuen ba!

Faustinok esandako guztia kontatu nion, gutxi-asko hark aletuta bezalaxe. Hitzik egiterako erantsi nuen gainerakoa, nola gabiltzan haren hobiaren bila, denbora dugula kontra, berandu mugitu garela eta ea laguntzerik duen.

Buruaz ezetz egiten ikusi nuen solasa amaitu orduko.

– Ez? Zer ez?

Isilik jarraitu zuen une batez, begiak Juanaren argazki irriberan. Hotsagatik, lapikoa sukaldeko azulejuak eta leihoak lurruntzen. Aspiradora isildu egin zen. Barazki usaina guganaino heltzen.

– Ez dut sekula entzun han dagoela.

Zein den egia orduan galdetu nion. Zer zekien berak.

Lehenago Faustinok egin bezalaxe, Soledaden hitz bakoitzarekin osatzen hasi zen Juana. Xehetasunak ez ziren oso bestelakoak. Gaztetako kontuak arrunt naroago zetozen, eta Juana jolasean eskaintzen zitzaidan Larraingainen, edo Artozkin, edo Muniainen, artean urte batzuk gazteagoa zen Soledaden begietara. Dantzan ageri

zen andrearen ninietako plazan, lizarren azpian. Edo asto batekin esneketan, hurritz makila zuela eskuan. Tarteka, aberastu egiten zuen aurrez genekiena. Faustinok ez bezala, gomutan zuen Irungo frontean hildako senar burugorriaren abizena («Munarriz, bai, Munarriz»); semea, aldiz («Juan, amarena»), ez zukeela ezagutuko orain ikustera.

– Izeba moja batek eraman zuen berarekin.

– Ameriketara?

– Ez nizuke esango, hala zabaldu zen orduan.

Heriotzak baldintzatzen zuen, ordea, guztia. Ibaian agertu zelakoa, halaxe du gogoan Soledadek ere.

– Esamesak ibili ziren, badakizu, bere burua bota ote zuen, baina istripua izan behar zuen, izotzetan irrist egin eta ibaira erori. Hala izan dut beti aditzera.

– Ez zuten Larraingainen lurperatu orduan?

– Han ez badago Iruñean egongo da. Arrotxapean ez zen ba bizi?

Garbi zegoen hasierako ilusioa xaretzen zihoakidala. Gazteagoa izanagatik Soledad ez zen Juanaren azken urteak, eta hauekin batera,

haren heriotza eta ondorengo egunetako gertaerak argitzeko gauza. Ez zen edo ez zuen nahi.

– Sasoitako kontuekin zatoz, amante!

Maitez eta Oscarrez gogoratu nintzen, zulo eginean urpean. Beharbada Soledad zuzen zegoen, dena asmatua zen. Beharbada borrokaren mitoak galdu zuen Faustino, bere buruari kontatu eta kontatu eta azkenean berak sinetsitako istorioa zuen Juanarena, ez zen aurrenekoa izango. Ordurako, eta nahiago nuen oker egon, ikasia nintzen «sasoitako kontuak» aipatzeak zer esan nahi zuen gehienetan.

«Adinekoen artean, bi pertsona mota dago: oroitu nahi dutenak eta nahi ez dutenak» esan zidan behin lagun psikologo batek. Geriatrikoan aritzen da, eta bazekiela zertaz ari zen azpimarratu zidan: «Eta ez du jator portatzearekin zerikusirik, biziraupenarekin baizik».

Hipotesietara jolas egin nuen: orduan ere ez zen jende askorik biziko inguruetan. Lurperatzeko, herriko jendea erabiliko zuten. Bestaldekoak seguruenik, eskarmentua eman nahi bazen eta izua zabaldu. Ezkutuan egin nahi izatea ere, lite-

keena da hala izatea. Bestela, isiltzen ari bazen, nahita ari zen.

Ezin izan nion laguntza emango ligukeen inoren izenik atera.

– Herria hirurogeita hiruan hustu zen.

– Hirurogeita hiruan? Geroago izan zelakoan nengoen.

– Larraingain bai, hirurogeita hiruan. Kennedy hil zuten urtea delako akordatu izan naiz beti.

– Eta Joan XXIII.a –erantsi nuen lotsagabe. Ez zuen hain buru txarra.

Ezarian, irria itzuli zitzaion.

– Baita Grimau ere, Julian Grimau –jarraitu nuen–. Akorduan izango duzu Grimau. Guztiak neu jaio nintzen urtean hil zirelako dakit.

Etxeko baten bitartez, ezagutu nituen Grimau hil zuten egunean Iruñeko elkarte batean fusilatzea xanpainez ospatu zutenak. Osaba bat. Urtegiko lanen kontura diru asko egiten ari zen haietako bat orain.

– Ez zait ezaguna egiten.

Esan behar nion: Valjonteko urtegia lehertu zen urtea izan zen hirurogeita hirua.

Atetik sartu nintzenean baino lasaiago nengoen, nahiz eta Soledadi entzun ostean Juanaren hezurrak aurkitzeko aukerak, neurri batean, asko murrizten ziren. Azken beltzean ez genuen ez lekukotza ez agiri bakar bat, eta Soledadek ez zuen hizpidera ekarri nahi, garbi zegoen, lurperatzearena. Juanak makiari emandako balizko laguntza ere, normala, arrunt zen ahula («senarra erreketea zuen arren, bera ez zen horietakoa, kontrakoa esango nuke nik, baina ez dakit gehiago»). Faustinok osoro asmatua ez bazen oso zitekeena zen gaizki ulertua izatea, jakizu nola heldu zen berria Frantziara, nork eta nola kontatua.

Bi egunetan ezin gehiago.

Kontuak egitea ez zen zaila. Egunen batean dokumenturen bat lortuko bagenu, beranduegi izango zen. Lurraz gain, hilerriko hormako harriak izango zituzkeen gorpuak gainean. Eta pixka bat atzenduz gero, milaka tona ur.

Hain larria ere ez zela pentsatzen etsitzen hasia nintzen. Otsoportillon behera botatakoengana zihoakidan ihesi oroimena: han ere baziren urte askoren ostean leizean sartutakoak, mendi-

zaleak sokekin-eta. Hala ere, ez da, nik dakidala, hezurrik atera. Ez nuen behintzat, hala izan bazen, gertaeraren berririk.

Eta haiek ez bezala, gorpurik agertu ezean ere, Juana Ardanazek bere historia izango zuen, Faustinori esker idazten hasia nintzena.

Abantzu hirurak ziren Agoitzera heldu nintzenean. Ez zeuden jantokian. Banekien berandu baino lehen jaitsiko zirela bazkaltzera. Larunbatetan luzatu egiten da dena. Ez nenbilen oker. Neure atzetik sartu ziren, lokatzez beteak.

Deus ez.

– Benetan?

Ostatuko elkarrizketa hizpidera atera gabe mintzo zitzaidan Oscar, nola harrotu zuten zuhaitz inguru guztia, erroak agerian uzteraino. Barrenera, metro eta erdi inguruaino aitzurtu omen zuten. Ea zer gehiago egin litekeen galdetu zidan Maiteri begira, erantzuna berarekin dakarren tonuaz.

– Makinarik gabe, eskuz ez zagok ezer egiterik.

– Ez ezazu horrela hitz egin –errieta Maitek.

Han egotekotan, jo behar zuen honezkero pala muturrak hezurren bat.

– Eta ez dakizu onena.

Orduan agertzen da, pixkanaka eta mamu baten gisa Maiteren mintzoan Artzapezpikutzako artxiboan behar nuen laguntza hezurrez betetako kutxak bedeinkatzera.

– Aurreko bera, herrena.

– Lupuak jango ahal du! Eta?

– Ez dagoela inor hilerritik kanpo. Begiratu dituela paperak, eta daudenak daudela, besterik ez.

Denen uko artean, egoitzan heriotzaren zain zegoen gizona bezain bakarrik, Faustinoren kontakizunak balio epikoa hartua zuen. Ero baten asmazioa zen bestela guztia, iragana edertzera jolasten ari zen agurearen fikzioa.

– Eta hara non botatzen digun erdi-erditik ez segitzeko, han ez dagoela inor!

Begiratzen diot, eta gizon etsitu bat ikusten dut esku hanpatuei beha, nekatuta dagoena. Nik badakit zer darabilen Oscarrek kaskoan, Maite, ez daki zer egiten duen hemen, etxeak harrapatu du berriro ere, identifikatu ezin ditudan objek-

tuek, aurpegiek, zoriontsuagoa izan zen garaiak. Gogoa eman dit esateko, «Rügengo labarrak, Oscar, labarren deia duk hori!», baina besterik ezin dezakeenarena du keinua dagoeneko. Akitua dago, behera dator, ez da goiko zuloetara itzuliko, eginahalak egingo ditu Maite eta biok igo ez gaitezen.

Ostatuan katigatu ginenean bezala:

– Hura ez dago han.

Oscarren begitarte burlosoa El lobo chorroko barran, pirotekniaz eta aspirinaz, hitz bakoitzarekin ukabilkadaka.

Maite ez da sumintzen, ez da nekeak leher eginda erasoan hasten, eutsi egiten dio Oscarren begiei, hitzik egin gabe jaikiarazi nahi du mahaitik, lagun diezaiola, behar duela, azken ahalegina, ilundu arte.

Beste kafe bana eskatu dut. Belar orujo bat, bi zerbeza. Geurea izan ezik, batuta daude osterantzeko mahai guztiak, afaritarako atonduta. Azkenak gara jatetxean.

Isildu egiten naiz, ni gabe konpon dezaten nahi dut, ez dakit zer esan, zeri eutsi, nori sinetsi. Honaino helduta, Faustinoren kontaketa So-

ledaden beldurrarekin nahasten da, Artzapezpikutzako handigoitia Oscarren etsiarekin, eta Maiteren esperantza pizarrekin ni. Ni gabe aritu dira, ni gabe segi dezaten nahi dut, eguzkia gorde arte besterik ez bada ere.

Azken batean nik topatu dut nire Juana. Maitek ere berea aurkitzea nahi nuke.

– Ilundu arte. Baina han ez dago inor.

Larraingain bidean ez naiz kasik ohartu ere egin Maitek, kontrola pasa eta berehala eskuinetara, elkarren gainean metatutako zuhaitz morrotuen ondotik hartu duen bideaz. Urtegiko horma nagusia atzean utzita, errepide zartatuan inauskin artean goazela, bota gabeko basoen orbanak zikintzen dit ninia.

Maldetan, ezpelak txarak osatzen dizkit gogoan. Txilar izpiak azken zirriborroak eransten ditu gauean bahitu ez duena bahitzera datorrenean loa. Ametsetan bezala, behi zuri batzuk larre bila, horra begiek bildu aurretik lotzen duten azken irudia.

–18–

Bi artikuluak amaitzen eman nuen igande goiza. Alemaniarrena, ia burutua nuen. Juana Ardanazena eta makiena, behar den moduan hasteko. Idazteari ekin aurretik erredakziora egin nuen sartu-irtena. Ez nuen inorekin topo egin. Hobe. Tiraderetan begiratu nuen, ez zen ezer falta itxuraz. Mahaia garbi nuen. Gernu kiratsik ez. Orduan ohartu nintzen: Estik oparitutako luma ez zegoen ontzian. Hara zer eraman zidaten.

Bertatik deitu nion Gemari. Jartzeko salaketa lasai. Luma bat ostu zidatela, Mont Blanc bat, besterik ez. Ez zen okerreko ustea: ez zuten nire apunte bakar bat ukitu. Beste zerbaitek berotu zituen erasotzaileak, ez nire istorio zaharrek.

Gerora jakingo nuen Gemak mehatxu deiak jasoko zituela ondorengo egunetan:

«Zeure on beharrez diotsut: hobe lantokira bakarrik ez bazoaz».

Hurrengo egunean utziko nuen dena prest («hara, badiagu beste imanolkeria bat»), azken ohar batzuk eman, eta hamar egunerako ba-

keak. Oporretara nindoan, egunak neuzkan hartzeko, inori soberako azalpenik eman beharrik gabe gainera. Zer esan behar nuen, «barkatu baina Esti eta biona hondamendirako bidetik ateratzeko azken aukera dut»?

Oskar Escherrenak, Oscarrek errieta egin aurretik jakinaren gainean nengoen, ez zuen bere horretan indar handirik. Erbestean euskal kantuak abesten zituen armada naziko marinel bat, Aita Donostiaren doinu batekin Argentinako dokumental jaialdi xume batzuetan erakutsi zen grabazio amateur baten egileaz idatzia nuena, bitxikeria gisa har bazitekeen ere (hor zegoen itzal egiten Gerhard Bähr euskaltzaina, Berlin bonbardatuan sartu zirenean sobietarrek SSkoen uniforme eta guzti zerraldo aurkitu zutena), ez zen berez interesgarri. Ekartzekotan, egoera sozio-ekonomikoak Iruñera bultzatutako bilobaren kasuak ekartzen zuen irakurlearen egunera. Hala zen, Oscar Iriartek zarratzen zuen nolabait ere Oskar Escherrek hasitako zirkulua. Hans Langsdorffek, berriz, literaturaz zikintzen zuen kontakizuna, egia da, bazuen pirotekniatik: goi graduazioko militar bat Buenos Airesko hotel ba-

tean, ohe gainean etzan aurretik, ahalik eta dotoreen banderan bildu dena. Eta azken gogoeta Atlantikoan barrena, nora eta Baltikora, Rügen uharteko labarretara, tiroa entzun eta pasilloa urrats presatuz bete den arte.

Zer pentsa ematen zidan guztiak: objektuak barik istorioak biltze horretan, ez al nintzen neu ere Oscar bezain etorkin bihurtu, ez espazioan, denboran baizik? Ez al nituen egiaz behar istorio hauek neure aldia osatzeko, bizitzeko?

Zaharraren argazkia Oscarrek esanda bezalaxe heldu zitzaidan, arreba Lucilaren ohar batez, asko pozten zela aitonaren istorioaz «azkenean zerbait» ateratzea. Armadako kapelu zapal zuriaz ageri da Oskar Escher. Dotore dago jaka ilunarekin, botoi urrekarak dituela ilaran goitik behera soinean zein mahukan. Paparrean, arranoaren hegalen erdian, esbastika. Deitoratzen zuen Rügengo filma ez aurkitu izana, etxean dela baina ezin topatuta dabilela. Igorriko didala kopia, egitea lortzen badu, aurkitzen duenean. Halabeharraz hitz egiten zidan, ikuskizunaren zatarraz («Montevideon jendea moiletan bibaka eurenak ez ziren gazteak heriotzara

bidaltzen zituzten artean»), gerraren lotsaizunaz eta soldadu aleman askoren ahalkeaz. Adeitsu zirudien, borondate oneko, nebaz kezkatuta amaitzen zuen e-maila («ahal baduzue, zaindu ezazue pixka bat, asko pasatakoa da»).

Bazen, dena den, azken uneko albiste labur bat, erantsi ez erantsi nenbilena. Zegoena handik eta hemendik jaso eta, informazioa bateratu eta antolatuta, presaka batean itzuli nuen:

«Luze gabe, eta itxura guztien arabera behar adinako kapitala lortuta, Graf Speeren atal gehiago azaleratu nahi dira. 1997an uretatik atera zen kanoiari 27 tonako telemetroa gehitu nahi zaio orain. Ontzia Montevideotik bost bat miliatara dago, mendebalderantz. Zortzi metroko dzingoan bi zati egina dago, eta erdia baino gehiago ibai azpiko lohietan hondarratua».

Bigarren erreportajea interesgarriagoa zen, neure aldetik ere gogo handiagoz egina, idazkeran bertan nabaritzen zen, baina amaitu gabea nuen artean. Hurrengo egunean partitu nahi nuen Estirekin eta ezin asmaturik nenbilen nola eman errematea, dena ere ez baitzegoen, egia esan, nire esku. Egoera hartan egin zitekeen

gauza bakarra egin nuen: arriskatu eta El Vergelgo egoitzan kontatutakoa benetakotzat jo. Juanaren biografia labur bat egin, eta Faustino Ibañez bera itzal zuela, 40ko hamarkadan Iruñean Alderdi Komunistaren inguruan eratu zen lagun talde harena gutxi-asko kontatu. Larraingaingo hilerrian bertan utz nezakeen dena, astelehena bitartean helduko ziren albisteen arabera era batera edo bestera amaitzeko artikulua. Pozarren hartuko nukeen aurkitu dutelako deia, baina gorpuzkinak ez idorota ere, gauzak ez ziren gehiegi aldatzen. Nik aurkitu nuen Juana.

Lo zapo nengoen besoak antxumatuta kolpe mineral batzuek iratzarri nindutenean. Inurrituta nuen ezker besoa. Oscar zen, autoan ni nengoen aldera hurreratuta botila lohi baten ipurdiaz leihoa jotzen ari zena. Ateratzeko egiten zidan eskuaz. Lurra kentzen zion. Zalantzaren itzala argia biltzen hasi zen berriro, desegin egin zela sinetsi nuen. Juana han zegoen, aurkitu zuten. Iluntzen hasia zen, autoko argiak piztu nituen. Maitek gerrirainoko zuloan segitzen zuen artean, aztarrika. Berna hezur bat ateratzen ikusi nuen,

aldaka izan zitekeena gero. Hobira gerturatu ginen biok.

«Hau gizonezkoa da».

Maitek esanda nekien hiru direla aurkitutako gorpuzkinak emakumearenak edo gizasemearenak diren salatzen dituzten hezurrak: burua, hezur luzeetako atal batzuk, eta agian errazena, azpil hezurra.

«Seguru?».

«Hau gizonezkoa da».

Auto baten bolantearekin zebilela zirudien mokor hezur hura esku artean ikusita.

Urduri zabaldu nuen botila muturra, kristalaren hariari gogor lotzen zitzaion herdoil iluna. Botilarena ez zen berria. Gauza jakina zen lehendik ere agertuak zirela nola hala lurperatutakoen belaun artean, medikuak sinatutako agiria zutela barnean, hildakoaren izenarekin eta heriotzaren arrazoia argitzen. Aurkitutako batzuk, banekien, alferrikakoak gertatu ziren, kortxoz itxita muturra, hau usteltzean barruko papera ere desegin egiten baitzen denboraren poderioz. Beharrik, zergatik ez dakigula, metal malguzkoa zuen honek. Beruna seguru asko.

Kontu handiz zabaldu zuen bildutako papera. Hauts egiten zen muturretatik, birrinak usoentzako aleak balira bezala pausatu zitzaizkidan esku ahurretan. Automobilaren barneko argia isiotu zuen Oscarrek. Buruen gerizpe artean, argia pasatzen uzten zuen mintz mehea zen agiria, makinaz jotako letra irakurri ahal izan genuenean. Hala jakin genuen Martin Ros zuela izena, eta tuberkulosiak jota hil zela, antza, hogeita bost urte zituela. Medikuaren sinadura zen bermea.

Maitek zuloan segitzen zuen. Burua eta eskuak ikusten genizkion, hezurrak atera eta hobia egiteko pilatutako lur gainean ahalik eta txukunen uzten. Luze gabe atera zuen kaskezurra.

«Hau ez da Juana».

Bagenekien, esana genion inguratzeko, baina nahiago izan zuen segi, gorpuzkin haiek handik atera gauak dena estali aurretik. Hezurrak tontorrean utzita hurbildu zitzaigun, pintzel batez lurra kontu handiz kentzen ziola buruari. Ernegaturik azaldu zen. Argazkiagatik zuen kezka, argi harekin ezin bertan egin. Bestalde, ezin han utzi hurrengo egunerako.

Hezurrak metalezko kutxan sartu eta autoko kofrean gorde genituen. Gauak irentsi gintuen Agoitzera iritsi orduko. Leihoak jaitsita egin genuen Iruñerainokoa, garagar usaina trumoi aurreko airearekin nahasten zela.

Ez genuen kezkaz haragoko galderarik egiten asmatzen.

Heldu eta batera, zerbeza zabaldu, ordenagailua piztu eta idazten hasi nintzen. Esti eta Laida amonarenean geratu ziren lotan. Urdaiazpiko pixka bat sartu nuen ogi artean. Esku bete gerezi. Beste zerbeza bat. Oscar zuzen zegoen: lanbide alua da hau benetan harrapatzen bazaitu. Bat baino gehiago izango dira noski gaiztoak behin barrenak hartuta, baina hau da horietako bat. Ezin du kazetariak arratsaldeko hiruretan itxi eta dena ahaztu hurrengo egunera arte. Erredakzioko ateak giltzatuagatik, hogeita lau orduz du piztua burua. Eta horra galbidea. Horra nire kasuan behintzat maite izan dudan guztia txakurraren zulora bidaltzen ari dena.

Teklatuaren gainean lo harrapatu ninduen igandeak. Idatzita nuena irakurri nuen. Alde handiak idazkeran, ez ongiegi kontatutako istorioa.

Dutxatu, arropa aldatu eta Estirekin mintzatu nintzen. Amonarekin egin duela lo Laidak, gela txikian. Esnatutakoan aitari deitzeko esango ziola, eta mesedez, eguerdian behintzat agertzeko bazkaltzera («nire etxekoek ez dute zertan jakin nola gabiltzan»).

Gauean idatzitakoa berregiten hasi nintzen, Maitez eta Oscarrez ohartu gabetanik, hobian geratutako hezur txikiak baheaz batzen izango zirela, ni baino lo gutxiago eginda, Juana agertuko zen esperantzan beti.

Gizonaren gorpua azaltzeak, nahi gabe bada ere, arazo txiki bat zekarkidan. Sartu egin behar al nuen erreportajean nor zen ere ez nekien Martin Ros hura? Juana agertu ezean, ez zirudien oso zentzuzkoa.

Ikusi egiten nuen, eskuak pala kirtenek gorrituta, Oscarrek Maiteri: «Imanolek hainbesteko interesa badu, zergatik ez dator laguntzera?». Eta Maiteren erantzuna, ni babesten, gehiegi esan gabe dena esaten. Ez zuen atertuko baina, banekien.

«Edanda zegoen?» ekingo zion Oscarrek.

«Noiz?».

«Atzo, auto barruan lo geratu zenean».

Kafea borborka nuen sukaldean. Jaiki eta surtatik erretiratu. Edalontzia erdiraino bete. Koilara bat azukre. Eragin. Eskuz aldatu, beroa. Irratia piztu. Auto ilara handiak Behobiako horretan.

«Zer egin behar duzu hezurrekin?».

«Atzokoekin?».

«Zeinekin bestela».

«Argazkiak atera, fitxa egin, gainetik aztertu eta Imanoli utzi. Berak asmatuko du zer egin».

Etxeraino igo nuen bart metalezko kutxa. Horma-armairuan gorde nuen, manta koadratu bat botata gainetik, aspiradoraren ondoan. Berak topatu aurretik esan beharko nion Estiri zerbait, eta lasaitu, soluzioa aurkitua nuela, oporretatik bueltan aterako nuela apopiloa handik, baina nora? Txalet baten itxura hartuta, hiru txapaldatan eraikia, («zer landatu dituzte, ipar haritzak?»), Nagoreko hilerri berria ez zen atsedenlekurik egokiena bertan beste senideren bat, lagunen bat izan ezean. Galdera, absurdua zen berez: zer egiten da zeurea ez den hildako batekin?

Oscar xaxatzen ahaleginduko zen Maite, Juana aurkitzeko zituen azken esperantzak aukera hartantxe lehertuko zituen, ezin zuela bakarrik utzi sinetsaraziko zion. Besteak ez zuen gogorik han segitzeko, ezagun zuen.

«Ez dago hemen, goazen».

Galdezka arituta, ziur nengoen, aterako nuen Martin Rosen arrastoa. Erosten erraz ez neukan denbora behar, horra arazoa.

«Zaharrarengatik da, Faustinorengatik? Eman atzoko hezurrak, esan bera dela. Nor konturatuko da ba? Gezur txiki batek merezi du betirako atsedena! Ala ez?».

Harrika bota du Maitek pala. Atera da zulotik eta hilerri sarreraraino inguratu da, Oscarrek inoiz entzun ez dion gorri hotsean, ostikoz jo du metalezko atea. Lurra askatu da bota azpitik. Gustura irekiko lioke burua angurri bat balitz bezala. Damutu da Oscarren eskuei utzi izanagatik. Berregin egiten du iragana: eskuak titietan, ipurmasailetan, izterretan, eskuak sabelpean atzapar bi, txinatar idiogramak urratzen, ezpainak irekitzen, eta zakil harroa gero, bidean aurrera, orain ingira ematen dion ahoa belarrira esaka,

«zuhaitz bat egin nahi dizut barnean». Gonbitolarria sentitu du.

«Nor konturatuko da ba, Maite, nor?», ahalegindu da esandakoa zuritzen Oscar. «Bakeak merezi du horrenbeste!».

Agiriaz akordatu naiz. Aurreneko tiraderan gorde nuen bart, ordenagailuaren mahaian. Zabaldu eta han dago, botilaren azpian. Hau atera dut aurrena, gela osora zabalduko du lur heze usaina. Begia zorroztuz gero ikusi egiten zaizkio ipurdian kaparrak bezala atxiki zaizkion orban gorrixkak. Onddoren bat, hirurogei urteko onddo bat. Tapoiaren kolorea, ezin da abantzu igarri zein den. Gorri iluna. Ardo kolorekoa. Garaiko botikaren batena seguru asko.

Ez nuen etsiko. Galdetuko nuen galdetuko nuenez.

«Nola esan duzu?».

«Martin Ros».

«Eta noiz ehortzi zutela?».

«Berrogeita lauan».

«Hori ez da hemen ingurukoa».

Badago, ordea, ongiegi ulertzen ez dudan zerbait Maiteren eta Oscarren artekoan, ongiegi

ulertu gabetan ere nondik norakoa suma dezakedana. Hobia hutsik geratu da, pala bat soilik, banderarik gabeko masta bezala lurrean sartua. Makinak heltzen direnean ulertuko ez duten paisaia ikusiko dute eraisketa arduradunek Larraingainen. Lurra harrotuta hilerri bueltan, ume, kontrabandista, lapurren bat, jakizu zein ero altxor bila ibili izan balitz bezala.

Txararen argi-ilunak harriduraren lekuko.

Orduan ohartu naiz. Irakurtzeko modukoa du letra, kaligrafia ederrekoa da sinadura. Presaka jaiki naizenean, alfonbra gainera erori da botila.

«Utz nazazu bakean! Ez zaitut behar! Neuk bakarrik segituko dut», egin dio oihu Maitek hilerri barrura.

Esan orduko jo du poltsikokoak. Ni izango naiz, etxetik.

«Hor dago».

Maldara begira dago Oscar. Tu egiten du, ezpain artean ibili duen belar izpia doakio txistutan.

– Zer, Imanol?

Ongi ebakitzen ahalegintzen naiz, errepikatu beharrik gabe lehenengoan uler diezadan Maitek.

– Sinadura. Atzoko botilako sinadura, Maite. Ez duzu sinetsiko.

Eguzkipean, saiak ikusi ditu Maitek igande goizean Iñarbe aldetik. Han gabe nintzen han.

–19–

Ez dira galderarik gabe so egiten dizuten begi beratuak gehien harritzen zaituztenak, botila barruan agertu zen paperaren kolore bereko eskuak baizik, luzeak eta zainduak, zorrotik atera duen ogi koskorra papur egin eta usoei –orain honi, orain hari– doitasun salomonikoz banatzen ahalegintzen diren esku horiek, eraztun ikusgarria duela ezkerrekoak eri nagian. Laurogeita hamarretik gora izango ditu, baina ez da gaitza egiten gizona gaztetan nolakoa izan den imajinatzea. Garaia, planta apartekoa, izan da nor ez aspaldi arte.

Ano bana mokoan, lehentxeago samaldan hurreratu zaizkion usoak sakabanatzen hasi direnean eseri natzaio aldamenean. Biurrun doktorea den galdetu diot, («hala naiz orain arte»), neure burua aurkeztu dut, zer naizen zuritu gabe. Badakit kontsultatik pasatako baten bat naizela datorkiola, bezeroren baten semea bestela, jakin badakit ohituta daudela medikuak ho-

rretara, besterentzat ezagun izan eta diosala egiten dioten gehienak ez ezagutzen.

Giro dago. Apaldu dira aurreko asteetako bero zakarrak, hodeiek bere onera ekarri dute eguraldia, labea azkenaldian. Biok aulki zurian garelarik, usoez hasi zait solasean, usoez eta hiriez, nola behar dituzten batzuek besteek, («frantziar burgesiari zor zioagu hau ere, ezinezkoa duk bata bestea gabe ulertzea»), garbia du ahotsa («eta alderantziz»). Atsegina da Biurrun, adeitsu ari da, eta inondik ere behartu gabe, alarguna dela aitortzen dit, lehen emazteak egiten zuen bezalaxe egunero jaisten dela, beti ordu bertsuan, usoei jaten ematera («berez Gazteluko enparantzara, baina obrekin, usoak ere honantz mugitu dira»).

Ez dut Juana Ardanaz ekarri nahi hizpidera oraindik, habaila eman behar diot, gauza txikietan bada ere, ezarian biluzten utzi, ager dadin gizona bere sotilean. Basarrosak haizearekin nola, hala gizona bere hitzekin. Eleen dardarak erora-raziko dizkio azken orriak, apaingarririk gabe agertu arte. Hainbeste urteren ondoren, ez da presaka aritzeko kontua. Mintza dakidala usoez

eta birikez, arnas aparatuko gaitzez, desagertzen ikusi eta berriro entzuten hasiak diren tifusaz eta tuberkulosiaz («kanpoko jende honek ekarri ditu, desastrea da»), bizitza osoa eman du horretan. Orain semeak duen bezala, izen handia izan du berak ere. Eta hiriko sendagileen artean semea aurkitzea erraza izan delako aurkitu dut nekerik gabe urteengatik hilda zegoela uste nuen gizona.

– Histoplasmosia, badakizu zer den? –galdetu dit.

Birikei erasaten dien mikosia dela azaltzen dit, hirietako usoei leporatzen zaien gaitza («garai batean oso zabaldu zen, higiene baldintzak okerragoak zirenean»). Ez sinesteko dena eransten du baina, badirela beste arrazoi batzuk ere, «inoiz bere gordinean azalduko ez dizkigutenak», dio.

O Barqueiron izan zen, opor egunen hasieran. Estiri agindu bezala, ez nuen hildakorik eraman maletan. Trukean, berak ez zuela lan konturik aipatuko hitz eman zidan. Itzuli arte ez zen beste zerbaiten bila hasiko. Bideak berak emandako hartaz hitz egin genuen haranzkoan, iraga-

neko osteren oroimenez, Laida ezin eraman izanaren penaz («seguru egon nahi dut biok bakarrik ez aspertzeko gai garela»). Esandakoa bete nuen. Lurpeko bakar bat aipatu gabe iritsi ginen, onik ustez. Ez neramatzan, baina han zeuden. Goiz batez, bera iratzarri gabe zegoela artean, uraren hotsez esna ez zedin, dutxatu gabe jantzi eta ostatuko nagusiak neuretzat beren-beregi piztutako makinako kafea ohi baino arinago hartuta moilaraino jaitsi nintzen. Hutsik zegoen herria, itsasorako beharra zutenak atereak ziren.

Autoa hartu eta Bareserantz egin nuen. Ez dakit nola, hala uztartu zitzaizkidan buruan solterik nerabiltzanak. Rügengo labarrak ez zirela oso bestelakoak izango otu zitzaidan, hil aurretik ikusi beharreko paisaia horietako bat behar zuela nolanahi, Friedrichek iradokitzen duen neurrian, kasualitate anker eta guzti. Bi gizon eta emakume bat hutsaren aurrean, eta margolariaren erotzea, bakartzea.

Orduantxe erabaki nuen Segundo Biurrun topatu behar nuela. Zor nion Maiteri. Berak, Faustinoren hitza besterik ez izanik, Juana Ardanaz

topatu arteko adorea batu zuen. Nik, aldiz, azken koska behar nuen oraindik istorioa zarratzeko.

«Maite, identifikatua sentitu zarelako izan da?».

«Zer diozu?».

«Zergatik ez duzun amore eman. Gizonezkoa balitz, berdin jokatuko zenukeen?».

Segituan konturatu nintzen zer esan nion.

«Imanol...».

«Ez didazu erantzungo?».

«Bai».

«Berdin?».

«Ez, berdinago».

Sakelakoa hotelean ahaztuta, faro bideko taberna batetik deitu nion Maiteri. Lotsatu egin nintzen ezer hartzeke telefonora jotzea zuzenean. Kafea eskatu nuen berriro. Irakiten zegoen ur lohi mehea. Leihotik, behiak larrean bazkan. Ez zuen hartzen. Lo egongo zen seguru asko.

Segundo Biurrunen aldamenean nagoela, ez diet inongo xarmarik aurkitzen hegaztiei. Urrumak berak urduritu egiten nau. Zirinduta daude inguruak, baita aulki gainak ere («arropa erretzen du, hori du txarra»). Elkarren artean ezin

berdinagoak zaizkit uso guztiak. Hanka falta duena soilik bereizten dut aldran. Ikustekoa da nola zamatzen duen pisua epaitondo gogortuaren gainean.

– Badakizu nor zen usozale amorratua?

– Nor.

– Dvorak.

Bi dituela Antonin Dvorakek zaletasunak azaltzen dit, uso mezulariak eta lokomotorak.

– Ez al da ederra? Makinek, usoek bezalaxe, pertsonen arteko harremanak hobetuko zituztelako itxaropenez bizi zen konpositore bat.

Zeruari begiratu dio, izotz egun argietan itsasoa bezain urdin. Hodei handi bat Diputazio jauregi atzean. Itzala aulkira hurreratzen, egunkari abandonatu bat aurreko jesarlekuan. Gayarrera joan zela esaten dit, 2001eko Errege egunean, Behe Silesiako Filarmonika zelako jotzen. Errepertorioan, Chopin, Moniuszko, Strauss («semea, noski, nik hala ere Richard nahiago dut»), eta tartean, baita Dvorak ere, eslaviar herri aire bat.

– Polkak, valsak... badakizu, Radetzky martxarekin itxi eta ergel guztiak txaloka. Gabon inguruan gustatzen den errazkeria horietako bat.

Ahoa bete gabe, ez dela hori berak zinez maite duena aitortzen dit, baina ez duela hemendik atzera aukera larregirik izango musika zuzenean entzuteko, eta horregatik.

– Itzaltzen ari naiz.

Itzaltzen.

– *Stabat Mater* ezagutuko duzu, noski. Badakizu sarri joaten zela Londresera. Behin, Albert Hall-en, ehun eta hogei instrumentista eta laurehun kantari zuzendu zituen. Bai, Antonin Dvorakek berak. Ikustekoa izango zen, ez duzu uste?.

Herio eta Dontzeila etorri zait lipar batez, zinemara gehiagotan joateko aukera izaten nuenean ikusia. Txilekoa izan daitekeen paraje bakartu batean, itsasargia eta labarrak, jo du etxeko atean gizonak laguntza eske. Hartu dute etxekoek abegikor, eta arian, urte batzuk lehenago bera torturatu zuen militarra ezagutu uste du etxeko emakumeak ahots gozo hartan. Halaxe jakinarazten dio senarrari. Ordu eta erdiz ikuslearen larriarekin jolasten da, hala dabil itsasargia lainotan, susmoari kostatu egiten zaio senarraren eta ikuslearen sinesgogortasuna zula-

tzea. Nola izango da gizon hau deabru hura. Bidea atzerantz egin, beste hainbatetan bezala: zinema, antzerkia, hari-kuartetoa. Polanski, Dorfman, Schubert. Gizon jantzi, sentibera, gozo, basarrosa hau da benetan botiletako paperak sinatu zituen medikua?

– Minak zein gauza eder sortzeko balio duen, gezurra dirudi, ezta? Erdi Aroko testu batekin ari zen Dvorak bi egun baino ez zituen alaba hil zitzaienean. Orduan ekin zion tristura isurtzeari bere bidea egiten hasia zen lan hartan. Etena ezinbestekoa egin zen. Hurrengo urtean bigarren alaba hil zen, Ruzena, pospoloak egiteko fosforoaz pozoituta. Eta hilabetegarrenera, semea; Otik zeritzan. Hiru urte zituen nafarreriak eraman zuenean. Bi hilabete betetzerako amaitua zuen *Stabat Mater*.

Eguerdiko karilloia. Zama lanak Caritasko tonbolan. Miragarria da entzutea Biurrun doktoreak zeinen zehatz gogoratzen dituen izenak, datak, xehetasun oro. Musika klasikoa maite dudan galdetzen dit. Beharbada aspertzen ari naizela agure zahar baten bakarrizketarekin.

Ez naiz ausartzen solasa eten eta zertara heldua naizen esatera. Igande eguerdia zen Maitek deitu zidanean. Zotinka entzun nuen bestaldean.

«Hemen dago, Imanol, hemen dago».

Martin Rosen hilobitik bertan aurkitu zuten («metro eta erdira egon da, biak buruz buru»).

Eta ez dakit azkenera heldu zela ohartu zelako edo bakarrik zegoelako ari zen negarrez.

«Topatu beharra nuen, nik ere Juanaren istorioa idatzi beharra nuen, Imanol».

Lasai egin zezan utzi nion. Malkoak euria muinoan behera bezala isurtzen, eztarria, bihotza, sabela estutzen zidan isiltasuna, Dvoraken malura guztiak baino mingarriagoa. Aurreneko aldiz, egun haietan guztietan bakarrik utzia nuela sentitu nuen.

Albanian gutxienez.

«Neurekin daramat liburua, irakurri behar dut lasaiago».

Kutxa etxean utzita, Mercadereseraino lagundu nion. Argiak apalik zeuden. Plazatxo hustuan agurtu genuen elkar. Deituko genuela agindu genuen. Zortzi urte ziren ez genuela horrelako estuturik hartzen.

Ezpain haietan itotzeko gogoa.

«Badakizu gauza bat, Imanol? Zuk zeurea idatzi ahala nahi izan du Juanak berak irten handik».

Ez nintzen ausartu berarekin amets egin nuela esaten. Nolakoa zen galdetuko zidan, zer gertatzen zen, eta banekien ez nintzela kontatzeko gai izango, lotsatu egingo nintzela.

Handik atzera ezer ez zen azken asteetan bezala izango. Denok gindoazen nonbaitera. Bera, udako oporrak hartuta, Bretainiara lehenbizi, eta Donostiara gero, unibertsitatean ikastaro bat emateko eskaintzari baietz esanda. Oscar zuntz optikoa botatzera seguru asko, auskalo nora. Eta ni... ahal nuena salbatzera. Hasteko, letrak eta hildakoak ahaztu eta haitzez eta itsasoz betetzera barnealdea. Nahi behintzat.

– Itzultzen garenean, ordenatu hori mesedez –esan zidan Estik telebistaren alde banatako apalategiei begira, era kaotikoan pilatutako liburuak eta filmak nonahi.

Berak esan gabe ere, erabakia nuen ahal zen neurrian dena errazago bihurtzea, konpromisoei ezetz esaten hastea, urteetan hartutako zama

arintzea. Kapuscinskik arrazoi du: atsedenik onartzen ez duen lanbidea da hau, baina zulora ninderaman, Rügengoen aldean amildegi beltzetan behera nindoan. Erortzen uztea nuen errazena.

Aspaldi ilunduta zegoen Maite gurera heldu zenerako. Oscar gabe etorri zen. Laida ohean, jaisteko esan nion Estiri, gauza bat nuela erakusteko. Urteak ziren Maite ikusten ez zuela. Bion artean igo genuen kutxa. Hitzak oso behartuta etorri ziren, ez zen garai bateko hartatik ezer geratzen. Arrastaka eraman nuen armairu barnera. Bestearen gainean utzi nuen. Tapan, errotuladore beltzez markatua «Juana Ardanaz» zuen idatzia letra larriz. Eta data. Ez nuen ireki eta kaskezurra esku artean hartzeko adorerik bildu, ez nion gustura egingo nukeen keinu hori erakutsi nahi Estiri. Alde egin zuenean, Maite oso ongi ikusi zuela aipatu zidan, ez zen gehiago luzatu. Hezurrak ere, Maite eta bion arteko zerbait zela eman zidan aditzera. Ez zidan esan «atera hezur horiek berehala etxe honetatik», baizik eta «ordenatu liburu, bideo eta dvd horiek mesedez».

Dena ez zegoen galdua, hala ulertu nahi nuen behintzat.

Gau hartan, berandu arte egon nintzen ordenagailu aurrean, Iruñeko makia Larraingaingo hormaz kanpoko bi hilobiekin lotzen. Erabakia hartua nuen, Juana Ardanazen istorioa soilik kontatuko nuen. Martin Rosena, nola esan ezer galdetu nienen artean inork ez bazuen inondik ezagutzen.

Berandu zen oso Estebani hots egin nionean. Banekien, jaikita harrapatu nuen. Apal heltzen zitzaidan haren ahotsa. Topatu nuela egin nion oihu, topatu genuela Juana, han zegoela.

«Hik jakingo duk-eta, zer egiten da garai hartako hezurrekin?», bota nion ahotik hortzera.

«Salda eder baterako baduk, ez? Hoa oporretara, zain ezak ondoan duan hori, Imanol...».

Juana ere botilarekin agertu zen. Mediku agiririk ez, ordea, belaunburu bien arteko bonbilla zapalean. Hilkutxa desegin zuen bezalaxe bihurtu zuen hauts denborak botila muturra zarratzen zuen kortxoa, eta kortxorik gabe, baita barruko papera ere. Seguru geunden horregatik, hezurdura emakume batena zen.

Ez nuen aurreko egunetan buruan erabili nuen amorrurik sentitzen, ezta espero nuen lasaitua ere. Eta banuen arrazoirik odolak galtzeko. Rosena kontatu ezean, Juanaren botila hutsik, ezin Biurrun medikua inon aipatu. Izen eta abizenez salatzeko, Faustinoren hitza ez nuen nahikoa berme, nahiz eta neuk neure aldetik ez nuen ote-otean egoteko arrazoirik. Ongi geratuagatik, erdizka kontatuko nuen istorioa zen Juana Ardanazena. Hiltzailearen faltan, historia bera hiltzaile. Larderia bestela. Dena konpondu zen bezala, mutu egon behar. Areago, ezin nuen biharko egunean inor Segundo Biurrunen arrastoaren atzetik jarri.

Ez eleberri batean ez bada.

Ez letra hauetan ez bada.

– Zaude seguru, Dvorak ez da bakarra gainera, oinazea da artearen motorra –gogorarazten dit.

Oinazearena, benetan dio. Gainera, Fernandoren egia da arterik behinenak minetik jaten duelakoa.

Sarasaten eserita gaudelarik, asko dira osasunagatik ez bada familiagatik galdetuta, Biu-

rrun agurtzen duten gizon-emakumeak. Adinekoak gehienak, inguruetako bulegoren batean sartzen den gazteagoren bat tarteka («eman goraintziak semeari»). Aurreko egunetan, O Barqueiroko egonaldian ongi pentsatu eta hobeto erabakiagatik, ez dut asmatzen ezer esaten. Biluzik ager zedinean menderatu nahi nuen. Basarrosak berak sorgindu nau.

– Ari gara, baina ez didazu esan zer nahi duzun agure zahar honengandik.

Zuk orain hirurogei urte lur eman ziezaieten agindutako neska-mutil batzuen hezurrak ditut etxeko armairuan, eta ez da ezergatik, baina emazteak enbarazu egiten dutela eta handik aterako ditudan eskatu dit, kirastu egiten dituztela gainean esekita ditugun arropak. Ibili naiz galdezka. Ez dute seniderik, eta ulertuko duzun moduan, nonbaiten utzi behar ditut. Zuk ezagutu zenituenez biak, pentsatu dut ea hartuko zenituen denboralditxo batez zeurean, nik zerbait egin bitartean, diot.

Bizitzarekin lotzen dituzten zubiak behar dituztelako dira onak zaharrak inoren arrastoa ateratzen.

– Imanol Arellano esan duzu duzula izena? Arellano burdindegikoa?

Osabagatik ari da. Ezagutuko du, ez dira bata bestearengandik urruti ibiliko hautestontzietan. Ezetz diotsot, ez diot aukerarik eman nahi.

– Jakina, Arellano asko dago Iruñean.

Nik orain bezala, Segundo Biurrun bilatu eta aurkitu zuen Martin Rosek Juanaren heriotzaren berri izan eta gutxira. Niri bezala, ez zitzaion zaila egin; Biurrun doktorea, gaztea izanagatik, bazen nor orduan Barañaingo behe-ibarrean eraiki berria zen ospitalean. Eta ospitalean dioenak orduko Iruñean dio. Aho bizarrik gabe, bazekiela berak hil zuela Juana botako zion Rosek braust muturrera. Arrotxapeatik ezagutzen zuen Juanak, asko lagundutakoa zen Martini berari ere. Orduan desagertu zen Ros. Orduan asmatu zioten tuberkulosiarena eta horregatik eraman zuten egun batzuk lehenago Juana ehortzitako paraje berera. Bidea egina zuten. Horregatik ez du Larraingain inguruetako inork ezagutzen izen hori. Hori da pentsatzen dudana. Hori da Faustinok kontatuko didana egunen batean, beldurrak eta ezjakintasunak lotutako ilobaren gainetik

pasa eta laino artean, mugaldeko ataka arteko bordan iluntze batean aizaroan hitzordua jarrita esango didana. Eta hori da astia duen batean Maiteri eskatuko diodana, etxean ditudala eta munduko denbora guztia, bilatzeko laguntza, baina erre eta sakabanatu aurretik, mintzarazteko hezur haiek, jartzeko hizketan, seguru nagoela badutela zer kontatua. Nola hil zen Martin Ros jakin nahi dudala, esaterako.

Galiziarantz abiatu nintzen goizean, gaur hamabost, Segundo, hortxe atzean dugun postetxean sartu nintzen. Esti autoan gelditu zen, irratiko kanala aldatzen atea danbada artegaz zarratu nuenean. Eta telegrama bat idatzi nuen, neure bizitzan bidali dudan aurrenekoa. Badakizu nora? Horra behera, «El Vergelerako da», esan nion leihatilako langileari. Ez nuen sos asko gastatu beharrik izan, gutxi behar bainuen esateko nuena esateko. «Juana aurkitu dugu» idatzi nuen eskura eman nion paperean, letra larriz. Laburregi iritzita, «mila esker denagatik» erantsi nion.

Badakit ez dela hor etengo. Ezagutzen dudanagatik, eta lanbide honetan ikasten duzun zer-

bait da, pertsona batzuekin aski da bi arratsalde egotea nahikoa ezagutzeko, badakit amuari helduko diola Faustinok, orain dela aste batzuk nik berarenari heldu nion bezala, eta berandu baino lehen, deituko didala. Badakit ilobaren eta zaindarien morroiloak hautsi eta dei bat jasoko dudala erredakzioan, hurbiltzeko hara, kontatzeko Juanarena ongi, erabaki behar dugula zer egin hezurrekin. Lur eman edo erre eta haizeari eman jaten, baina non. Hemendik gutxira ura baino ez da egongo Juanaren sorterrian, eta buztangorriak, eta zarboak, eta txipak, loinak eta amuarrainak. Makalen eta haltzen buruak Giacomettiren eskulturak balira bezala aterako dira ur azalean gora, laban, aizto, ganibet halakoak, airea tarratatzen. Mariorratz bat hegan geldirik. Txilarra eta mulua den tokian, ihiak haziko dira. Erbi ohantzeak diren zuloetan, igarabak, uhandreak, zapaburuak. Usapalak hegan diren haizebean, norbaitek uretara botatako zapata bat agertuko da igerian. Paisaia xelebrea gurea, Faustino. Ikusi behar duzu zer egin duten, nola bihurtuko duten zuen garai bateko izu eta ilusioen aldea Konstantzako aintzira, edo Comokoa, edo ger-

tuagokoren bat nahi baduzu, Legutio, ongizatearen uretara begira. Hurrengo udaberrian igoko zaitut, turistentzako potinak, belaontziak, ureta-ko motorrak hasi aurretik, kirol portua eraiki baino lehen. Ez da garai txarra jendeaz akordatzeko, orduan ikusten dira ezpondetan beherako ureta bizian zarboak buztana astintzen, eta ongi so eginez gero, harriak azpikoz gora irauliak.

Oscarrez oroitu nintzen:

«Kontzientzia txarraren aspirina».

Faustinori telegraman idatzitako hitzek bahitu naute, «Juana Ardanaz, urtegiak irentsi aurretik aurkitu dugu» esan behar diodala erabaki dut. «Etxean daukat, Segundo. Baita Martin Ros ere». Ezpainak zabaldu ditudanean ez zait horrelako ezer atera, ordea, gogotik mihirakoan mudatu egin dira hitzak, kazetariak mendekariari hartu dio aurre:

– Aspaldiko istorio bat osatu nahian nabil –diotsot Biurrun doktoreari–, emakume batena, eta jakin dut zuk ezagutu zenuela.

Gozoa du begitartea, gutxik bezalako malgua. Zimurrek hosto baten zainak dirudite. Ogi muturrak esku artean papur egiteari utzi dio.

– Lagun badiezazuket, plazer handiz. Nola zuen izena esaten badidazu...

Galtza gainean barreiatu zaizkio birrinak. Uso lotsagabe batek izterrera igotzeko keinada egin du.

– Juana Ardanaz –esan diot.

Esku zartaz uxatu du. Hegalen astintze bortitza aurpegitik gertu. Indartsuago du ahotsa, garbiagoa arras.

– Ez dut ezagutzen.

– Ez zenuen Larraingaingo Juanita ezagutu? –saiatu naiz berriro.

Amultsutasuna bihurritu egin da ebakeran, barruak une batez hitza zikinduta.

– Harritu egiten al zara dudan adinarekin jendearen izenik ez gogoratzea?

Erlojuen mekanikak huts egin du, begira-begira dudan arren bi kutxa bete hezur jokatuko nituzke ez nauela ikusten, zabalik ditu itxian begiak Biurrunek, eta nik badakit han dagoela, Langsdorff gau hartan City hoteleko ohe gainean bezala, Friedrich bera bezala, Rügengo labarretan, inoiz zoriontsuago izan zen garaietan, itsaso azalak itsutzen diola dena. Horregatik ez du ikus-

ten ondoan eseri zaion gizonak paper bat ateratzen duela bi toles eginda, eta karpeta magalean, zabaldu egiten duela. Ez du ikusten fotokopia, agiri itxuraz zahar baten kopia, atzamarra izenperaino luzatu eta erakustera egiten diola. Garai hartan hala zen, hodei jiteko bi marra biribilez inguratua, ongi irakur daiteke sinadurako izena, eta ez dio ezer, ez du ikusi, mihi gabe jarraitzen du. Esan nahi nioke begira zer atera dugun zuloa eginda uretan, azken asteotan Montevideo aurrean Bigarren Mundu Gerrako ontzi bat, Graf Spee korazatua atera nahi duten bezalaxe erauzi dugu hondo hotzetik, arian uretan zuloa eginda, Maite Andueza izan da, baina isiltasunak bezatzen gaitu biok ala biok. Papera karpetan gorde dut. Eta hitzak ez datoz. Ez datoz, eta behar lukete, egunero bainabil eurekin lehian, benaz behar baititut Historiaren zabortegira bidean askatutako istorioak kontatzeko, behar ditut Oscarri egunen batean idatziko nuela hitz eman eta amaitzen ari naizen eleberri hau halakotzeko, orain, zer eta, ausaz gehien behar ditudanean ez agertzea erabaki dute, eta etorri barik joan egin dira, joan urtegiari ahoa

ixten dion hormatzarrerantz, gurgurai barrenean behera galdu, ito, urmindu; xirripak, errekak, uraskak, mendi negarrak, ozeanoak diruditen ibaiek eramanda bezalaxe.